

U.Z.E.I.

MENDEZ MENDE

HISTORI AGIRITEGIA

**HISTORIAURREA
ANTZINATEA**

fitxak

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia 1987-11-5

© UZEI. Esterlines, 8. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 429838 - 429839

ELKAR, S. A. Esterlines, 10. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 426319

© Depósito Legal: NA. 1.320-1987
ISBN 84-7529-488-X

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

KULTURA

100.000. XVII/XVIII. mend.

A. Blanco Freijeiro arkeologoari hartu diogu testu hau. Historiaurrearen kronologiaz aurreko mendeetako europar eruditu eta eskolatuek (Ussher artzapezpikuak, kasu honetan) zituzten eritzi eta us-teak aipatzen ditu autoreak. Handik hona Arkeologiak eman dituen aurrerapausoek zeharo aldatu dituzte gure ezagutzak. Gogoeta historiko jatorrak, aurrebaldintza bezala, kronologia finkatzea eskatzen du, nahitaez.

"XVII. edo XVIII. mendeetako europar eskolatu batentzat giza espezieak ez zuen 6.000 urte baino gehiagorik. K.a. 4004eko urtea ezarri zuen Ussher artzapezpikuak jainkoak eguzkia, ilargia eta izarrak egin zituen eguna datatzeko eta horixe zegoen auzi hartas ziharduen Genesiaren 'Itzulpen baimendu'ko atalburuan. Horrek ematen zuen gizarte anglo-saxoinek pertsona taxuzkoek jarraitu behar zuten legea. Izan zen oraindik eruditu bat ere, kiskurra kiskurragotuz, munduaren sorrerako unea txorrotxago zehastu zuenik: K.a. 4004eko urtearen Urriko 23aren goizeko bederatzietan puntu-puntuaren sortu zen mundua.

Gaurko kalkuluek, zenbait isotopo erradioaktiboren degradaziotan funtsatuz, 4.600 milioi urteko adina egosten diote lurrari. Hiru bat milioi urte kalkulatsen dira hominidoak bi hankan zutitzen hasi zirenetik; milioi t'erdi erabat zutik, gaur bezala, ibiltzen hasi zenetik (*Homo Erectus*)". (A. BLANCO FREIJEIRO, 1980)

Antonio Blanco Freijeiro arkeologo galiziarra da, gaur egun Sevilla-ko Unibertsitateko Arkeologiako katedraduna. --Historiaurreari buruzko azken urteetako iker lanak eta beraren kronologiari buruzkoak zuzenkiago, disziplinarteko lanetan oinarritzen dira: sedimentologia, palinologia, botanika, osteologia eta zientzia fisiko-kimikoetan.

Gizadiaren sorburuei buruz, Paleolitoaz eta Neolitoaz argibide osagarriak ikus: "Historia/1": 11-44. orr. Antzeko datazio-problema ikus daitezke "Mendez Mende. Aro Garaikidea" liburuan: 135, 144, 145, 148, 150-151. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko batetik Historiaurrearen ardatz kronologikoa utera, giza espeziea dagokion arloan kokatuz.
- b) Ikus hizlogi egoki batean isotopo erradiaktiboa, sedimentologia, palinologia, botanika, osteologia eta zientzia fisiko-kimikoen kontzeptuak eta artikulatuak.
- c) Fosilak datatzeko erabiltzen den karbono 14aren metodoari buruz bil ezazu informazioa.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzu dira testuan egiten diren bi sailkapen nagusiak.
- b) Zehaztu itzazu XVIII-XVIII. mendeetan ematen diren datak.
- c) Zehaztu itzazu gaurko kalkuluek adierazten dutena.
- d) Gaur egun zeintzu dira Historiaurreko datazioa zehazteko erabiltzen diren metodoak.
- e) Zer da hominidoa, eta hominizazio-prozesuaren pauso garrantzitsuenak zeintzu dira.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Lurra: 3.400 milioi urte
Teoria: 1820/1860

R. Furon zientzilariari zor zaio hemen irakur dezakegun testu hau. Paleontologia estratigrafikoak berebiziko garrantzia izango du 1820-60 urteetan, beronek ahalbideratu bait zuen lur-azalaren ikerketa sakonagoa egitea, eta ondoriobidez honen eraketaren aro eta sistema desberdinak bereiztea. Lurraren historia ezagutzeak, Geologia historikoak alegia, gizakiari perspektiba berriak eman dizkio denboran zehar milaka milioiko fenomenoak begiratzeko. Baina halako denbora luzeek azpisailekapen bat behar zuten.

"Paleontologia estratigrafikoaren aurrerapenei esker, gerusak **sistematan** sailkatzea egingarria gertatu zen, beroriek bata bestetik fosilak eta gerusa-diskordantsiez bereiziz eta ezaugarrituz.

Aro Primarioan, R. Murchison eta S. Sedgwick behatsaile bikai-
nek, 1835-1841etan definitu eta isendatu zituzten **Kambrikoa**, **Silurikoa**, **Debonikoa** eta **Permikoa**, azken hau **Karboniferoa**-ren ondokoa, Coynbeare-k 1822an lur karbonifero ingelesa aditzera emateko proposatua.

Aro Sekundarioa hiru sistematan banatu zen: F. von Alberti-ren **Triasikoa** (1834); Alexander Brongniart-en **Jurasikoa** (1829), eta d'Omalius d'Halloy-ren (1822) **Kretazikoa**.

Aro Tertiarioa Deshayes-ek hiru sistematan banatu zuen, 1830-
ean, eta Ch. Lyell-ek eman ziskien hiruroi izenak: **Eozenoa**, **Miozenoa**, eta **Pliozenoa**. 1829an Desnoyers-ek Kuaternarioarekin osatu zuen sistema.

1820-1860 urteetan gertatu zen herri gustietan, Paleontologia estratigrafikoaren metodo berrietan oinarritutako lanen loraldia (...). Lore fosilak, fauna bezainbat aztertu ziren. 1800ean jada Blumenbach-ek aspimarratzen zituen aro geologiko ezberdinetako fauna- eta flora-aldeak". (R. FURON)

Raymond Furon, Natur Historiako Museoan zuzendariordea izan da Parisen, eta hiri bereko Zientzi Fakultatean ohorezko irakaslea. Alor ongi interesgarria da Furon-en barruti berezitua: Paleogeografia, hau da, Lurraren itxura historikoak deskribatzen dituen zientzia. Testuinguru horretan argitaratu zuen bere "Causes de la répartition des êtres vivants" (Izaki bizidunen banakuntzaren kausak, 1958).

Ik. "Historia/1": 13. or. Ezagumendu geologikoen testuinguru historikoa ezagutzeko, begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 135-136. orr.

EGITEKOAK

- a) Egizu lauki sinoptiko bat, agirian agertzen diren Aro eta sistema geologikoak azalduz.
- b) Begira entziklopediaren batean eta usa d'ukazun lauakia.
- c) Ikus hiztegi egoki batean: paleontologia estratigrafikoa, geruza, fosil eta agirian agertzen diren Aro eta sistemen kontzeptuak.
- d) Bila entziklopedia batean agirian agertzen diren ikertzaileen izenak, eta esan zein ekarpen eskaini zioten Paleontologia estratigrafikouri.
- e) Egin daiteke intereraren bat geruzak ikusi, fosilak bilatu eta aztertuz; agian, honetarako, Natur Zientzielako irakaslearen aholkua beharko dugu Historian ere.

ERANTZUTEKOAK

- a) Paleontologia estratigrafikoa zertan oinarritzen da, Aro eta sistema desberdinak bereizi eta ezaugarritzeko.
- b) Nuzkoak dira zientzia hauek, eta zerk lagundu zuen beraien laraldia.
- c) Zein da testuaren pentsamendua bere osoan?
- d) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Flora: 3.000/200 milioi urte

Fauna: 800 milioi urte

Paleoantropologo honek espezien jatorri-problematikaren aurrean jartzen gaitu, gizakiaren beraren sortze-prozesua problematika honetan sarturik dagoela kontutan hartuz. Agiri honen autorearentzat, gizakia, fisiko eta psikikoki, eboluzio luze eta oraindik eztabaidagarri baten emaitza da.

"Eta gizakia? Geologiaren arabera, eboluzio-arbolaren beranduko kimu bat da. Iker-metodo berriak aplikatu ondoren, bazterrera utzi dira gisonari aintzinasun geologiko handia emateko egin diren ahalegin gutxiak. Eta hala, ugastunak ere beren antzik ez zuten beste forma batsutatik poliki-poliki eboluzionatus etorri diren bezala, gizakia ere eboluzioz sortu da gizatasun-gabeko formatatik abiatuz.

Orain berrehun urte, Linneo lehen sistemagile handi hark bere "Sistema Natural" a ezarri zuenean (1735), uste zuen, hasieran sortuak izan ziren hainbat espezie bereiz zitezkeela (...).

Haren Zoologia estatikoa zen, haren garaiko mundu-kontzeptua bezalaxe; haren sailkapena horizontala zen. Historiaurreko mundu bisia esaguna izaten hasi zenean bakarrik pasatu zen lehen planora, itxuraz oso desberdinak ziren izaki-taldeen artean egon zitezkeen ahaidetasun-loturen arazoa eta, beraz, kronologiako sailkapen bat, bertikala, egin beharra zegoela ikusi zen (...).

Gizakiaren eta antropomorfo diren triminoen arteko diferentzia seguruenik dezentekoa den arren, herri primitiboek guk baino askoz ere sekundarioagotsat jotzen zituzten desberdintasunok. Malaiarren hizkuntza ezagutzen duenak badaki, Indonesiako antropoide nagusienaren izenak, orangutan hitsak alegia, "basoetako gizona" nahi duela esan hitzez hitz". (G.H.R. van KOENIGSWALD, 1971)

Gustav H.R. VAN KOENIGSWALD, paleoantropologoa, jaiotzez berlingarra da (1902). 1941ean, Sangiran-en (Java), Australopithecido eta gizakien aztarnak aurkitu zituen, Olduwaykoen antzekoak. Ikertzaile honen ustez, hominizazioaren lehenengo etapak Asia-n gertatu ziren. "Die Geschichte des Menschen" (Gizakiaren Historia) obraren autorea da.

Agiriko arazoan argigarri, ik. "Historia/1": 13-17. orr. Era berean, ik. "Mendez Mendek. Aro Garaikidea": 139-140, 147. orr.; "Euskal Historia" (Oihenart Taldea): 8-13. orr.

EGJTEKOAK

- a) Saia zaituz, ahalik eta eskematikoen, gizakiaren eboluzio-erbia azaltzen. Diagrama batean eta margoekin egin dezakezu.
- b) Ea mapamundi batean, gizakiaren lehenengo aztarnak aurkitzen dituzun.
- c) Euskal Herriko mapa batean lekutu Behe- eta Erdi-Paleolitoko aztarnak (tresnei nahiz gizakiari dagozkienak).
- d) Diagrama kronologiko batean jarri hominizazio-prozesuaren epealdiak.
- e) Zer dakizu Linneo eta beronen obrak?
- f) Ikus gizakiak harriz eginiko tresnak, eta komentatu zein teknikaz daudden landuta. Zein eboluzio ikusten duzu Behe- edo Erdi-Paleolitoko tresnen eta Goi-Paleolitoko artean?
- g) Ikus eta konparatu gorila, Pithecanthropos eta Homo Sapiens-aren buru-hezurak, eta beronen garun-kabierak.
- h) Adibide bera hartuz, egin eskeletoen arteko konparaketa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agiri honen izenburuari helduz, zer pentsatzen duzu espezieei buruz: Hasieratik horrelaxe sortuak, ala eboluziozkoak dira? Zergatik?
- b) Nola laburtuko genuke paleantropologo honen eritzia.
- c) Nola interpretatzen duzu ondorengo esaldia: "Gizakia ere eboluzioz sortu da, gizatasun gabeko formetatik abiatuz".
- d) Zer iruditzen zaizkizu Linneo-ren ideiak? Zergatik ari da testuaren autoreak sailkapen bertikalaren beharraz mintzatzen?
- e) Zer esan nahi ote digu Koenigswald-ek Indonesiako antropoide nagusienaren izenaren erenplua aipatzean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Eguzki-sistema: 4.600 milioi urte
 Lurra: 3.400 milioi urte
 Gizakia: 2 milioi urte

Genesi liburuko pasarte hau, munduaren sorreraz (gizakia barne) ari zaigu. Aukera ezin hobea, beraz, gai honetaz Bibliak duen ikuspuntua ikusi ahal izateko. Interpretazio honen arabera, dena (bizidunak nahiz bizigabeak) Jainko Jaunarengandik datoz, mundua eta beronen kreaturea guztiak. Jainkoak eginak dira, Jainkoa bait da sortzaile bakarra.

"Jainko Jaunak zeru-lurrak egin zituen egunean, lurrean ez zen artean basoko landararik, eta landako belarrik ere ez zen artean erme, Jainko Jaunak ez bait zuen artean lurrera euririk bidali; lurra lantzeko gizonik ere ez zen; baiña, lurretik iturburua sortu zen, eta lurrasal gustia busti zuen.(...)"

Gero, Jainko Jaunak haure esan zuen: 'Ez dago ondo gizona bakarrik egotea. Egin diezaiodan bere antzeko lagun bat'. Jainko Jaunak lurretik egin zituen landako abere eta seruko hegasti guztiak, eta gizonaren aurrera eraman zituen, zein izen ezarriko zien ikus-teko, eta bisidun bakoitzak gizonak emandako izena izan zezan. Gizonak etxabere gustiei, seruko hegasti gustiei eta landako pisti gustiei izena ezarri zien; baiña, ez zuen aurkitu bere antzeko lagunik. Orduan, Jainko Jaunak lo astun bat bidali zion gizonari, eta gizona loak artu zuen. Jainko Jaunak hezur bat kendu zion eta hutsunea berriro haragiz bete. Jainko Jaunak gizonari kendutako satiaz emakume bat eratu eta gizonaren aurrera eraman zuen. Orduan, gizonak zera esan zuen: "Haure bai badela nere hezurretako hezur, eta nere mamiaren mami! Honek, 'giz-eme' (emaste) izango du izena, gizonagandik izan bait da artua".

(BIBLIA: *Genesisia*, 2,4-6, 18-23)

"Genesisia" da itzultzaile grekoek Bibliako lehen liburuari eman zioten izenburua. Hebraieraz "Bereshit" (Hasieran) izenez ezagutua zen. Edukinari dagokionez, munduaren sorrera, patriarken eta belaunaldiarena kondatzen ditu. Kapituluatan banatuta dago, eta Pentateuko-aren barnean. Tradizioaren arabera Moise-k idatzia. Egun, Moise ondorengo idazki batzuren bilketa dela esaten da.

"Historia/1": Gizakiaren eta biziaren sorrerari buruzko erreferentzia ugari aurki dezakezu: 13-17. orr. Gisa berean, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 139-140, 147. orr.

EGITEKOAK

- a) Har Biblia bat, eta bil pasarte gehiago munduaren sorreraz.
- b) Bilu berri gehiago Genesiu liburuari buruz.
- c) Zer deritzozu Genesiak dienez: Sinbolo bezala hartu beharko litzateke, ala zehatz-mehatz bere xehelasun literarioetan ere jarraitzekoa da hori?
- d) Zein balio emango zenioke?
- e) Saia zaitetz, Moise eta Profetei buruz albiste zehatzak ematen.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Saia zaitetz agiri honen ideia ardatzak sailkatzen.
- b) Konpara Genesiak dioena eta zure liburuan (Historia/1ean) irakur dezakezuna.
- c) Alde edo antzik aurkitzen al diezu munduaren sorreraz Genesiak eta Brahmanismoak diotenari? Zertan?
- d) Honako interpretazioak zientifikoak direla uste al duzu? Zergatik? Zein balio eman lekieke kontraera erlijioso-mitiko hauei?
- e) Azaldu testuak dioena, laburpena eginez.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Gizakia: 2 milioi urte

König antropologo eta erlijioen historilariak, gizakiaren sorrera Indiako Brahmanismoaren ikuspuntutik begiratuta azaltzen digu. Purus-a deituriko erraldoi honen bitartez sortu zen dena, izadia eta gizakia bera ere. Azken batean, Jainkoak dira sortzaile bakarrak; interpretazio ez eboluzionista da, beraz, mitozko azalpen huts bezala hartzen ez bada, behintzat.

"Erraldoi batena kontatzen digu: mila begi, mila buru eta mila hanka omen zituen. Purusa deitzen zioten. Baina jainkoek, beren artean bildu, eta uste izan zuten, hil egin behar zela hura, beren buruei sakrifiziotan eskaini ahal izateko. Baina erraldoia, hiltzean, mila puska egin zen; eta puska horietako bakoitzetik gaur izadian ezagutzen dugun gustia sortu zen: Veda-ko kantu eta goratzarre sakratuak, lurbira betetsen duten animaliak, lau giza kastak, zerua, lurra, itsasoa, hodeiak, puntu kardinalak, etab."

(F. KÖNIG, 1960)

Franz König austriarra da (1905). W. Schmidt famatuaren (berau J.M. Barandiaran-ek adiskide eta maisutzat aitortu izan duena) tradizio antropologiko vienarrean kokatu behar da König. Apaiza zen, eta 1958an kardinal izatera iritsi zen. Erlijioen Antropologiaz eta Historiaz balioko eskuliburuak argitara ditu: "Cristo y las Religiones de la Tierra", adibidez (Madrid, BAC).

Ik. "Historia/1" liburuan: 71, 77-79. orr.; eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 379-386. orr.

EGJTEKOAK

- a) Zer dakizu Brahmanismoaz? Bizirik irauten al du? Non?
- b) Saia zaituz ondorengo hitzak argitzen: Veda, Kastak, Purusa.
- c) Egizu Indiako mapa bat: bereiz bertako erlijioak.
- d) Mapa bera probetxatuz, koka itzazu hiriguneak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zure ustez, Brahmanismoak egiten duen azalpen literario hori eboluzio-teoriari kontrajarrita al dago funtsean? Zergatik?
- b) Nola laburtuko zenituzke brahmanismoaren eta eboluzio-teoriaren arteko aldeak?
- c) Bibliak egiten duen interpretaziorekin konparatuta zein alde (edo adostasun) aurkitzen duzu?
- d) Zure eritziz, egiazkotzal jo al daiteke testuarén mamia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Gizakia: 2 milioi urte

Bitxia da benetan, Ertamerikako maiek Gizakiaren sorreraren arazoari ematen dioten azalpena: lokatza, zura eta azkenik arto-orea izan ziren maien jainkoek, gizakia sortzean, erabilitako materialak. Interesgarria da pasarte hau, herri baten mitologiaren testuinguru historiko-sozialek har dezaketen lekua ikusteko.

"Eta jainkoek esan zuten: ea orain izaki batzuk egiten ditugun, esaneokak, begirinetzuak, gu sostenga eta manten gaitzaten. Eta hala, lurrez eta lokatzez gizakiaren haragia egin zuten. Baina ikusi zuten, ez zegoela ondo, desegin egiten zela, biguna zegoela, ez zuela mugimendurik ez indarririk, ez zuela bururik mugitsen, aurpegia alde batera joaten zitsaiola, bista lausotua zeukala (...). Hasieran hits egiten zuen, baina ez zuen adimenik. Uretan berahala hezetu zen eta esin zen zutik egon (...). Jainkoek, beren zaharrenei galdetu zieten eta beste material bat aukeratzea erabaki zuten, gizona egiteko. Berehala egurrean labratutako gisonki batzuk egin zituzten. Gisonaren antza zuten, (...) zabaldu eta ugaltu egin ziren. Baina ez zuten arimarik, ez adimenik. Ez ziren beren egileaz oroitzuten, lau-gainean ibiltzen ziren, aurpegia iharra zeukaten, haien hanka eta eskuek ez zuten sendotasunik, ez zuten odollik (...). Haien behatzea erabaki zuten jainkoek (...). Jo egin zituzten; ahoak eta aurpegiak puskatu ziskieten. Eta esaten dute, haien ondorengoak direla tximinoak, gaur basoan bizi direnak (...). Eta horregatik dauka tximinoak gisonaren antza.

Eta kreatazaileek esan zuten: Garaia da lana bukatzeko eta gu sostengatu eta mantendu behar gaituzten menpeko zibilizatuak ager daitezten: 'ager bedi gizona' (...). Arto horiz eta arto zuriz egin zioten haragia; arta-orez egin ziskioten besoak eta hankak. Arta-orea bakarrik sartu zen gure gurasoan (sortuak izan zirenean) haragitan".

(POPOL VUH, c. 1540)

"Popol Vuh" izeneko liburutik jaso da testu hau. 1540. urte inguruan idatzi zen, hizkuntza maia-kitxez eta alfabeto latinoz. Mito zaharrak jasotzen ditu, munduaren eta gizakiaren sorreraz eta Guatemalako jatorrizko herri eta kulturez.

Espainolek eskolatutako maiaren batek idatzi zuen, nonbait. Urte dezentez galdutzat eman zen, XVIII. mendean Francisco Ximénez domingotarrak aurkitu arte; ondoren beronek jarri zuen gatzelaniaz.

Begiratu "Historia/1"k (13-14. orr.), zer dioten gizakiaren eta bi-ziaren sorreraz. Berdin: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 45, 46, 55-57, 59, 60. orr.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 232. orr.

EGITEKOAK

- a) Bilu entziklopedia batean Popol Vuh-ri buruz esaten dena?
- b) Egizu Ertamerikako mapa bat, eta eman bertan maien zibilizazio-lurraldea.
- c) Ikusi ahal izan duzunez, artoari garrantzi handia ematen zaió agirian: Azaldu, beraz, maien artean artoak duen balioa.
- d) Ikus eta azter maien eraikuntz teknikak nolakoak ziren. Zein ondorio aterako zenuke?
- e) Bai al dago Ertamerikan, maien kulturaren arrastoren bat? Non?
- f) Zein kritika egingo zenioke interpretazio honi?

ERANTZUTEKOAK

- a) Egizu konparaketa bat, hiru interpretazio hauen artean: Maiena, Biblia-rena eta Darwin-ena.
- b) Zenbat erataria saiatu ziren jainkoak gizakia egiten.
- c) Inakur testua lehen punturaino. Zer deritzogu horri?
- d) Nola azaltzen da testuan tximinoen sorrera? Konpara Darwin-ek dioenarekin.
- e) Interpretazio hau zientifikoa dela esango zenuke, ala miloak dituen esanahi eta mugekin ulertu behar da?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Hominidoak: 10 milioi urte
Gizakia: 2 milioi urte

Charles Darwin-i hartu diogun pasarte honetan, gizakiak eta animaliek dituzten kidetasunak aipatzen dira. Hala nola, berdintasun edo antz anatomikoa; antzeko sentimenak ere ikusten ditu abere eta gizakiengan. Hortik hasita, ondorio jakingarri batzuetara iritxi zen Darwin: gizakiaren historian, beste bizidun askori gertatu zitzaion bezalaxe, egokitze-prozesu bat ikusi zuen autoreak.

"Naturalista batzuek, gizakiaren buru-gaitasunak biziro miretsirik, hiru erreinutan banatu zuten munduko izadia: giza erreinua, animalia erreinua eta landare-erreinua; eta gizakiari erreinu berezi bat eman zioten (...).

Badakigu, gizona ere beste ugastunen tipo orokor beraren, eredu beraren, arabera dagoela egina.

Tximino antropomorfoen berezitasun anatomikoak direla medio, hurbilago dago gizakia tximino horietatik, horiek, gainerako ugastimetatik ezeze, baita zenbait laueskukoetatik baino, makako eta abarretatik kasu.

Gizakiak ere animaliek bezalakoxe sentimenak ditu, eta intuizioak ere berdinak izango ditu inondik ere. Gizakiak eta animaliak berdinak dituzte beren sen batzuk: hala nola, bizi-nahia, maitasun sexuala, amak jaioterriatsat duen maitasuna, hauek ditia hartze-ko duten joera..." (Ch.R. DARWIN, 1856)

Charles DARWIN, naturalista britainiarra (Sherewsbury 1809, Kent 1882). Edinburg-en ikasi zuen, Cambridge-n ondoren. 1831n Hego Amerika eta Pazifikoko Irlak bisitatu zituen. Bidaia honetaz baliatu zen bere obra itzela burutzeko; 1859an ematen du argitara bere libururik ospetsuena: "On the Origin of Species by Means of Natural Selection" (1859). Argitara-egunean bertan agortu zen 1.250 aleko edizioa, eta Darwin-en teoriak eztabaida latza sortu zuten, batez ere teologoaren artean.

Irakur "Historia/1" liburuan 16. orrialdeko testu eta irudiak. Era berean, "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 139-140, 646-647, 636. orr.

EGITEKOAK

- a) Saihka itzazu, bizidunen eboluzioaren teoriak dituen oinarriak.
- b) Bila entziklopedia batean Darwin-en ikerlanean buruzko zehaztasunak.
- c) XIX. mendean Darwin-en teoriak erraz onartu zirela pentsatzen duzu? Zergatik?
- d) Egun, bizidunek ingurune aldaketetara moldatu beharra daukate? Nola moldatzen dira?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Gizakiok eta animaliek sentimen eta intuizio berdinak dauzkagula dio agiriak: horrela dela uste duzu?
- b) Hiru bizi-mota aipatzen dira (gizakiena, animaliena, eta landareena). Saia zaitzez bakoitza hobekien definitzen, eta duen ezaugarriren bat bilatzen.
- c) Azaldu itzazu, zure erara, agiriak ispiilatzen dituen oinarriko ideiak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Hominidoak: 10 milioi urte
Gizakia: 2 milioi urte

Darwin-en teorien ondoren, etengabe saiatu dira paleontologo eta historilariak gizakiaren sorrerari esplikabide zientifikoak bilatzen. Melotti irakaslearen pasarte hau (1977) aukeratu dugu fenomenoaz gogoeta bat egiteko. Agiri honen autorearentzat hominizazio-prozesua argien definitzen duten faktoreak bi dira: Lehenengoa, aldaketa anatomiko-fisiologikoak; bigarrena, garunaren garapenak.

"Hominizazioan eman ziren pausorik funtsezkoenak izan ziren: bi hankan zutik jartzea, atzeko hanka gainean biskor leku aldatzeko modua izatea (lasterka), eskua libre artikulatzeko modua lortzea eta garuna, bere funtzio korrelatibo gustiekin garatzea.

Esku-lanek (espezifikoki gizatar diren trebetasunen oinarri bait dira) ugaldtu egin zituzten giza ihardunaren ahalbideak, eta paregabeko bultzada eman zioten garunaren garapen kuantitatibo eta kualitatiboari (...).

Egia esan, behatz lodiarekin eta erakuslearekin sakadura bat egiten duenean, bere gorputz osoko bi eskualde sentikorrenak jartzzen ditu jokoan (...).

Ehiztari-faseak beste etapa garrantzitsu bat adierazten du gizakiaren eboluzioan. Iharduera berriak, bere operazio konplexuekin eta behar izaten dituen talde-lan desberdinekin, bultzada berri handi bat eman zion garunaren garapenari (...).

Hots-komunikazioa, lehenengo, eta hizkera artikulatua geroago, lagunarteko bizitzak eta bereziki elkarrekin lan-egiteak sortu zituen noski".

(U. MELOTTI, 1977)

Charles DARWIN, naturalista britainiarra (Sherewsbury 1809, Kent 1882). Edinburg-en ikasi zuen, Cambridge-n ondoren. 1831n Hego Amerika eta Pazifikoko Irlak bisitatu zituen. Bidaia honetaz baliatu zen bere obra itzela burutzeko; 1859an ematen du argitara bere libururik ospetsuena: "On the Origin of Species by Means of Natural Selection" (1859). Argitara-egunean bertan agortu zen 1.250 aleko edizioa, eta Darwin-en teoriek eztabaida latza sortu zuten, batez ere teologoaren artean.

"Historia/1" liburuan ik. 16-17. orrialdeak. Eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: 139-140, 646-647. orr.

EGJTEKOAK

- a) Saia zaitetz hitz hauek argitzen: *Hominizazioa, Hominidoa, Antropomorfoa.*
- b) *Nola azalduko zenuke gizakiaren eboluzioa, eskema batean.*
- c) *Azaldu ardatz kronologiko batean, espezieen eboluzioa, gizakiarengana iritsi arte.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Autorearentzat, zertan datza hominizazio-prozesua?*
- b) *Behin baino gehiagotan garunaren garapena aipatzen da: Nola neur daiteke garapen hori?*
- c) *Gizakia taldeka bilduta egoteak bai al du eraginik garunaren garapenean? Nola?*
- d) *Komunikazioak bereiz ste ditzake abere- eta giza-mailak? Zergatik?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Hominidoak: 10 milioi urte
Gizakia: 2 milioi urte

Garai bateko antroipoideak ez ziren bapatean gizaki bilakatu: hominizazioa prozesu bat bezala ulertu ohi da. Ez du zentzurik, ea zehazki gorila edo txinpantzea zein unetan gertatu zen gizaki galdetzeak. Benetan interesgarriena dena zera da: milioika urteren buruan, animalari erreinutik aldenuz, bizidun bat gizaki izatera eraman duen prozesua. Horixe deskribatzen du testu honek.

"Hominido izenez ulertzen da, gaur bisi den giza-espezieari sorrera eman dion arraza. Elkarrengandik aldenuz, pongidoetatik datoz gaurko antropomorfo afrikarrak: gorilak eta txinpantseak alegia.

(...) Genetika-mailan biziki ugaritu dira berriki ahaidetasun estuzko indizeak, alde batetik, gizonaren eta, bestetik, txinpantse eta gorilaren artean: elkarren antsekoak dituzte beren odol-motak, odolak garraiatzen dituen eta herentziaz transmititzen diren zenbait substantziren isatera kimikoa, zenbait gaitotasunentzat duten sentikortasuna, etab. (...).

Lehen gizakiak, definizioz, animaliazko aita-amak izan zituen derrigor. Ez du zentzurik galdetzeak, ea sehasz zein unetan hasi zen hura gizon izaten; sentzua duena da, gizon izatera iritsi den animalari arraza batek eraman duen bidea definitzea, milioika urteren buruan, animalari erreinutik gero eta gehiago aldenuz, gizakia gizaki izatera eraman duen prozesua deskribatzea".

(J. HIERNAUX, 1970)

J. Hiernaux, Pariseko Zientzi Fakultateko irakaslea da, eta gizakia-
ren sorreraz eta bilakaeraz bereziki arduratu da bere lanetan. Barruti honetan baditu lan jakingarriak: batean, azken hamarkadetan egin diren aurkikunde paleontologikoak aurkezten ditu (1970); beste batean, ostera, arrazen arteko aldi-kidetasunak (1969).

Begira "Historia/1"ean 16-17. orr. Eta "Mendez Mende. Aro Garaiki-
dea"n 139-140, 646-647. orr.

EGJTEKOAK

- a) Esplika ezazu, eboluzioaren teoriari jarraituz, gizakiak izan duen espezializazio-prozesua: Ugaztunak... Primateak... Aurreko hominidoak... Egungo gizakia.
- b) Bi marrazki eginez, erakus tximinven eta gizakien garezurraren arteko berezitasunak (garezurraren garapena, baraila, hortzaginak, bekuin-arkua, etab.)
- c) Irudi batzuk eginez, azaldu harria lantzeko metodo paleolitotarra: (erauspen zuzena, presioz printzak kentzea, bitarteko erauspena, leunketa, etab.).
- d) Marra itzazu Australopitekoei egindako tresnak: choppera, aurpegibikoa, etab.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira biziaren sorrera esplikatzen duten teoria aipagarrienak?
- b) Zeintzuk dira bereziki gizakiaren ezaugarriak?
- c) Zergatik da hain garrantzitsua kulturaren sortzaile izateu? Zertan azaltzen da, hasiera hartan, kulturaren sortzen hura?
- d) Esazu Australopitekoei buruz dakizuna (hankabikoak, orojuleak, tresnagileak, etab.)

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta arteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

2.000.000

Gizakiaren sorleku-arazoaz ari da autorea. Zalan-tzarik gabe, Australia, Amerika eta Iparraldeko Eurasia baztertuz, ikastun askorentzat, Afrika da gizakiaren sorleku urruna. Azken hamarkadetako aurkikuntzek garai batetako eritzi eta usteak guz-tiz koloka jarri dituzte.

"Ezin daiteke oraindik erabakitsat eman gizakiaren sorleku-ara-zoa. Zalan-tzarik gabe, Australia, Amerika eta, probabilitate guz-tien arabera, Iparraldeko Eurasia ere baztertu beharra dago giza-kiaren sorleku bezala. Lurberaren enparadua (Hego Eurasia eta Afrika) zabalegia da espeziearen seaska izateko, gizakiaren age-rrera toki murrizsago batean gertatu zen dudarik gabe eta.

Dena den, gaur ez dago lurralde hori zehatzago definitzeko modu-rik. Ikastun askorentzat Afrika da korapiloaren askabidea. Afrikan aurkitu ziren gizakiaren antzik handiena duten simido fosilak eta. Baina ezinezkoa ez da, gizakiaren sorleku Hego Eurasiako bazterren bat edo beste izatea ere". (G.F. DEBETZ, 1963)

Batez ere joan den mendetik hona, gizakiaren sorrerak eta berorren sorlekua bilatzeak hainbat ikerlan sustatu dute. Oraindik azken 30 ur-teetan, sorrera haren dataziorako datu berriak aurkitu dira, eta berdin gizadiaren sorlekua definitzeko, lekutzeko. Baina azken hitza esateke dago, noski.

Lehen gizakiez, ik.: "Historia/1": 11-17. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 408-409. orr.

EGITEKOAK

- a) Eki Afrikako mapa batean aurkituko ote zenituzke aztarnategi batzuk?: Olduvay, Oldogesailia, Kariandusi, Lewa, Isimila, Lalamboko ur-gauziak, Nsonges edo Sango, adibidez (Behe- eta Endi-Paleolitoko aztarnategi garrantzitsuenak).
- b) Zergatik esaten da haitzulva informazio-biltegi dela?
- c) Nola industen da aztarnategi bat?
- d) Zer da fosilen datazioa: Zer dakizu Karbono 14aren metodoaz? Organismoak heriotze momentuan duen karbonoa eta hezur fosilak dutena berdina al da? Zergatik? Zenbatetan gutxitzen da?
- e) Euskal Herriko mapa batean aipa itzazu lehen Paleolitoko agerkiak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Ados al zauden gaur egunean defendatzen den teoriarekin?: Afrika izan ote liteke lehen gizakiaren sorrerakua? Zergatik?
- b) Zeintzuk dira primate eta gizakien bi berdintasun, eta bi desberdintasun?
- c) Non agertu dira Euskal Herriko esku-aizkora zaharrenak?
- d) Aipa itzazu Euskal Herriko Historiaurreaz ikerlanik baliozkoenak egin dituzten batzuk.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

2.000.000

XIX. mendean European aurkitu ziren gizaki-fosilen hiru arrazez ematen ditu argibideak testu honek: Neanderthaldarraz, Cro-Magnondarraz eta Chanceladetarraz. Neanderthal-eko amildegian aurkitutako eskeletoaz izan zen hamaika zalantza: zuen kope-ta-ihesiarekin, buruhezur-ganga bitxia zeukan, eta zituen bekain-arku eta garondohezur irtenekin ez ziruditen hondakinok gizaki batenak.

"Fuhlrott doktoreak, 1865ean eman zituen argitara Neanderthal-gizakitik salbatutakoak (buruhezur-ganga bat eta zenbait hezur luze), izan ere 1856an, Prusia rhindarrean, Elberfeld-en eta Düsseldorf-en artean, **Neanderthal**-eko amildegian eskeleto bat aurkitu bait zen. Buruhezurraren ganga nabarmena zen bere kopeta-ihesiagatik, zituen bekain-arku eta garondohezur irtenengatik. Naturalista asko zalantzaz beteta zegoen hondakinok gizakiari egotzi aurretik. Gaur egun Neanderthal-eko gizaki bezala esagutu ohi denaren tipo berekoa zen, hau da, nonahi tresneria nahiko primitibo batekin nahasian aurkitu ohi ziren hondakinaren molde berekoa (...). 1886an, Namur ondoko Spy-n bi eskeleto ia osoak eta ongi kontserbatuak topatu ziren.

1868an, Périgueux-eko trenbidea ebakitzean, Louis Lartet-ek bost eskeleto aurkitu zituen **Cro-Magnon**-eko babespean (Dordoinia-ko Eyzies ondoan), 'elur-oreinaren aroko' maila garaikidean. (...) 1888an, Feaux eta Hardy-k Raymonden-eko harkaitz-babespean, Chancelade-n (Périgueux ondoan), maila magdalenarrean estatura txiki-ko eskeleto bat idoro zuten (...).

Duda-mudazko aurkikundeak bastertuta ere, XIX. mendearen askenentan jada ezagunak ziren gizaki-fosilen hiru arraza: Neanderthaldarra, Cro-Magnondarra eta Chanceladetarra". (R.FURON)

Raymond Furon, Natur Historiako Museoa zuzendariordea izan da Parisen, eta hiri bereko Zientzi Fakultatean ohorezko irakaslea. Alor ongi interesgarria da Furon-en barruti berezitua: Paleogeografia, hau da, Lurraren itxura historikoak deskribatzen dituen zientzia. Testuinguru horretan argitara zuen bere "Causes de la répartition des êtres vivants" (Izaki bizidunen banakuntzaren kausak, 1958).

Lehen gizakiaz, ik.: "Historia/1": 11-17. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 408-409. orr.

EGITEKOAK

- a) Europako mapa batean seinala itzazu Erberfeld, Dusseldorf, Spy, Eyzies, Chancelade.
- b) Marrazkien bitartez esplika itzazu gizaki hauek (Neanderthal, Cro-Magnon eta Chanceladekoek) egindako tresna aipagarrienak: marraizkora-bikoitza, ehiz-muturra, azagaia, arpoia, jostorratza, etab.
- c) Aipa itzazu, Neanderthaleko gizakiak (=Erdi Paleolitokoak) eta Cro-Magnonekoak (Goi-Paleolitokoak) dituzten klima eta inguruneak, ekonomi mota, kulturak, eta garaiko gizaki-motak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk dira kronologikoki Goi-Paleolitoko aldiak?
- b) Zeintzuk dira Magdalenaaldiko artelanen bi agerpen garrantzitsuenak?
- c) Zergatik esan ohi da Paleolito Aroko labarretako pinturek helburu magikoa zutela?
- d) Zeintzuk dira labarretako pinturetan bereizten diren bi eskolak? Zeintzuk dira eskola bakoitzaren ezaugarriak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

40.000

Agiri historiografiko honetan gizakiaren sorreraz hitzegiten digu autoreak; gaia, beraz, antropologikoa eta historikoa da. Gizaki-banako bakoitzaren izena, kronologia eta aurkitu den lekua ematen dizkigu testuak aurkitutakoan xehetasunak arretaz mugatuz. Gaur egun gizakiaren jatorriaz dakiguna bildu eta aurkezten da, inondik ere.

Duda gizaki modernoaren sorreran dago, 'Homo sapiens sapiens'-enean alegia. Hiru zeraok esan daitezke nahikoa seguru: Lehenengo, orain dela milioi t'erdi urtedanik askeneko 300.000 urteetaraino nahikoa espezie egonkor bezala bizi izan zen 'Homo erectus'a Mundu Zaharreko zenbait puntutan eta, uste izan daitekeenaren neurrian, hortik sortu zen, eboluzioz, gaurko gizakia. Bigarren, inolako zalantsari gabe gizaki osoki modernoarenak, 'Homo sapiens sapiens' enak, diren lehen gerakin fosilak orain dela 40.000 bat urte agertzen dira fosil-erregistroan. Hirugarren, hori baino lehen, eta 100.000 urte baino gehitxoago arte ere badira ale batzuk, dudarik gabe, 'Homo sapiens' direnak, baina beti ere halako marka edo egikuna primitibo batzuk dituztenak. Europan eta Ekialde Hurbilean, gizaki Neanderthal edo 'Homo sapiens neanderthalensis' enak dira fosilak; Asiako Hego-ekialdean aldiz 'Homo sapiens soloensis' deitu izan dira. Afrikan ere aurkikuntza garrantzitsuak egin izan dira gakoeko fase horretakoak, baina ez da izen berezirik zabaldu subespezie hori izendatzeko. Horren adibide ederrak dira: Rhodessia-ko gizaki famatua, Broken Hill-ekoa, Zambia-koa; Kenia eta Tanzania-ko hainbat buruhezur eta Ethiopiako aurkikuntzak'.

(R.E. LEAKEY, 1986)

Richard E. Leakey, familiarteko tradizio zientifiko batean hazi zen, izan ere Leakey-tar paleontologoaren semea bait da. Gurasoak 1926an hasi ziren gizakiaren arrastoak Afrikako kontinentean bilatzen (Olduway-n); Richard-ek, berriz, Turkana lakuan (lehen Rodolfo izenekoa) egin ditu indusketa garrantzitsuenak.

Ik. "Historia/1": 10-11 eta 21-29. orr. Eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 147, 400-401, 408-413. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila itzazu, eskura dituzun entziklopedietan, Paleontologiaz, Historiaren antropologiaz edo Prehistoriaz dauden albisteak.
- b) Egizu mapa bat, gaur egun oraindik munduan herri "primitibo" gehien dituzten lurraldeak aditzera emanaz.
- c) Marraztu ezazu gizakiaren eboluzioak "Homo Sapiens Sapiens"eraino egin behar izan duen bidea, lauki kronologiko batean.
- d) Eman itzazu mapa batean, ongi lekututa, agirian aipatzen diren gizaki-moten sorrerak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zeintzu dira gizakiaren bilakaeraren hiru momentu edo gizaki-mota nagusiak?
- b) Aipu Homo Erectus-aren eta Homo Sapiens Sapiens-aren arteko diferentziak.
- c) Gizakiaren bilakaeraren motonra zein izan da? (Honi erantzun baino lehenago informazioa zaituzte).

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

10.000etik

Ondoko testu honek gizadiaren hazkundeari buruzko gogoeta bat eskaintzen digu, bilakaera ekonomiko edo teknologikoaren eta hazkunde demografikoaren arteko harremanak azpimarratuz. Badu interesik franko, Historiaurretik hasita gaur egunetarainokoa aipatzen bait du lerro gutxitan.

"Harrigarria izan zen berebat munduko biztanlerian 'iraultza neolitotarrak' berekin ekarri zuen aldaketa. Biologoek kalkulatu dutenez, orain 10.000 urte munduak zuen giza populazioa bost eta hamar bat milioi bitartekoa zen. 8.000 urteren buruan zortziehun milioikoa egin da kopuru hori. Hurrengo 1750 urteetan aurrera segitu zuen kopuru horrek eta iraultza industrialaren hasieran 500 milioi gehiago ziren. Iraultza industrialarekin batera gaurko lehertzapen demografikoa etorri da, gaurko biztanleriaren nibela lau bat mila milioitan jarriz: 2000. urtean berriz 6.250 bat milioi izatekoak gara. Bai, iraultza industrialak izugarriko gorakada eman zion, azken garaiotan, hazkunde horri, baina dudarik ez dago, duela 10.000 urteko nekazal iraultzak jarri zuela kurba lehenengoz gorako bidean".

(R.E. LEAKEY, 1986)

R. Leakey, ezagumendu eta sona handiko historilaria, saiatu da bere "The making of mankind" (1981) obran gizadiaren Historiaurrea modu txukun apain eta erabilgarri batean laburbiltzen. Gaztelaniaz ere badaukazu obra hori bi liburukitan: "La formación de la Humanidad" (Barcelona, Orbis, 1986).

Ik. "Historia/1": 30-33 orr. Orobat, "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 147, 400-401, 408-413. orr.

EGITEKOAK

- a) Hazkunde demografikoari buruz egin grafiko bat, aldez aurretik liburuetan bil ditzakezun datuekin. Komentatu gero dena.
- b) Atlas historikoren batean ikus, eta mapamundi batean eman, herrien migrazio handien nondik norakoa eta datak.
- c) Ordena itzazu lauki batean hazkunde demografikoaren ondorioak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Aurreramenak teknologikoen hazkunde demografikoa bultzatzen dute: Zergatik?
- b) Hazkunde demografikoa XVIII. menderarte poliki-poliki joan zen eta gero oso azkar, "eztanda demografikoa" deitua sortzeraino. Zergatik?
- c) Gizarte harrapakariari eta gizarte ekoizleari, zein Aro historiko dagokie.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-6.000(?) / 1876

Agiri historiografikoa dugu, eta gai nagusia antropologikoa dela esan liteke. Gaur egunean bizirik dirauten "primitiboek" guztiz interesgarriak dira Historiaurrekoen bizimolde eta pentsaera baruntatzeko. Horregatik, antropologo sozialek ezetik historilariak ere gogoz eta irrikaz aztertu izan dituzte horrelako gizarte primitiboak. Kasu honetan, tasmaniarren zibilizazio materialaz eta giza erdari buruz xehetasun franko ematen zaigu.

"Tasmaniar desagertuek --orain laurogei bat urte soilik desagertuak bait dira, Bass itsasarteko irletan ondorengo hibrido batzuk utsiz-- badirudi australiarrek baino tipo homogenoagoa izan zutela. Baina posible da hori bi faktoreren fruitu izatea: a) oso bistanleria murrirtsa zutelako, eta b) nahikoa txikia den irla batean bizi zirelako. Hala ere, tasmaniarren kulturak ematen du berez oso egoera zaharrear zegoela edo biziki luzaro egon zela isolaturik, edo bi gauzok batera. Es arkurik esagutzen zuten eta ez gezirik, baina inolako zeramikarik ere ez. Es zuten laborantzarik esagutzen. Esagutzen zituzten tresna bakarrak harri-aro zaharreko batzuk ziren, zurmailuak eta lantsak, punta sutan gogortuz egiten zituztenak. Kulturazko urritasun honek esan nahi du, beste teknika berriago batzuk hara iritsi aurretik aldendu zirela haiek Asiaren Hegoaldetik".

(A. HOUGHTON BRODRICK, 1964)

A. Houghton Brodrick-en "Early Man. A Survey of Human Origins" liburitik jaso dugu pasarte hau. Ekialde Hurbil, Afrika edo Europatik at ere, Historiaurreko gizakiak lurraldez lurralde nola zabaldu ziren jakiteko hainbat berri ematen da liburu honetan. Migrazio haiei esker, gaur egun ere garai haien oihartzuna "primitibo" hauengan bizirik sumatzen dugu.

Ik. "Historia/1": 21-29. orr.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 505-512. orr.

EGJTEKOAK

- a) Entziklopedietan begiratu ondoren, egizu lauki bat, Australia eta inguruetako herri "primitibo" ezagunak geografikoki banatuz.
- b) Australia inguruko paleogeografiaz albisterik premiazkoenak bildu ondoren, egizu Ozeaniako maparen bat.
- c) Marraztu mapa batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gaurko bost herri primitibo aipa itzazu, beren egoitza geografikoa ere emanez.
- b) Afrika, Amerika eta Ozeania dira gaurko primitiboak bizi diren kontinenteak. Zergatik?
- c) Bidezkoa iruditzen al zaizu Historiaurreko gizakia gaurko primitiboekin konparatzea?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

225 milioi urtetik

Munduko basoen historiak interesik handiena izan du gizakiaren Historiarentzat: alde batetik, eguratsa ondu egin izan dute basoek, eta bestetik gizakiari baliabideak eskaini dizkiote (sua egiteko egurra, etxeak eraikitzeko zura), baina baita mugak jarri ere nekazaritza eta artzantzari. Europako basoak ez dira beti gaur egunekoak bezalakoak izan. Hona zer dioen historilari honek.

"Aro Sekundarioan gaurko Europaren Lekua itsasoak estaltzen zuen zati handi batean, eta bertan atoloi batzuk bakarrik agertzen ziren azalean palmondoz, sago-palmondoz eta aseribustanez estalirik. Egoera tropikalak Tertziarioan ere artean irauten zuen, tolestura handien aroaren ondoren. Alemania zentraleko lignito-lohiek erakusten digutenez, aurreko garaietako baina ugariagoa eta aberatsagoa zen orduko basoa: altueraren arabera, altzifreak aurkitzen ziren (leku zingiratsuen zaleak), sekuoia tantaia, gaur egun Kalifornian 100 m eta gehiago zerura igotzen direnak bezain altuak (...). Glaziarrek atzeratu ondoko basoaren historia gogorazteko ez zaigu gelditzen harri bihurtutako landareen hondakinik, baina botanistek naturaren beste alde batzuk ere aztertu dituzte. C.A. Weber alemana izan zen zientzia berri honen aita: turberetako estratigrafia (1905) da zientzia horren izena. Horren oinarria da, arbola ezberdinen polenak ezagutzea, ba horiek desberdinak izaten dira elkarren artean, eta denboratan zehar bata bestearen segidan eta kopuru desberdinetan lurreratutakoak; kopuruetan berriz ederki ikus daiteke aldiko zein espezie, eta noiz, izan den behinena".

(M. DEVÈZE, 1973)

Michel Devèze-rena da pasarte hau; Reims-eko Unibertsitatean Lehendakari izana da berea. Basoen historilaria da, eta ekologistak edo izadizaleak albiste jakingarri asko aurki ditzake autore honen obretan, argibide historiko asko biltzen bait du bere barruti historiografiko honetan. Honen tituluren bat edo beste: "Histoire des Forêts" (1965), "La vie de la forêts française au XVI^e siècle" (1961), "Les forêts de l'Allemagne au XVI^e siècle" (1962).

Begira "Historia/1": 13-15. orr. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea" liburuan, berriz, Afrikako oihanei buruz ematen da zenbait albiste: 427-434, 436-437, 406. orr.

EGITEKOAK

- a) Zure herria eta inguruak Zenozioko paisaje batekin marraztu itzazu, aldez aurretik honretarako argibideak bilatu ondoren.
- b) Bila ezazu entziklopediaren batean Europako antzinako basoen mapu bat. Marraztu, mesedez.
- c) Galdetu nekazariren bati edo artzain ezagumen bati, zeintzuk diren basoen alde on eta txarrak.
- d) Zer diote euskal Foruek basoei buruz? Zergatik.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da turberetako stratigrafia? Nola sortu zen?
- b) Zertarako erabiltzen dugu orain.
- c) Zergatik da hain garrantzitsua Historiaurrean metodo zientifikoak erabiltzea? (Honi erantzuteko, kontutuan har Historiaren eta Historiaurrearen arteko diferentziak).
- d) Beste teknikaren baten berririk bai al duzu? Azaldu C-14arena: nola erabiltzen den, adibidez.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu historiografiko baten aurrean gaude, eta hain zuzen Lucien Levy-Bruhl-ek argitara emandako "L'Ame Primitive" (1927) liburukoa da. Bertan, Historiaurreko eta zehatzago Neolito Aroko gizartea aztertzen zuen autoreak. Hemen klanari buruzko pasarte bat jaso dugu.

"Klana gizarte natural bat da, odolez lotutako lagunen artean osatua, eta bertako kideek ahal duten laguntza guztia eman behar diote beren klan-lagunari bizi den bitartean. Klan-laguna ez da bere buruarena, eta bai klanarena. Ezbeharrik izaten badu, klan-lagunek lagunduko diote; hobetik egiten badu, guztien artean bantzen da erantzunbeharra. Hiltzen badute, klanari dagokio hura mendekatzea.

(...) Klanean ez dago bakoitz-jabetzarik; tresna denak, armak, etab. klaneko guztienak izaten dira. Lagun bakoitzak bere klanaren gauza bezala begiratsen ditu, eta klanaren mesedetan eta, hala beharrez gero, klanaren defentsatan erabili behar ditu.

(...) Ez dira gizakiak bakarrik klasetan banaturik daudenak, izpirituen munduan ere, hildakoen interesa bizitza honetan haien klankide izandakoentsat bakarrik izaten da: hauei bakarrik lagundu diezaiekete, eta hauei bakarrik jaso dezakete mesederik".

(L. LEVY-BRULH, 1974)

Lucien Levy-Bruhl (1857-1939), filosofo eta soziologo frantsesa zen, Letretan Doktorea, "Luis Handia" Lizeoko filosofiako katedraduna eta Sorbona Unibertsitateko hitzaldien arduraduna eta irakaslea. Liburu asko argitara zituen; pentsamolde primitiboaz zihardutenak dira batipat interesgarrienak hemen: "Erresponsabilitatearen ideia", "Les Fonctions mentales dans les sociétés inférieures" (1910), "La Mentalité primitive" (1922).

Neolito Aroko gizarteeri buruz: "Historia/1": 19-34. orrialdeetan bila ditzakezu zehaztasunak; "Mendez Mende. Aro Modernoa": 49-50. orr.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 413, 435 eta hurr., 507-509, 511. orr.

EGJTEKOAK

- a) "Historia/1"eko argibideekin egizu munduko mapa bat eta lekutu bertan Neolitaren sorrera eta ondoko hedapena.
- b) Ahalegindu zaitetz liburutegietan, "Larousse" "Durvan" edo beste edozein entziklopediatan, klanari buruzko ideia nagusiak jaso eta laburtzen.
- c) Entziklopedia horietatik gaur egungo tribu primitiboen datuak (pigmeoenak, adibidez) lor itzazu: kokalekua, bizimodua, pentsamoldea, etab., eta aurkitutakoak testuan esaten zaigunarekin aldera itzazu.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nola osatzen zen klan bat?
- b) Zeintzu ziren klanakideen elkarrekiko betebeharrak.
- c) Zer esaten da testuan klanaren jabeoari buruz.
- d) Zein erlazio mota mantentzen dute primitiboek izpiritu-munduarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Paleolitoa

Testu historiografiko bat dugu hau. Gordon V. Childek 1936an "Man Makes Himself" liburuan idatzirikoa. Gizarte primitiboetan suaren aurkikundeak suposatu zuen aurrerapena aztertzen du, horren abantailak deskribatuz.

"Inondik ere suaren kontrola izan zen, gizakiak bere ingurunetik askatzeko eman zuen lehenengo pauso handia. Sutondoan berotus, hobeto igarotsen zituen gizakiak gau hotzak, eta gausa izan zen eskualde epeletan eta arktikoetan ere bisitsen hasteko. Sugarrak argia ematen zion gabean, eta kobazuloetako baster eskutuak miazeko aukera. Suak basapiztiak aldentzen zituen. Egozis, bestela jan ezin ziren gausa asko egiten ziren jangarri. Gerostik ez ze goen gizakia klima-modu jakin batera mugaturik, eta bere iharduerak eta lanak ere ez zituen derrigor egun-argiak mugatzen".

(V.G. CHILDE, 1936)

Vere Gordon Childe (1892-1957). Historilari eta antropologo australiar eta britainiarra. Edinburgh-en Historiaurreko Arkeologi irakaslea eta Londreseko Unibertsitateko Arkeologi Institutuaren zuzendaria. Neolito eta Brontze-Aroko Arkeologian jakintsuenetako bat. Bera izan zen "Neolitoko Iraultza" eta "Hiri-Iraultza" kontzeptuen sortzailea. Aipaturakoaz gain, obrarik nagusienak: "The Dawn of European Civilization" (1925), "Social Evolution" (1951), "What happened in History" (1942).

Historiaurreko gizartea azter dazakegu: "Historia/1": 22-29. orr.

EGITTEKOAK

- a) Suaren sorrerarekiko informazioa jasotzen saia zaitez liburutegietako entziklopedietan (Durvan, Salvat, Larousse, Britannica, Universalis etab.), eta egizu laburpen bat.
- b) Jkus Historiaurreko diapositibak "Euskal Herria Diapositiba Bildumatik" (SEJE Taldea), edota "Bizkaiko Bankuaren Historiaurreko Diapositibak" bildumarenak, eta ondoren suaren aurkikundearen abantailei buruz idatz ezazu zerbait.
- c) Komenigarria litzateke "Suaren bila" delako filmea ikustea, gaia hobeki girotzeko (Jean-Jacques Annaud-ena da).

ERANTZUTEKOAK

- a) Erlaziona suaren aurkikundea, gizaki primitiboak gainditu zituen oztopo hauekin: Klima, inguru fisikoa, animaliak, elikadura, lana.
- b) Nola lortu zuten lehen aldiz sua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke; aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Paleolitoa

Testu historiografikoa da ondoko hau. Koenigswald-ek gizon primitiboak bere tresnak egin ahal izateko erabili zituen lehengaiak gogoratzen dizkigu: harria, zura, hezurra aipatzen ditu, harriaren garrantzia berezikiago azpimarratuz.

"Harria izan da gizakiak bere lehen-tresnak egiteko erabili izan zuen lehengoa. Hezurak ere eurrez erabili ziren, asken glaziazioaren amaieran batipat. Egurra ere biziki erabilia izango zen noski, baina hori oso baldintza berezitan bakarrik kontserbatzen da. Adibidez, Clacton (Ingalaterran) eta Verden-en, puntak sutan gogortuta zeuskaten zur-lantsak aurkitu dira; baina aurkikuntza hauek oso bitxiak dira. Gizakiak beti ere, eta ulertzekoa da zergatik, nahiago zuen harri gogorra eta iraukorra beste tresnak egiteko, eta horregatik nahikoa ondo kontserbatu dira hauek, eta batzutan, garbiketa edo higadura dela medio, gerusa bateko fosil organikoak galdu direnean ere, gerakin horietan markatzen dute han gizakiaren presentzia (...).

Zenbat eta zaharrago tresnak, orduan eta traketsago eta primitiboagoa izaten da haien egitura, eta puntu batetik aurrera aditu batek bakarrik esan dezake zera hura benetako tresna ala harri-koskor soil bat besterik den". (D.H.R. van KOENIGSWALD, 1971)

G.H.R. von Koenigswald (1902an jaioa), paleontologo alemana, holarrekin lan egin zuen: 1941ean Javako Sangiranen australopiteko eta gizakien aztarnak aurkitu zituen, Afrikako Olduwaykoaren antzekoak. Autorearen "Die Geschichte des Menschen" (Gizakiaren Historia) obrakoa da aukeratutako pasartea. Koenigswald-entzat hominizazioaren lehen aldiak Asian gertatu ziren.

Historiaurreko tresneria aztertzeko ikus "Historia/1": 24, 25, 26, 27. orr. Eta tresneriaren datazioari buruz irakur 38 eta 39. orr. Orobat: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 47, 58, 59, 72, 94. orr.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 138, 145, 420. orr.

EGJTEKOAK

- a) "Historia/1"eko 22. or. aztertuz, idatz itzazu glaziazioen izenak, kronologia, gizaki eta kulturak beraietan lekutzen dituzula.
- b) "Atlas Historiko" batean egiazta glaziazio garaiko izotzen muga Europan.
- c) Europako mapan koka itzazu Paleolito Aroko aztarnategiak.
- d) Paleolito Aroko tresnen zerranda bat egin, kultura desberdinetan sailkatuz.
- e) Euskal Herriko mapan koka Paleolito Aroko aztarnategiak (ik. "Historia/1": 37. or.).
- f) Bilboko Bizkaiko Museoa bisitatzea komenigarria izango litzateke, han dauden Historiaurreko tresneria aberatsa ikusteko.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gizakiak erabilitako gaiak zeintzuk dira?
- b) Tresnak egiteko harria nahiago izan zuten: zergatik?
- c) Zer da Karbono 14aren metodoa?
- d) Hondakinak oso zaharrak direnean, erraza ote da harri soila ala tresna den bereiztea? Zergatik?
- e) Zure eritziz, nola egiazta daiteke tresna dena?
- f) Ba du zerikusirik tresnen hobekuntza teknikoak giza adimenaren garapenearekin?
- g) Azal tresnek gizakiaren bilakaeran izan duten eraginaren garrantzia.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Paleolittoa

V. Gordon Childe-ren pasarte bat da ondoko hau. Arkeologo australiar-britainiar honek Paleolitoko iturri ekonomiko oinarritzkoen bat aipatzen du: Ehiza. Gizarte primitiboen ehizak, ekonomian ezezik, giza adimenean eta kulturalan ere duen garrantzia ematen digu aditzera.

"Uste da, gizaki primitiboek tranpak egiten eta animalia eta hegastiak ehizatzen zitustela; arrainak eta muskerrak harrapatzen zituzten, basa-frutuak, moluskuak eta arrautsak biltzen, eta sustraiak eta ateratsen zituzten lurretik. Berebat uste da, baina hau ez hain seguru, 'zakuak' egiten zitustela larruz, seguruenik kobazuloetan babesten ziren batzuk, eta beste batzuk abarrezko nola-baiteko babeslekuak egingo zituzten. Ehizean arrakastarik izateko ehizagaien ohiturak luzaro eta arretaz azertu beharko zituzten; hortik ateratako esperientziak tradiziozko herri-jakinduria bat sartuko zuten ehizari buruz. Berebat, jateko landareak eta pozoi-nezkoak bereizten ere esperientziak irakatsita ikasiko zuten eta gero talde-tradizioan pilatuko zuten esperientzia hori.

Gizakiak ikasi egin zituen, nonbait, sein ziren garai egokiak ehizagai ezberdinak harrapatzeko, eta arrautza-mota eta frutu-modu ezberdinak biltzeko. Hau arrakastaz egin ahal izateko berriz, inondik ere zeru-egutegia deszifratu zuten". (V.G. CHILDE, 1936)

Childe, V. G. (1892-1957): Historilari eta antropologo britainiarra, Australian jaioa. Edinburgh-en Historiaurreko Arkeologi irakaslea, Londreseko Unibertsitateko Arkeologi Institutuaren zuzendaria. Neolito eta Brontze-Aroko Arkeologian bereziki aditua. Hemen guretzat, obrarik aipagarriena: "Man Makes Himself" (1936. Los orígenes de la Civilización, México, 1954).

Paleolito Aroko gizartea aztertzeko ik. "Historia/1" liburuan 22-29. orr. Ehizaldien antolaketari buruz "Historia/1": 40. or.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 406-407. orr.

EGJTEKOAK

- a) Testua irakurri ondoren, begira ezazu hiztegian hitz hauen esanahia: *Topografia, antropomorfoa, mitologia, kosmogonia.*
- b) *Liburutegietako entziklopedietan, egungo tribu primitiboen ekonomia azter, eta idatz laburpen bat. Ba ote dago diferentziarik?*
- c) *Haragiak, elikagai bezala, baditu bere alde onak eta txarrak, gaur egun asko eztabaidatzen direnak. Zein arrazoi ematen dira, alde nahiz aurka? Eztabaida ezazu dena.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Zer da ekonomia suntsitzailea?*
- b) *Zertaz baliatzen dira gizon primitiboak elikatzeko?*
- c) *Zer darabilte babesleku bezala?*
- d) *Zer da zeru-egutegia?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-30.000/-10.000

Testu hau Sonnevile-Bordes-i zor diogu, eta haitzuloetako artearen interpretazioaz ari da, historiarrien artean eman diren teoriak agertuz: Teoria klasikoa, Laming eta Leroi-Gourhan-ek defendatzen dutena, bata; eta Uckok-Rosenfeld-ek sostengatzen dutena, bestea.

"P. Ucko-k eta A. Rosenfeld-ek azaldu eta eztabaidatu zituzten, 1967an, Paleolitoko artearen esanahiak sortu dituen interpretazio guztiak. Teoria klasikoak uste zuen, arte magikoa ehizagaia seguru harrapatzeko iharduera utilitario bat zela, eta horretarako jartzzen zitustela animalia geziz josiak eta agian tranpatan harrapatuak. Uste honi kontrajarri beste interpretazio berri bat eskaintzen dute A. Laming eta Leroi-Gourhan-ek: oinarriztat hartzen dute, hormetako irudien topografia, bai irudiek paretetan elkarrekiko dutena eta baita sistematikoki atondutako santutegi bezala bururatsen den kobazulo apainduaren barruan, beren lekumenduz dutena. Metodo estatistikoez aukera eman dute estudiantzeko, bai kategoria irudiztatuen, animalien, antropomorfoen eta zeinu-enigmatikoen maiztasuna, eta bai horiekin gehienbat egiten diren taldeak, zein zeinen gainean jartzzen diren eta horiekin egiten diren asoziazioak. Leroi-Gourhan-ek uste du, Paleolitoko arte osoak adierazten duen mitologia eta kosmogonia, elkarren desberdin eta osagarri diren bi sexuen kontzientzia oinarrituta dagoela; baina Ucko-k eta Rosenfeld-ek aspimarratzen dute, Paleolitoko artearen barietatea eta aberastasuna ezin daiteskeela esplikazio bakarrez adieraz".

(D. de SONNEVILLE-BORDES, 1979)

D. Sonnevile-Bordes, Bordaleko Zientzi Fakultatean iker-maisua izan da. Périgord-eko Paleolitoaz funtsezko lan bat badu: "Le Paléolithique Supérieur en Périgord" (Bordale, 1960). Frantziako eskualde honetan dauka, hain zuzen, les Eyzies eta Lascaux-eko haitzulo franko-kantauriarak, Euskal Herrikoen eskola berekoak.

Arteari buruzko zehaztasunak: "Historia/1": 27, 28, 29 eta 37. orr.;
"Artearen Historia/1": 32-35; "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 420, 608,
612. orr.

EGITEKOAK eta ERANTZUTEKOAK

- a) Euskal Herriko mapan izenda artelan aberatsenak dituzten kobazuloak.
- b) Egungo tribuen artea eta esanahia azter, liburulegietakoa entziklopedietan, eta testu honetan ematen denarekin pareka.
- c) Zer dio teoria klasikoak, Paleolito Aroko arteari buruz?
- d) Eta Laming, Lewi-Gourhanek zer?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-30.000/-10.000

Brézillon historilariaren testu bat da hemen eskaintzen duguna. Haitzuloetako hormetako artelan eta pinturen ulerpen-arazoei buruz dihardu autoreak, mende honetako historilarien kezkei argitasun bat eman nahirik.

"Arte paleolitotarrak hogeit mila urte iraun zuen bizirik eta gehien adierazten zituen gaiak animaliak izaten ziren. Sarritan zeinu abstraktuekin agertzen dira, gutxiagotan giza irudiarekin batera. Luzaro pentsatu izan da, obra hauek egin izan direla joera estetikoak asetzeko edo praktika magikoak egin bitartean, ehiza ugaria segurtatzeko. A. Leroi-Gourhan-en ikerketek, aitzitik, frogatu nahi dute, sistema koherente batean sartzen direla figura ezberdinak eta erlijiozko isatera espresio metafisiko konplexu batean hartzen dutela parte. Haitzulo pinturadunak benetako santutegi organizatuak izango ziratekeen. Subjektuen lekumendu topografikoa aztertzen bada, asoziazio ugari agertzen dira animalia eta zeinuen artean, eta tokistapen lehenetsiak ere agertzen dira zenbait temarentzat. Eszena narratiboen faltak ez du esan nahi konposiziorik ez dagoenik. Badirudi, irudiak ipini direla, arretaz bilatutako plan baten arabera, eta guretzat nekez ulertzeko modukoa den edukin sinboliko baten funtzioan". (M. BRÉZILLON, 1969)

Michel Brézillon, Pariseko Sorbonako irakaslea da, eta, beste bere lanen artean, badu kontsulta-liburu bezala oso erabilgarria den bat: "Dictionnaire de la Préhistoire" (Paris, 1969). Autore honen lana bere maisu A. Leroi-Gourhan (j. 1911) irakaslearen inguruan egin da. Frantziako Arkeologiaren ikusmoldea azaltzen du pasarte honek, artearen tekniken ezagupidetik paleolitotarren eboluzio sozio-psikikoetara iraganez.

Irakur "Historia/1": 27, 28. orr.; "Mendez Mendeko Aro Garaikidea: 420, 608, 612. orr.; "Artearen Historia/1": 32-35. orr.

EGITEKOAK

- a) Testuaren ulermenaren errazteko, begira hiztegiaren hitz hauen esanahia: Abstraktua, estetikoak, koherenteak, metafisikoak, topografikoak, konposizioak, sinbolikoak.
- b) Labur, zeure gisara, testuaren edukia.
- c) Egin Penintsula Iberiarren mapa bat, eta bertan lekutu Levante-ko Eskola, eta Eskola Franko-kantauriarra.
- d) Diapositibak begizta, eta, ahal izango balitz, kobazulonen bat bisita: Santimamiñe, Ekain, etab.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk dira arte franko-kantauriarren ezaugarriak.
- b) Eta Levanteko Eskolarenak?
- c) Lauki batean egin bien arteko konparazioa.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

Paleolitoa

Paleolitoaz mintzatzean gure argibideak Europa, Asia edo Afrikari buruzkoak izan ohi dira gehienbat, eskuetara iristen zaigun historiografian, izan ere, berau kontinente horietaz ari izan ohi delako, eta ez Amerika edo Ozeaniaz. Hutsune hori betetzeko edo, hemengo agiri hau interesgarria da bere informazio berri horiekin.

"Austrialiaren jendetzatzeak problema latzak ezartzen dizkie antropologoei. Austrialiako jatorrizko bertakotarrek, azpegi arkaiko ugari gorde dituzte beren morfologian. 1971n Mungo lakuan (Viktoria Estatuan) aurkitutako bizilekuek ematen duten garaia 30.000 urte baino gehiagoraino ailegatzten da gure Aroaren aurretik. Azarnategiaren kokalekua kontinentearen hego-ekialdean aurkitzen zela kontu eginik, daitekeena da 40. milakadaraino atzeratu behar izatea Gizakia Austrialian sartu zeneko garaia. (Gainera glaziazio Würm-tarrak eragindako itsas-mailaren jaisteak ere bide emango zukeen Indonesiako lurretatik abiatuz kolonizazio hori egiteko).

Kasu berezi honek interes bizia dauka, Franz Weidenreich-en teoriarekin lotzen baldin bada; 1943ko urtean formulatu zen teoria honek dioenez, Austrialiako bertakotarrak Java-ko Pithekanthropoetik zuzenean etorriko lirateke. Hipotesi honen ondorio aparta litzateke, jatorri polizentrikoa izango lukeela 'Homo sapiens'ak. Mungo lakuko aurkikuntzek, hortaz, berretsi edo egingo lituzkete Weidenreich-en ideiak". (R. VIEL, O. OBOLENSKY, 1975)

Frantzia Lerio-Gourhan-en inguruko prehistorilarien eskolan kokatu behar da Viel eta Obolensky-ren lana. Geroz eta gehiago, historilariet betidaniko azarnategi eurasiar eta afrikarren hesiak hautsi egin nahi dituzte, Historiaurreari zabaltasun konparatibo berria emateko. Asmo horixe bera du hona ekarri dugun testu honek ere.

Begira "Historia/1"ean Historiaurreari dagozkion pasarteak: 24-29. orr. Amerikako gizakiaz, ik.: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 44-46. orr. Afrikari edo Ozeaniari buruz, ik., adibidez: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 400-401, 507-508. orr.

EGITEKOAK

- a) Pitekanthropoaren, Neanderthalaren arrastoak edo aztarnategiak lekutu, behar diren tokietan. Testuak aipatzen duen hipotesia mapan jarri, ahal bada.
- b) Ozeaniako irlategiak nola populatu ote ziren: Egin hipotesiren bat, argibideak bilatu ondoren.
- c) Australiako gaurko arraza eta tribuak azter: "Homo Sapiens"aren buru edo aurpegiaren marrazkia egin, eta adamenean australiar batena. Zein antz dute, zein alde?
- d) Australiako mapa batean koka jatorrizko bertakotarren gaur eguneko lurraldeak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Würm glaziazioa, noiz gertatu zen? Giza mugimenduekin, zer eragin izan zuen? Australiako kasua, eta besteren bat erabili adibide bezala (ik. MM/AM 44. or.).
- b) Zeintzuk izango lirateke "aurpegi arkaikoak"?
- c) Australiako aztarnategi honek 30.000 urte baldin baditu, zergatik esan liteke 40.000eraino luzatzen dela behintzat Australiako gizakia?
- d) Australian, bizilagunak isolatuak mantendu dira? Zeintzuk izan daitezke munduan antzeko kasuak?
- e) Australiako fauna ere aurki ditzakegu isolamendu honen adibide ezagun batzuk. Zeintzuk izango lirateke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

Neolitoa

Leakey antropologo ospetsuak neolitotar iraultzari buruzko bere eritziak ematen dizkigu. Neolitotar gizartea konplexua egiten da, faktore ezberdinak elkarrekin erlazionatzen direnean. Demografia, ekonomia, gizartea: dena hierarkia berritan era-tzen da.

"Nekasal iraultzari buruzko asken teoria berrienetako batek idarokitzen du 'laborantzaren sorrera esplikatzekoan, garrantzi handiegia eman zaiela teknologia eta demografiari, eta gutxiegia, aldiz, egitura sozialari'. Honela hasten du Barbara Bender-ek oraintsuko artikuluko zientifiko bat (...).

Aditsera ematen du, ezen, orain 40.000 urte, gizaki osoro modernoaren, 'Homo sapiens sapiens'aren, eboluzioa gertatu zenean, askoz ere konplexuagoak egin zirela gizarteak, eta gaurko ehiztari-biltzaileak gogoratzen ditu frogatzeko, zenbaterainoko garrantzia duen tribuen arteko elkartzeak, bai tribuko taldeen artean eta bai talde horien beren barruan. Elkartasun hauekin batera ondasun-trukeak egin ohi dira eta, inoiz, janari-trukeak ere bai. Talde horietan hierarkiak sor daitezke, jana banatzekoan ere ageri daitezkeenak. Hemen, autoreak dioenez, ondasun-soberakinak produktu premiarenean hasiera ageri da.

Banatzeko eta trukatzeko behar den janariaren kopurua tamaina batera iristen denean, zail samarra gerta daiteke mugikortasuna zenbait urtesasoinetan. Baina ehiztari-biltzaileak toki berean finko gelditzen direnean, laster ahitzen dira beren inguruetako jangaiak. Orduan, gatazkak sortuko lirateke bitarte horretan, janari-produksioa nola edo hala areagotzeko, eta taldearen mantenua segurtatzeko. Janari-produksioa gehitu beharrak etxabereak sortze-ra eta laborantsara eramango zukeen". (R.E. LEAKEY, 1986)

Richard E. Leakey, familiarteko tradizio zientifiko batean hazi zen, izan ere Leakey-tar paleontologoaren semea bait da. Gurasoak 1926an hasi ziren gizakiaren arrastoak Afrikako kontinentean bilatzen (Olduway-n); Richard-ek, berriz, Turkana lakuan (lehen Rodolfo izenekoa) egin ditu indusketa garrantzitsuenak.

Begira "Historia/1"ean 30-37. orr. Orobat: "Mendez Mende. Aro Moder-
noa": 44-46. orr. Zenbait xehetasun sozialetarako, ik.: "Mendez Mende.
Aro Garaikidea": 438, 441. orr.

EGITEKOAK

- a) Neolitoaz dakizuna eman eskema batean. Azter garrantzi handia eman zaion ala ez teknologia eta demografiari.
- b) Eskema grafikoa egin, testuan agertzen diren egoerak azalduz (geziak eta sinboloak erabili).
- c) Gaunko komunitate primitibo baten antolamendu soziala azter: Harreman sozialen analisisa egin: Zein da buruzagia? Heredagarria al da kargua? Ba al dago txabola kolektiborik? Errituak nola ospatzen dira? (Ik. MM/AG: 478-479. orr.).
- d) Gizarte konplexuaren adibide egokiena Egiptoko kasuan dugu. Azter ezazu berau.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Soberakinaren beharra zergatik sortzen da?
- b) Nola banatzen dira lanak kolektibo primitibo batean?
- c) Soberakina azaldu zenean sortu ziren lan-produktiboezatik liberatuak, ala alderantziz? Eman zure eritzia.
- d) Sedentarizazioak bai al du zerikusirik finkapen sozialarekin? Arrazoiak eman.
- e) Eman "honda"ren eta "klan"aren arteko ezberdintasunak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mesolitotik Neolitorako pasabideko fenomeno bezala aipatu izan da animalien domestikazioa. Hemen gogoratzen zaiguna ere horixe da, baina lurralde ezberdinetako espezieen etxetartzea azalduz batipat.

"Animalien domestikazioak mantenu-bide seguruagoa eskaintzen zien neolitotarrei, hauen aurreko mesolitotarrak bezala, beti ehi-zaren eta arrantsaren gorabeherak zekartenaren preskisan egon gabe.

Badirudi, sakurra Mesolitoaren azken aldera izan zela domestikatua, Danimarkako Oerteboellianoen artean batipat. Seguraski ehizerako lagun bat baino ez zen, nahiz eta berorren haragia jateari erabat utzi ez. Baina neolitotarrek beste espezie askoz ere garrantzitsuago batsuk sartu zituzten. Ardiak, Ekialde Hurbilean eta Mediterraneoaren inguruko lurraldeetan batez ere, izugarriko garrantzia hartzen du. K.a. 9000tik hona domestikatua dagoela dirudi, Zawi Chemi-n (Shanidar, Irak-en), non ardi hau morfologiaz muflotaren oso hurbilekoa bait da, eta industria neolitotarrak baino askoz lehenagokoa; Mendebaldean alderantziz gertatzen da. Etxe-ahuntza, lusaro Asia Trikian eta Balkanetan basati bizi izan zena, ahuntz bezoarretik dator eta ez da ageri Jarmo eta Jeriko-ko zeramikaurreko Neolitoa arte, ardia baino 1.500 urte-inguru beranduago, alegia. Europan Neolitoaren hasieratik agertzen dira etxe-ahuntza eta etxe-ardia. Beste horrenbeste txerria ere. Ekialdean ahuntza baino hainbat mende beranduago domestikatu zen txerria (K.a. 6500 urte-inguruan Kalat Jarmo-n), baina Europan baino askoz goizago beti ere. Behi-aziendaren domestikazioak K.a. 5000. urte-inguruan hasi zela dirudi". (R. RIQUET, 1979)

R. Riquet Medikuntza eta Zientzietako ikasketak egin zituen historialari frantses honek. Bordaleko Zientzi Fakultatean irakaslea izan da. Prehistorilarien artean gehiegi ikusi ohi ez den barrutia aztertzen du ikertzaile honek: demografia. Beronen obra da: "Populations et races au Néolithique et bronze ancien" (1967).

Gai honi buruz ik. "Historia/1": 30-34. orr. Eurasian gertatutakotik zerbait gehiago jakiteko, ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 48 (agiria), 95. orr.

EGJTEKOAK

- a) Koka mapa batean testuan agertzen diren tokiak, eta bakoitzean domestikatu ziren animaliak, dota ere azalduz.
- b) Neolitoaren zabalkunde-mapa bat egin. Harremanik bai ote dago bi prozesuen artean.
- c) Egin ezagutzen dituzun animalia domestikatuen zerrenda bat. Zen ateratzen du gaunko gizonak bakoitzarengandik.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein animali motarekin ugaritzen da etxetartzea? Zergatik animalia horiekin?
- b) Toki guztietan animali klase berak etxetartu izan al dira? Zergatik?
- c) Zertarako etxetartzen dituzte piztiak?
- d) Nolako abantailak ditu piztiak etxetartzeak? Nola aldatuko du horrek bizimodua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

-9.000/-5.000

V.G. Childe historilariaren testu honek zeramika-
ren sorrerari buruz hitz egiten digu, asmakuntza
honek duen eraldaketa kimikoa agertuz, eta garaiko
gizakiari sortuko zizkion kezka eta galderak adie-
raziz.

"Garrantzi handia izan du industria berri honek giza pentsamen-
duarentzat eta zientziaren sorrerarako. Zeramika-produkzioa izan
da, agian, gizakiak jakinaren gainean erabili duen lehen eraldake-
ta kimikoa. Prozesua funtsean zera da, alegia, bustinetik (alumi-
nio silikato hidratatutik, honela deitzen bait da eltzegileen buz-
tinaren izen kimikoa) beroaren bidez ur-molekula batzuk ('osaerako
ura' alegia) ateratzea. Bustin-masa bat hezea dagoenean plastikoa
izaten da erabat; ur gehiegi baldin badu desegin egin daiteke eta
lehortszen utziz gero hauts bihurtu. 'Osaerako ura', kimikoki buz-
tinarekin konbinatuta dagoena, 600°C-tan edo botatsen denean, be-
hin-betiko galtzen du bere plastizitatea materialak; masa osoa
solidotu eta zurrundu egiten da, eta ez du formarik galtzen, ez
bustita ez lehorrean (...).

Materialaren substantzi aldaketa kualitatibo hau —lohia edo
lurra harri bihurtzea alegia— transubstantziazio magiko bat beza-
la agertuko zen lehen gizonaren begitan. Eta zenbait problema fi-
losofiko ere sortuko zizkion, hala nola substantziaren eta identi-
tatearen esanahiarena eta". (V.G. CHILDE, 1965)

Vere Gordon Childe (1892-1957), antropologo eta historilari brita-
niarra zen, Australian jaio eta hil bazen ere. Iraultza Neolitikoaren
eta Hiri-Iraultzaren kontzeptuen sortzailea bera da; interpretazio-bide
berriak ireki zituen materialismo historikoaren erabilpenarekin. Bere
liburu garrantzitsuenetako batzuk hauek dira: "Man makes himself"
(1936), "Social Evolution" (1951), "What Happened in History" (1954).

Neolitoko zeramikaren sorrera eta zeramika-mota desberdinei buruzko zehaztasunak ik. "Historia/1": 31-35. orr. Ik., gainera, Amerikari buruz: "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 94-95; begira 112. orrialdeko irudia ere; eta Afrikaz: "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 440-441. orr.

EGJTEKOAK

- a) Herrian zeramika-fabrika edo zeramikagileren bat baduzu, egin berari bisita. Zein materiale erabiltzen da? Nola lantzen dute buztina? Neolitoko lurrontzigileek ere berdin egin ote zuten?
- b) Bisita ezazu museoren bat antzinako zeramika ikusteko. Zein garaitakoak dira arrastoak? Zein hornidura mota daramate? Torruan eginak al dira?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zentarako erabiltzen dute zeramika? Behar berriren bat betetzeko sortzen al da? Nolako harremana ikusten duzu zeramikaren sorreraren eta garai honetan gertatu ziren beste zenbait aldaketaren artean?
- b) Aipa itzazu garai honetan suertatzen diren zeramika-mota desberdinak. Zeren arabera bereizten dira? Penintsula Iberiarrean zeintzuk dira ugariak eta garrantzitsuenak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-9.000/-5.000

Testu historiografiko honetan Ekialde Hurbileko Neolitoaren berezitasuna eta garrantzia aipatzen dira. Munduaren neolitizazioan abiapuntu historiko garrantzitsua izan zen Ekialde Hurbilekoa, bertan sortu zituen zibilizazioengatik eta handik zabalduko eraginagatik.

"Ekialde Hurbileko neolitizazioaren asterketak interes berezi bat dauka: oso goiz hasten da, eta inolako kanpo-eraginik gabe segitzen du aurrera. Bestalde, Neolito akabatua jansten duten ezaugarri guztiak aurkituko dira bertan (eraikitako herriskak, nekazaritza eta abelaskuntza, zeramika eta harri leundua, kultu berriak), baina ez denak kolpean eta batera, iraultza kanpotik sartu denean sarritan gertatzen den bezala. Ezaugarriak ez dira denak bilduko harik eta lau mila urte dirauen prozesu bat burutu arte, K.a. 10000tik 6000 urtera bitartean. Denboraldi horretan hurrenez hurren sortuko dira faktoreak eta 'kate-erreakzio' baten antzera batabesteari eragingo diote. Horien agerrerrako ordena bera ere interesgarria da horietako bakoitzak duen munta eta garrantzia neurtzeko. Labur esateko, Neolitizazioak Ekialde Hurbilean aurkitzen du bere lehen oinarrizko esanahia, hau da, beren barne-dinamikaren legeei bakarrik menperaturiko giza elkarteen erabateko eraldakuntzaren zentzua, alegia. Neolitoak osagarri berezi guztiak bere baitan biltzen dituen bezain laster bukatzen da neolitizazioa prozesu bezala".

(J. eta M.-C. CAUVIN, 1980)

Cauvindarrak, J. eta M.-C., Zientzia eta Letretan doktoreak eta Frantziako Iker-Erakunde Nazionalekoak dira; Ekialde Hurbilari buruzko ikerlanak dituzte biok. Tresneria paleolitotar zaharretik harri lehundura pasatzea baino askoz gehiago da gizarte haien neolitizazio-prozesua: teknologia aldatu zen, baina baita gizartea bera eta ekonomia ere. Hori argi utzi du Historiografia modernoak.

Ekialde Hurbileko Neolitoari buruzko zehaztasunak "Historia/1": 30-35. orr. Eta "Mendez Mende. Aro Modernoa": 94-95; begira 112. orrialdeko irudia ere. Eta Afrika: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 440-441. orr.

EGJTEKOAK

- a) Ekialde Hurbileko mapa batean Neolitoaren gune garrantzitsuenak koka.
- b) Munduko mapa batean Neolitoaren zabalkunde-norabideak marka.
- c) Koka ardatz kronologiko batean Neolitoa, Paleolitoarekin eta Mesolitoarekin batera.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik hasten da Neolitizazioa Ekialde Hurbilean?
- b) Zeintzuk dira Neolitoaren ezaugarriak?
- c) Testuak dienez, ezaugarri hauek ez ziren batera sortu, batak bestearekin eraginez baino. Nola ordenatuko zenuke zuk katen erreakzio hori faktoreen elkarren arteko eragina esplikatuz?
- d) Zergatik ez da beste herrialdeetan prozesu luze berbera gertatu?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Paleolitoa

Amerikako Paleolitoa aztertzen da testuan, Europa eta Asiako ereduekin gonbaratuz. Hego Amerikako gizakia nahikoa berandukoa da. Amerikako kontinentearen kokapenak eta isolamenduak ekarri zuen, bere ondorioz, garapen historiko propio hori.

"Hego Amerikako Historiaurrea, oso bestelakoa da Mundu Zaharrekoaren aldean. Ba, izan ere, leku itxi batean gertatutako esperientzia da hangoa eta ez Europan eta Asian bezala, non historiaurreko taldeen aksio eta erreakzioak, garai berean gertatzen zirenak, era askotakoak bait dira eta askotan nekez bereizteko modukoak. Amerikan, lehen okupatzaileek kontinente hutsa zeukaten beren aurrean, artean gizakiak aldatu gabeko paisaje eta fauna zituena, kanpoko kutsapen kulturalik jasan gabea. Mundu ikutu gabe hark etengune handiz betetako ingurune naturalak zituen. Badirudi nahikoa agudo moldatu zela gizona inguru-modu haietara, eta moldatu ere beste talde batsuen konkurrentzia jasan beharrik gabe, hasieran behintzat. Bestalde, Amerikaren jendestatzea oso fenomeno berria da Mundu Zaharrekoarekin konparatzen bada: ba, gizaki amerikarrari, 50.000 urteko aintzinatasuna ematen baldin bazaio ere, gaur egun, eta Hego Amerikakoari altuenik ere 15.000 urtekoa, oso urruti gelditsen gara beti ere Eki Afrikako 'Homo habilis'ari egosten zaizkion hiru milioi urteetatik. Gainera Amerikako lehen gizakiak 'Homo sapiens'tarrak ziren hasieratik".

(D. LAVALLEE, 1980)

Historilarisa hau, D. Lavallée, Amerikaren Historiaurreaz arduratu da, beste zenbait gairen artean. Zeramikaurreko Amerikaz dihardu, eta Eurasiatik kanpoko Historiaurreak aztertzen ari diren historilari-belau-naldi berrien artean lekutu behar da Lavallée-ren lana.

Begira Amerikarako: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 44-48, 65, 73, 79, 81. orr.

EGITEKOAK

- a) Lauki kronologiko batean aldera itzazu Mundu Zaharraren eta Berriaren Historiaurreak.
- b) Zeintzuk izan zitezkeen lurralde berriak okupatzeko arrazoiak edo faktoreak? Azter ezazu fenomenoa.
- c) Lehen bizilagunak Asiatik zetozen: Amerikako indiarrek bai al dute antzirik hango arrazekin? Begira argazkiren batzuk.
- d) Hasiera batean, kultura "garbia", "kutsatu gabea", zen noski: zer gertatu zen konkistarekin?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein motatako gizartea izan zitekeen Hego Amerikako lehena?
- b) Mundu Zaharrean, zeri deitzen zaio akzio eta erreakzioa?
- c) Beste halako leku isolaturik, bai al dago mundu zehar?
- d) Gizakiaren jatorria polizentrikoa al da? Testua irakurri ondoren, zein da zure eritzia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-3.5000/-1.500

Testu historiografiko honetan, egileak Mendebal Europako fenomeno bezala agertzen digu megalitismoa. Horretarako datu kronologikoak emateaz gain, eraikin-mota ezagunenak deskribatzen dizkigu.

"Megalitismoa Mendebal Europaren esaugarri bat da, eskusiboa ez bada ere. III. eta II. milakadaetako fenomeno da, bai berant Neolitoan eta bai Kalkolitoan. Monumentu hauek zeltak baino askoz lehenagoak dira, horien izenak zeltieratik hartuak badira ere. Hala bereizten dira:

- menhir-a (iruinarrria), harri kasko bertikala; batzuk egundoko tamaina izaten zuten (Locmariaquer, Britainian);
- dolmen-a (trikuharria), harlosa horizontala, bi zutarri bertikalak gainean jarria; hilobi-ganbaratarako erabiltzen zen.
- cromlech-a (harrespila), menhir-eko ilara zirkularra da. Ospetsuena Stonehenge-n (Wiltshire-n) aurkitzen da (400 eta gehiago metroko diametroa du).

Ez da batere erraza fenomeno megalitotarraren interpretazioa, badirudi oso era desberdinetakoak direla hor erabiltzen diren erritualak". (R. VIEL, 1975)

R. Viel historilari frantsesak hemen aipatzen digunak leku handia izan du Euskal Herrian ere, eta sarritan oso erraza da gure lurretan megalitismoak utzitako aztarnak ezagutzea. Euskal historiografia ere arduratu izan da eraikin hauetaz, ikerlan ugari burutuz.

Megalitismoari buruzko zehaztasunak: "Historia/1": 35-44. orr. Beste testuinguruetako harrizko eraikinekin alderatu nahi balitz, begira: "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 58, 61-63, 66, 77-78, 89-90. orr. Ameriketarako, eta Afrikarako "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 423-424 eta 462-463. orr.

EGITEKOAK

- Koka Europako mapa batean inguru megalitikoak, toki garrantzitsuenak aipatu. Egizu gauza berbera Euskal Herriarekin.
- Koka megalitismoa ardatz kronologiko batean beste garai hauekin batera: Neolitua, Brontze-Aroa, Burdin Aroa, Paleolitua, etab.
- Zure herri inguruan dauden eraikin megalitikoak informazioa bil. Non daude? Aztertuak izan ote dira? Zerbait aurkitu al da?
- Galde etxean eta herrian jentilei buruzko ipuin edo esatera zuhurrak ezagutzen duten.
- Deskriba trikuharri baten eraikuntza. Zenbat pertsona behariko lirateke horretarako? Nolako tresnak eta teknikak erabili ote zituzten?

ERANTZUTZEKOAK

- Zein ekonomi motarekin lotzen da megalitismoa? Gizarte harrapakarian gertatu al zen hori? Gizarte harrapakari batek egin ote dezake eraikin megalitikorik? Arrazoiak erantzuna.
- Euskal Herrian megalitikoak egiten zirenean zein gizarte-mota zegoen? Abelazkuntza eta laborantza ezagutzen ote zuten?
- Zentzurako egiten ziren eraikin hauek?
- Zeintzuk dira zeltak?
- Zer da Kalkolitua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

-9.000

Testu honetan merkatalgoaren sorreraz hitz egiten du R.E. Leakey-ek, prozesu hau gizarte sedentarioaren agerpenarekin harremanetan jarriz, eta gizarte horretan sortaraziko dituen aldaketa batzuk aipatuz. Lotura guzti horiek ongi ulertzea behar-beharrezkoa da Historiako une garrantzizkoenetako batez ongi jabetzeko.

"Merkatalgoak historia lusea du, baina komunitate sedentarioak hasi zirenean zabaldu zen seguraski, bai trukatzeko ziren gauza-moduengatik eta bai gauzen kopuruagatik. Ondorioz merkatal lekuak sortu ziren, hala nola Jeriko, Itsaso Mortuaren iparraldean, Çatal Hüyük Eki Turkian. Çatal Hüyük-ek 8.000 urte baino gehiago ditu; Jeriko, berriz, munduan lehen sortutako hiritsat jotzen dena, orain 10.500en bat urte izan zen sortua. Hala Jeriko nola Çatal Hüyük merkatal leku handi egin ziren --Jeriko murru altu bates inguratuta zegoen hasiera batetik-- eta hiri bakoitzean gizarte-mailaketak sortu ziren, gero eta argiago eta zehatzago egin zirenak. Aldaketa hauek gertatzen ziren bitartean, Ekialde Joritik Europa aldera zabaltzen hasi ziren janari-produkzio teknika asmatu-berriak".

(R.E. LEAKEY, 1986)

Richard E. Leakey, familiarteko tradizio zientifiko batean hazi zen, izan ere Leakey-tar paleontologoaren semea bait da. Gurasoak 1926an hasi ziren gizakiaren arrastoak Afrikako kontinentean bilatzen (Olduway-n); Richard, berriz, Turkana lakuan (lehen Rodolfo izenekoa) egin ditu indusketa garrantzitsuenak.

Merkatalgoaren sorrera eta berarekin batera gertatu ziren beste al-
daketei buruz zehaztasunak: "Historia/1": 32-34 eta 46-48. orr. Ik. Ame-
rikaz, adibidez: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 62. or; edo Afrikaz:
"Mendez Mende. Aro Garaikidea": 450, 458-463. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin mapa bat, kokagune neolitotar zuharrenak eta testuan agertzen di-
ren hiriak emanez. Jarri Neolitoaren zabalakunde-norabideak ere.
- b) Deskriba hiri hauetan behar-beharrezkoak izango diren lanak.
- c) Konpara itzazu eskema batean gizarte harrapakaria eta lehen hirietako
gizartea.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gizarte harrapakariak merkatalgorik izango al luke? Zergatik?
- b) Zer behar da merkatalgorik egoteko?
- c) Zergatik sortuko dira hiriak inguru honetan?
- d) Zergatik agertzen dira gizarte-mailaketak? Badu honek jabetza pribatua-
rekin zerikusirik?
- e) Zein da merkatalgoak lanaren espezializazioarekin duen zerikusia?
- f) Zergatik dago Jeriko murru batez inguratua? Nonk egin ote zuen? Nola
antolatatu ote zen lana? Eta gizartea, nola antola hiri hauetan? Zerga-
lik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Garaian Nilo ibaiari buruz zekitena adierazten digun testua dugu hau. Egipto ezagutzeko beharrezkoa da ibaiaren berri jakitea, beronen emaitza baita lurraldea. Honek erregadiatzen duenaz apartekoa basamortua da Egipton. Gaur egun, noski, gehiago dakigu ibaiaren gorabeheretz eta, era berean, desberdin jokatzeko du ibaiak gizonak egin dituen lanen ondorioz.

"Ibaiaren isiaeraz ez dut inolako informaziorik biltzerik izan, ez apaizengandik eta ez beste inorengandik. Irrika bizia nuen horiengandik jakiteko, ea zergatik jaisten ote den Nilo-a hasita ehun egunetan, udako solstiziotik aurrera, eta egun-kopuru hori pasatu ondoren atzera bere ibilbidera itsultzen den eta ur-joairaren maila ere beheratzen duen, halako eran ze negu osoan apal-apal egon ondoren hurrengo udako solstiziora bitartean ez bait da maila hortatik mugitzen. Baina galde honetaz ezin izan nuen inolako berriarik jaso, alegia, ea zergatik egiten zuen Nilo-ak beste ibaiak egiten duenaren kontrakoa. Nik galde horiek egiten nituen, lehen esan dudana jakin nahi nuelako noski, eta gainera, ibai bakarra delako munduan ibar-haizerik sortzen ez duena.

Beras, uts ditzagun gauza hauek beren horretan, orain eta betidanik izan diren bezala. Nilo-aren iturriari dagokienez, berriz, ez dut nerekin hizketatu zen egiptiar, libyar edo greziarrik ezagutu, horren berri jakin uste zuenik, Egiptoko Sais hiriko Atena-ren altxor sagaratuko izkribaua izan ezik, baina honek ere txantzetan ari ote zelako inpresioa egin zidan neri, bere informazioa egiazkoa zela esaten zuenean".

(HERODOTO, c.484-c.420)

Herodoto (K.a. c. 480/c. 420). Historilari greziar hau dugu historiaz arduratu den lehenengotakoa eta horregatik da "historiaren aita" izenaz ezagutua. Herodotok gauzak kontatzen dizkigu, bere bidaietan ezagutu zituenak, hain zuzen ere. Gauzak ezagutu dituztenengandik jasotzen saiatzen da, gero kontatzeko. Dena den, historilari kritiko izaten hasi da, eta ez ditu jasotako guztiak sinesten.

Ik. "Historia/1": 50-51. orr. Berdin: "Mendez Mende. Aro Garaiki-
dea": 148-150, 398, 404, 416-418. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin ezazu Nilo ibaiaren mapa oso bat.
- b) Aldizkari eta abarretatik argazkiak hartuz, mural bat egin Egyptoko lurralde desberdinak adieraziz.
- c) Egin duzun mapan koka itzazu hiri nagusienak.
- d) Adieraz mapan zer produzitzen den Egyptoko lurralde bakoitzean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Kontsultatu ondoren, esplika zein den Nilo ibaiaren jokaeraren arrazoiak.
- b) Gaur berdin jokatzeko al du? Zergatik?
- c) Zein eragin izan dezakete ibaiaren gorabeherak agintearen zentralizazioan?
- d) Esplika zer den delta bat?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erljio egyptiarrek ez du guk ezagutzen dugunarekin antz handirik, eta ez da erraza haren konplexotasuna adierazten. Erljio politeista da, jainkoak oso hierarkizatuak daudela. Hil ondorengo bizitza batean sinesten dute, eta, bizitza honetan egindakoaren ondotik, saria ala zigorra izango dute hurrengoan. Esan daiteke heriotzera begira bizi dela egyptiarra.

"Agur, Jainko handi, egiaren eta justiziaren jabe zaren jain ahaltzu hori! Hona ni zure aurrean! Utzidazu zure edertasuna begiesten!... Egia eta justizia dakarkizut nik bihotzean, gaiztake-ria erabat kendu dut bertatik eta. Ez diet gizakiei sufrierazi... Ez dut gaiztoekin traturik izan. Ez dut deliturik egin. Ez dut lanik egin erazi neretzat, abusatus... Ez diet nere serbitsariei tratu txarrik eman. Ez nais jainkoen kontra biraoka aritu. Behar-tsuari ez diot bisitzeko behar zuenik kendu. Ez diot inori negarrik eragin. Ez dut inor hil eta ez hil erazi... Ez dut lapurtu jainkoen ogirik eta tenpluetako oparirik... Ez dut bidegabe nere lursailik handitu, ez inoren lurrik neretu. Ez dut balantzetako pisurik, ez orratsik manipulatu. Ez dut belardietako ganadurik neretu... Garbia nais! Garbia nais! Garbia nais!..."

Hildakoen Liburua (K.a. XV. mend.)

Hil ondoren hemengo bizitzaren antzekoa izango zutela pentsatzen zuten egyptiarrek, eta honetarako prestatu egiten ziren. "Hildakoen Liburua" geroko bizitzarako gida bat zen. Bizitza honetan Osiri jainkoa zen nagusi eta beronen aurrean pisatzen ziren hildakoen arimak, saria ala zigorra jaso behar zuten erabakitzeko.

Arazo honi buruz, kontsulta "Historia/1": 56-57. orr. eta "Mendez Mende. Aro Modernoa": 416-418. orr.

EGJTEKOAK eta ERANTZUTEKOAK

- a) Bila jainko garrantzitsuenen izenak.
- b) Konpara testu hau, Ebanjelioak diotenarekin (Lk. 18,9-14).
- c) Kontsulta liburuetan nola egiten zen hil ondorengo epaia.
- d) Esplika egyptiarren hilobi-motak eta jasotzeko adibide bat.
- e) Nola lurrematen zieten hildakoei? Zer da balsamatzea?
- f) Ja hilobi guztiak sakeatuta aurkitu dira. Zergatik?
- g) Zergatik ehonzen zituzten horrela?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

-XIX. mend.

Nilo ibaiaren gorabeherak kontrolatu beharretik, gizartearen hierarkizazio oso zehatza moldatu zen Egypton. Goimailakoak oso bizimodu erosoak zuten bitartean, beraiek jasotzen bait zituzten ia ondasun denak, behemilakoek oso baldintza kaskarretan bizi behar zuten. Nekez lor zezaketen bizitzeko adina.

*"Es sara gogoratsen nekazari izatea zer den, bere ustaren kon-
tuak egiten dituenen? Alean erdia harrak jan du eta gainerakoa
hipopotamoak. Arratoiak eurrez dira soroetan, patxisaltoak izurri-
teak bezalaxe erortzen dira, txoriak atengabe ari dira mokoka.
Ustatik larrainean gelditsen dena lapurrek eraman dezakete. Orduan
zergalaria ailegatsen da portura, usta tasatzera, funtzionari zi-
gordunak lagun dituela. Nekazariari esaten diote: eman alea! (...)*

*Metal-langilea ikusi dut bere lanean. Krokodiloaren azala beza-
laxe dauzka behatzak (...). Harria lantzen duena denegatuta egoten
da bere zereginak bukatzean. Bizargina kalez kale joaten da bezero
bila. Besoak hausten ditu bere sabela betetzearren. Merkantsiak
deltaraino garraiatzen dituen alazainak egin ahala baino lan ge-
hiago egiten du, eltroak etengabe zistaka dituela. Igeltseroa
arrisku guztien pentzutan egoten da, jantziak desordenean dituela,
egunean behin bakarrik garbitsen da. Eholeak agoantaezineko airea
izaten du bere lantokian".* KHETI (Izkriba egyptiarra):

Egyptoko mailaketa honetan oso funtzio garrantzitsua betetzen du izkribak. Idazkera egyptiarra ez da batera erraza eta prestaketa berezia eskatzen du. Izkribak dira ogibidez honetara emanak. Jaun handi guztien inguruan mugitzen dira, arazo guztien berri jaso ahal izateko. Sozialki ere lan desiragarria zen.

Ik. "Historia/1": 54-56. orr. Baduzu hor honi buruzko berririk. Orobat, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 148-150, 416-418. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin ezazu gizarte egiptiarraren eskema bat.
- b) Lortzen dituzun lanbide egiptiarraren argazkiekin egin mural bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein idazkera mota erabiltzen du egiptiarrak?
- b) Bai al dago ulertzerik testu horietan esaten dena?
- c) Bila ezazu Champollion-i buruz liburuek diotena.
- d) Nola ematen da Egypton populazioaren banaketa? Zergatik?
- e) Zein lan-sistema erabiltzen zuten eraikuntza publikoak egiteko?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu historiografiko honetan arte egyptiarraren berri ematen zaigu. Garai hartako artea ez da gauzak edertzeko bakarrik egina; ahantz ezinezkoa da duen helburu "propagandistikoa". Gauzek nola izan behar duten erakusten du. Honi esker, dituen alderdi ederrez gain, oso garrantzitsua da gizartearen berri ezagutu ahal izateko ere.

"Arte egyptiarrak paretetara, papiroetara, kutzetara eta dekorazioa hartu dezakeen edozertara eramaten du heriotza eta bizitza. Ez du inolako gizarte-mailarik bertan sartu gabe uzten, hasi Faraonaren iruditik eta arpajotzaile, ahaide edo egurginaganaino. Baina gizarte-maila guztiek ez dute trataera formal berdina hartzen.

Faraona ez da inoiz agertuko tripandi, bular-sartu edo hanka lodiegiekin; haren figura kanon-a da, araua, errealtatearen idealizaziorik edo abstrakziorik handiena. Amenofi IV. edo Akenaton-en erregealdi heretikoa bitartean bakarrik hautsi zituen imajinagintzak perfekzioaren garantiak (...).

Irudigintza egyptiarrak, beraz, denboraldi laburretan izan ezik, gizarte-maila desberdinak bereizteko joera du, hasi tontorrean dagoen faraonarengandik eta esku-langileen mailaraino, funtzionarioen maila certainetik zehar igaroz. Egyptiar arte figuratiboak ez du gizabanako partikularrik adierazten, baina bai gizarte-mailak beren langintzan".

(J. SUREDA, 1985)

Arte egyptiarra inperioa bera bezain luzea izan da bere garapenean. Dena den, harrigarria gertatzen zaigu hain historia luzea izanik, zein aldaketa gutxi izan duen ikustea; zein iraukorrak izan diren erabili dituen konbentzionalismoak. Eta zein garbi jokatu izan duen beti gizartearen aldazinezko kriterioen gain lan egiten.

Ik. "Historia/1": 60-62. orr. eta "Artearen Historia/1" (UBI): 51-55 orr. Orobat, "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 416-418. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu tenplo egiptiar baten egitura. Kontsulta "Artearen Historia" liburuak.
- b) Tenplo batean, non azaltzen dira artelanak?
- c) Artearen Historiako liburuak begiratu, egizu azaltzen diren lanbideen zerrenda bat.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Begira non azaltzen diren arte egiptiarrean pintura eta erliebe-lanak.
- b) Pintura eta erliebeak hilobietan azaltzen dira neurri handi batean. Zergatik?
- c) Begira testuliburuetan zein den Amenofi IV.aren (Akenaton) erregealdi heretikoaren funtsa.
- d) Zein ondorio izan zuen arte-mailan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu historiografiko honetan Sureda historilariak egiptiar irudiei buruz hitz egiten du. Nahiz eta ezagunena arkaitektura egiptiarra izan, askoz aberatsagoak dira seguraski, irudiak. Erliebez nahiz pinturaz, horma guztiak estaltzen zituzten, izpirituak zaintzeko, nonbait.

"J. Lange historilari danimarkarra saiatu zen definitzen, XIX. mendearen azken laurdenean, ea zein ote zen arte egiptiarraren lege aldakaitza osatzen zuen funtsezko forma. Aurrez aurre egotea edo 'aurrekotasunaren legea' deitu zuen Lange-k, baina horren ustetuz lege hori ez da antzinako zibilizazioena bakarrik, edozein arte primitibotan ageri den fenomeno baizik.

Lange-k artista egiptiarraren ezintasun baten ondorio bezala interpretatzen du aurrekotasun hori, alegia, artista ezin dela naturaltasunari hurbildu eta izadiak eskaintzen dituen ahalbide formal eta barietate guztiak adierazi (...).

Alabaina, Loewy-k ikusi zuen, artista egiptiarrak ez zuela inolako asmorik izadia imitatzeko; aitzitik, originalak bere alderdi tipikoenetik, errazena antzemateko modukoenetik, eskaintzen zituen, eta, irudi mentalak abiapuntutzat harturik, beste objektu bat egin nahi izaten zuela". (J. SUREDA, 1985)

Sureda, Barcelona-ko Unibertsitateko katedraduna da, eta Egiptoko arteari orrialde ederrak eskaini dizkio. Hemen, artearen historian irudien "aurrekotasuna" (frontalitatea) bezala definitu den jokabide estetikoaz ari da.

Testu honen ingurua lantzeko, ik. "Historia/1": 45-63. orr. Orobat, ik. "Artearen Historia/1": 51-55. orr.

EGJTEKOAK

- a) "Aurrekotasunaren legea" jarraituz, egizkiu neskato eta mutiko batzuen irudiak. Egin gero gauza bera, baina lege hori errespetatu gabe. Nolako zulttasunak aurkitu dizkiozu bigarren marrazki horri? Nola atera da burua, edo nola marraztu dizkiozu oinak?
- b) Kontura honetaz: "aurrekotasunaren legea" beletzeak marrazketa erraztu egiten du. Esprika ezazu zergatik.
- c) Egyploko arteari buruz: zer pentzatzen zuten XIX. mende bukaeran? Zergatik zuen halako interese berezia?
- d) Edozein arte primitibotan agertzen zaigu "aurrekotasunaren lege" hori. Zergatik ote da?

ERANTZUTEKOAK

- a) "Aurrekotasunaren legea" deitzen zaio, baina figura ez dago guztiz aurretik biratua. Zein alde ez daude eta zergatik?
- b) Zure ustetan, lege hori betetzean irudiek naturaltasuna galtzen du? Zergatik? Bai al du mugimendurik ezarekin zer ikusirik?
- c) Loewy-k dienez, artista egiptiarrek ez zuen izadia kopiatu nahi. Historiaren errerealismoa eta egiptiarren beste jokabide hau nola konparatuko zenituzke?
- d) Zein izango lirateke, zure ustez, irudi egiptiarren ondorioak?
- e) Azkenez, zu noren alde egongo zinateke: Lange-ren ala Loewy-ren alde?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-2.800/-323. 1850

Pasarte hau testu historiografikoa da, bi adieratan: autore historilari batena izateaz gain gaia bera ere ikerlan historiografikoez ari delako, hau da: Assyriologiaren lehen pausoak deskribatzen ditu testu honek, Egyptologiarekin batera Ekialde Hurbileko Zibilizazioak ikertu dituen Historiarrutiarenak, alegia.

"Naturalista, eta gero arkeologo, Paul Emile Botta frantsesak ordurarte ia ezagutzen ez zen mundu bat argitara zuen XIX. mendearen erdialdean: assyriarren mundua. Botta-ren saiamenari esker, eta ausari ere bai, askenean horregatik miresteko moduan izan ziren errege Sargon II.ak Jorsabad-en zuen jauregia, eta bertako terraza, eskultura, erliebe eta zeramikak. 'Monument de Ninive découvert et décrit par Botta, mesuré et dessiné par Flandin' (1849-1850) izeneko obraren bost tomoek harri-belarri utzi zuten arkeologi mundu preklasikoa, ordurarte Niloren inguruan ziharduena.

Ekialde Hurbileko abentura hasi besterik ez zen egin. Urte beretan, Ninive-ko jauregiaren hondakinak aurkitu zituen eta (...) Assurbanipal-en (Bibliako Sardanapal-en) liburutegia ere bai 26.000 eta gehiago oholtxarekin, zeintzu irakurtzeko modua izan bait zen, G.F. Grotenfeld alemanaren eta H.G. Rawlinson britainiarren lanei esker". (J. SUREDA, 1985)

Pasarte hau, azken urte hauetan Artearen Historia Unibertsal ederretako batetik jasoa da (Planeta, 1985). Beronen zuzendaria oñatiar bat da Jon Milikua, Barcelonako Unibertsitateko Katedraduna, eta Sureda-ren testu hau lehen liburukikoa da. Joan Sureda Madrileko Unibertsitate Konplutarrean katedraduna da eta Antzinateko Artearen Historian berezi-tua.

Ekialde Hurbileko zibilizazioen azterketa: ik. "Historia/1": 64-69. orr.; eta Arkeologiari buruz: "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 430. orr.; "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 148-151. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu mapa batean, artzinako Ekialde Hurbila, hiru lurralde-mota bereizi:
- Ipurraldeko Lautada eta Mendialdea.
 - Hegualdeko Basamortualdea.
 - Nilok (Egipton), Jordan-Orinte-k (Palestina eta Fenizian), Tigris-Eufrate-k (Mesopotamian) sorturiko alubioi-lurraldeak.
- b) Jar itzazu mapan, Assyriako hiri nagusiak.
- c) Inperio assyriarraren berri gehiago jakin ahal izateko, liburutegietako entziklopedia edo histori liburuetatik har itzazu oinarritzko datu hauek: Kokapena, Inperioaren sorrera eta bilakaera (labur), kulturaren ezaugarriak, ekonomiarekiko xehetasunak, etab.
- d) Informa zaituz Khorsabad eta Ninive hirietan eginiko aurkikuntzei buruz, Arte-Entziklopedietan.
- e) Diapositibak ikus, eta arte assyriarraren berezitasunak ikas, erliebeen garrantzia kontuan hartuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz eta non hedatu zen Inperio assyriarra?
- b) Hiri garrantzitsuenak, zeintzuk izan ziren?
- c) Zein idazkera-mota ageri da Assurbanipalen liburutegiko oholtxetan?
- d) Gaur egungo zein Estatutan kokatuko zenuke Assyria?
- e) Zeintzuk dira hango artelanik aipagarrienak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. orr.; II.: 32. orr.) nahiz monografikoak (35. orr.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-1.792/-1.750

Ikus dezakezunez, agiri hau dokumentu historikoa dugu, ez historiografikoa: Hammurabi Babiloniako erregeak idatzirikoa da. "Hammurabiren Kodea" deiturikotik hartu dugu pasartea. Errege honen lege-bilduma, garai hartako gizarte mesopotamiarraren arautegia zen.

15. Gizon libre batek, Estatuaren esklabu bati edo partikular baten esklabu bati, hiriko atetik ihes egiten laguntzen baldin badio, heriotzera isango da kondenatua.

16. Gizon libre batek, etxe bat baldin badu eta bertan Estatuaren edo partikular baten esklabu iheslari bat ostatatzen badu, eta poliziaren esanak jarraituz hura bere lekura eramaten ez badu, heriotzera isango da kondenatua.

17. Gizon libre batek esklabu iheslariren bat harrapatzen baldin badu eta hori berorren nagusiari eramaten baldin badu, zilarrezko bi siklo ordaindu behar dizkio nagusiak.

18. Atzemandako esklabu horrek bere nagusiaren izenik ematen ez badu, jauregira eramango da, han horren inskripsioa aster dadin eta berriro bere nagusiari itzulia izan dadin.

19. Baina esklabua etxean gordetzen badu eta gero ikusten bada beretzat nahi duela eduki, heriotzera kondenatua izango da gizon librea.

20. Esklabuak bere harrapatzailearen eskutatik alde egiten badu, gizon libreak esklabuaren nagusiari jakin eraziko dio eta libre geldituko da kargutatik". (HAMMURABI: Kodea, K.a. 1792-1750)

K.a. XVIII. mendean izan zen Hammurabi, Babiloniako erregea. Beroni esker menperatu zituen Babiloniako hiriak Mesopotamiako lur aberatsak. Erreinaldi hari buruzko dokumentuetan, administrari on, bakezale eta lurraldearen ordenatzaile saiatu bezala agertzen da Errege hau.

"Historia/1" liburuan: 64-69. orrialdeetan sakon dezakezu gaia. Eta joan den mendean, Ekialde Hurbileko Arkeologian lortu ziren aurrerapenak gogoratzeko, ik.: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 148-151. orr.

EGJTEKOAK eta ERANTZUTZEKOAK

- a) Entziklopedia eta Histori liburuetan azter dezakezu Hammurabiren pertsonaia historikoa. Mesopotamiako historian duen garrantziaz mintza zaitez, laburki.
- b) Testu honetan, sei lege biltzen dira bakarrik (esklabutza, hain zuzen); baina Kode honen legeetan beste hainbat barruti ere ikutzen da: begira, eta esan zeintzuk diren arlo horiek.
- c) Non aurkitu zen Hammurabiren Kodea? Nolakoa da berorren itxura? Zer zegoen bertan landuta? Zer idatzita?
- d) Zer adierazi nahi du Jainko baten presentziak, delako Kode horretan?
- e) Testuko arauak esklabu iheslearekiko legeak zehazten dituzte: Nolako zigorrak ezartzen dira? Nori?
- f) Zein motatako esklabutza zegoen Mesopotamian Hammurabiren garaian?
- g) Kodean agertzen diren zigorrei buruz, zein da zure eritzia?
- h) Gaur egun ba al dago tamaina honetako zigorrik ezartzen duen Estaturik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-1.792/-1.750

Hammurabi-k argitara emandako kodetik jaso da dokumentu historiko hau. Kode honetan Mesopotamiako gizartea arautzen zuten legeak bildu ziren, arlo ezberdinak landuz. Hemen "Emaztearen eskubideak" deskribatzen dira.

"128. Jaun batek emakume bat eskuratsen badu, baina hitsarmenik horrengana hedatzen ez badu, emakume hori ez da haren emazte.

129. Jaun baten emaztea beste gizon batekin etzanda harrapatzen bada, bata besteari lotu eta uretara botako dituzte biak. Emakumearen senarrak bere emazteari barkatu nahi balio, orduan erregeak ere barka diezaioke bere menpekoari.

138. Jaun batek, umerik izan ez zuen bere emazteagandik dibortziatu nahi badu, dirua emango dio horren herresen balioa berdintzeraino, eta aitaren etxetik ekarri zuen dotea itsuliko dio, eta gero dibortzia daiteke emazteagandik.

142. Emakume batek, bere senarrari dion gorrotoaren gorrotos, esaten badu: 'Ez daukazu ni edukitserik', emaztearen aurrekinak aztertuko ditu hiriko kontseiluak, eta arretatsua izan bada eta hutsik aurkitzen ez bada, nahiz eta senarrak neurrigabe zabartu eta gutxietsi izan, emakume hori, dotea hartu eta joan daiteke bere aitaren etxera, lotsagarri izan gabe.

143. Arretatsua izan ez bada eta bai kalezale, eta horregatik bere etxea zabartu eta bere senarra lotsarazi baldin badu, uretara botako dute emakumea". (HAMMURABI: Kodea, K.a. 1792-1750)

Hammurabi, Babiloniako erregea izan zen. Berau dugu, hain zuzen, ospetsuena. Lege-bilduma honen betekizuna, gizarte hartan bakea eta ordena ezartzea zen, eta kode hau luzaro egon zen indarrean: K.a. 1530 urterarte, hititek eraso zuten arte, alegia. Ekialde Hurbilean garrantzi handia izan zuen, beraz.

Hammurabi eta beronen garaiko gizartearen xehetasunak aztertzeko, ik "Historia/1" liburuan 64-69. orr. Eta Ekialde Hurbileko Arkeologiaz: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 148-151. orr.

EGITEKOAK

- a) Ekialde Hurbileko mapan koka Babiloniako Inperioa: hedapena, hiriak, etab.
- b) Labur testuan ematen diren legeak.
- c) Hammurabiren bizitzaz eta ekintzaz informazioa jaso: Histori liburuetan, entziklopedietan, etab.
- d) Pasarte honetako hitzak idatziz, egiazta gizonezko-emakumezkoen arteko parekotasunik ematerik badagoenentz.
- e) Eskema batean zehaztu itzazu Hammurabiren kodeak sail ezberdinetan jasotako legeak.
- f) Informa zaitetz non eta nola topatu zen lege-bilduma hau.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gizartearen zein arlo arautzen dute testuaren legeak?
- b) Gizonezko-emakumezkoen arteko ezkontzarako zein baldintza behar ziren?
- c) Zein zigor-mota jasaten zuten ezkontzausleek?
- d) Nola arautzen zen dibortzioa?
- e) Eskubide berdinak al zituzten senar-emazteek, ezkontzan? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. -1.500

Agiri historiko hau, beste hango milaka bezala, Mesopotamiako oholtxetatik iritsi da guganaino, eta bertako herritarren eguneroko bizitzaren zati-txo bat erakusten digu: eskola-ikasle arduratu baten egunkari arruntetik jasotakoa da eta hiru mila eta gehiago urte ditu.

"Nere oholtra irakurri dut eta oholtra berria prestatu dut; idazlanaz bete dut dena; gero hura irakurtzeko esan didate eta, arratsaldean, idatz-ariketa egiteko. Klasea bukatzean etxera joan naiz. Etxean sartu eta aitarekin topo egin dut; eserita zegoen. Idatz-ariketas hitz egin dut aitarekin, gero nere oholtra irakurri diot, eta oso pozik gelditu da aita... Hurrengo egunean, goizean goiz, iratzarri naizenean, amarengana joan naiz eta esan diot: 'Emaidazu gosaria, eskolara joan behar dut eta'. Amak bi opiltxo eman dizkit eta ni eskolara abiatu naiz. Eskolan, zaintzen zegoenak esan dit: 'zergatik etorri zara berandu?'. Izaturik eta biho-tza taupaka batean maisuarengana joan naiz eta begirunezko burua-gur bat egin diot".

(S.N. KRAMEN, 1962)

Kramer, S.N.: Sumeriar hizkuntza eta idazkeran jakituna. Sumeriari buruzko jakitunik handienetakoa da S.N. Kramer. Hainbat liburu interes-garri argitara zituen ipar amerikar honek historia sumeriarraz: hemengo pasarte hau "From the Tablets of Sumer" (1956) liburutik hartua da, hau da, "L'Histoire commence à Sumer" (Artaud, 1957) "La Historia comienza en Sumer" obratik.

EGJTEKOAK

- a) Mesopotamiako mapa bat egin ondoren, emaitzazu: Sumer-eko lurraldearen kokamendua, hiriak, ibaiak, mugak.
- b) Liburutegietako entziklopedietan kontsulta Sumer edo Sumeriako zibilizazioari buruz datorren informazioa, "Historia/1" liburuan datorrena osatuz; begira batipat hizkuntza eta gizartecrenak.
- c) Taula batean idatz kronologikoki Sumeriako gertakizun aipagarriak.
- d) Testuaren irakurketatik laburtu esaten zaizkigun ideia funtsezkoak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer ziren oholtxak? Zerez eginda zeuden? Zertarako erabiltzen ziren?
- b) Nolako hizkuntza mota zen sumeriera?
- c) Zeri ematen diote nagusitasuna ikaslearen heziketan? Zergatik?
- d) Bai al dakizu zein idazkera mota erabiltzen zuten oholtxetan? Noizkoak dira oholtxa hauek?
- e) Bai al dago diferentziarik gaurko heziketaren eta testuan azaltzen denaren artean? Zertan?
- f) Sumeriako zein gizarte-mailatan lekutuko zenuke Sumeriako ikasle hau? Arrazoituz erantzuna.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-2.000/-1.000

V.G. Childe-k idatzirikoa da testu hau. Ekialde Hurbileko izkriben prestakuntzaz mintzo da berau. Prestakuntza honetan ez zuten irakurketa eta idazketa soilik ikasten, matematika eta kasu batzutan astrologia, medikuntza eta abarren ezaguera eskatzen zitzairen izkriba-ogibidea hartu nahi zutenei.

"Izkribaren hezkuntza ez zen inongo herrialdetan, irakurtze eta idazte soiletan gelditzen. Arruntki eskatzen zitzaizkion funtzioak betetzeko, matematika ere ikasi beharra izaten zuen. Baten batzuk, badirudi, astrologia, medikuntza, kirurgia eta, apika, alkimia ere ikasi zituztela. Seguruenik, gaurko ikertzaileek 'matematikakako' eta 'medikuntzako' bezala ematen dituzten papiro eta oholtxarik gehienak eskola horietan formulatuak eta erabiliak izango dira. Horiez gainera, konputuak, plano topografikoak, egutegiak eta beste agiri batzuk ere badira, aritmetika, geometria, astronomia eta beste zientzia batzuen aplikazioak ilustratzen dituztenak".

(V.G. CHILDE, 1936)

Vere Gordon Childe (1892-1957). Historilari eta antropologo australiar eta britaniarra. Edinburgh-en Historiaurreko Arkeologi irakaslea eta Londreseko Unibertsitateko Arkeologi Institutuaren zuzendaria. Neolito eta Brontze Aroko Arkeologian jakintsuenetako bat. Bera izan zen "Neolitoko Iraultza" eta "Hiri-Iraultza" kontzeptuen sortzailea. Aipatutakoaz gain, obrarik nagusienak: "The Dawn of European Civilization" (1925), "Social Evolution" (1951), "What happened in History" (1942).

Ekialde Hurbileko kulturaren berri jakiteko, Ik. "Historia/1": 64-69. orr. Orobat begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 61. or.; "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 148-151. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila hiztegian eta idatz "Alkimia" eta "Planu topografiko"aren esanahia.
- b) Agirian azaltzen diren ideia orokorrak jaso eta idatz.
- c) Izkriben heziketari buruzko argibide berriak lortzeko liburutegietako entziklopediak kontsulta.
- d) Antzinateko idazkeraren bilakaeraz idatz laburpen bat, entziklopediak aztertu ondoren.
- e) Interesgarria litzateke Ekialde Hurbileko eta Kolonaurreko Ameriketako idazkerak ikustea, liburu edo diapositibetan: pareka itzazu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein gai lantzen zuten izkribek? Zergatik?
- b) Zergatik zen, zure ustez, horren garrantzitsua izkriben heziketa.
- c) Zein gizarte mailatan kokatuko zenituzke izkribak? Zergatik?
- d) Aipatu Historian zehar emandako idazkerak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-1.792/-1.750

Agiri hau testu historikoa da. Hammurabi Babiloniako erregeak argitaratu zuen kodetik jaso dugu, "Hammurabiren Kodea" deitu izan denetik. Lege-bilduma honetan Mesopotamiako legeak bildu zituen arlo ezberdinetan sailkatuz, eta horrela, idatzita, Inperioa legeria finko batez hornituz.

"215. Medikua batek jaun bati operazio garrantzitsu bat egin baldin badio brontzesko lantzeta batekin, eta jaunari bizia salbatu badio, edota jaun bati begi-zuloa ireki badio lantzeta batekin eta begia salbatu badio, zilarrezko hamar siklo jasoko ditu.

216. Medikua plebetarra baldin bazen, bost siklo jasoko ditu.

217. Jaun baten esklabuaren bazen, bi zilarrezko siklo emango dizkio medikuari esklabuaren nagusiak.

218. Medikua batek jaun bati brontzesko lantzeta batekin operazio garrantzitsu bat egin ondoren jaunari heriotza eragin badio, edota jaun baten begi-zuloa irekitzean jaunari begia galdu erazi badio, eskua mostuko zaio medikuari.

219. Medikua batek plebetar baten esklabuari operazio garrantzitsu bat egiten baldin badio brontzesko lantzeta batekin, eta horri heriotza eragin baldin badio, beste esklabu bat emango du haren truke".

(HAMMURABI: Kodea, K.a. 1792-1750)

Hammurabi, Errege "legegile" bezala ezagutu izan da batipat, eta K.a. XVIII. mendean bizi izan zen. Berari esker Babiloniako Inperioa asko sendotu zen, Sumer eta Akkad erabat konkistatu eta Larsa ere hartu bait zuen, Assyriaraino iritsiz. Mesopotamiako historian bera izan zen hiskuntza, erlijio eta legeak lehenengo aldiz batu zituen.

"Historia/1" liburuan aurki ditzakezu Hammurabi eta bere garaiari buruzko zehaztasunak: 64-69. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas Historiko batean Mesopotamia lurraldearen kokamendua, mugak, ibaiak, etab. begira.
- b) Marraztu, mapa batean, antzinako Babiloniako Inperioa eta beraren hiri nagusiak.
- c) Hammurabi nor zen jakiteko, beharrezkoa duzu entziklopediak kontsultatzea; ondoren, idatz interesgarrienak inuditzen zaizkizun berriak.
- d) Diapositiben edo liburuetako argazkien bitartez Hammurabiren Kodearen azterketa egizu, baina beraren arte-balioen ikuspegitik begiratu.
- e) Begira hiztegian hitz hauen esanahia: siklo, lantzeta, etab.
- f) Testuko bost legeen laburpen motz bat egin.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Non aurkitu zen Hammurabiren Kodea?
- b) Zein erizpiderekin bereizten ziren medikuari egiten zitzaizkion ordainketak?
- c) Zeren adierazgarri sozial ditu horrek?
- d) Operazioa gaizki ateratzen zenean, berdina al zen ordainketa? Zein kasu bereizten dira?
- e) Zer diozu zuk ordainketa egiteko modu honi buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

-1.000/-500

Assyriar herriaren ekonomia aztertzen da ondorengo testu historiografikoan: nekazaritza, artisautza eta merkatalgoa. Assyriako Inperioaren zabalkunde handiena K.a. VIII-VII. mendeetako izan zen. Garelli historilari frantsesa da berorren analisi ekonomiko hau eskaintzen diguna.

"Assyriarren ekonomia ezer gutxi aldatu zen Inperioa sortu zene-tik: nekazaritzakoa zen funtsean. Artisautza, biziro garatu gabea zen, eta zentru administratiboetan zegoen bildua; merkataritzak basirudien gidari-jendearen luxuzko produktuen beharrak asetzera jotzen zuela, batez ere. Lurra zen beti ere irabaspiderik nagusie-na, baina ez zegoen lurjabe handi bakar batzuen eskutan bildua. Inon ez da frogatu ahal izan benetako latifundioen existentziarik. Lurjabetzen batezbesteko neurriak, salmenten aktetan eta Harran-eko zentsuan ageri direnez, 20 'imeru'koak ziren eta nahikoa aisa igar daiteke nekazariak egiten zuten bizimoduaren berri: jende apala zen, baliakizun mugatuak zituena.

Hala ere, eserk ez digu biderik ematen esateko, zergaz zapaldua edo zerbitzu pertsonal zapaltzailez itoa bizi zenik. Astunak ziren horiek noski, baina assyriarren okupazioak bazituen bere alde onak ere, aipatu gabe utzi ezin daitezkeenak. Batez ere, gerraldien bukaera ekarri zuen, askotan". (P. GARELLI, 1982)

P. Garelli, Frantziako historilari assyriologo bat da, eta beronen obra nagusia 1963an eman zen argitara: "Les Assyriens en Cappadoce" (Parise). Obra honetan, assyriarrek beren jatorrizko lurraldetik (Tigri-Eufrateren tarteko iparraldetik) iparraldeko mendialderantz izan zuten hedapenaren historia eman zuen autoreak. Hemengo pasarte hau beste obra batetik hautatua da.

EGJTEKOAK

- a) Zeintzu dira antzinako Ekialde Hurbileko lurretan kokatzen diren gaur egungo Estatuak?
- b) Azpimarka mapan gaur egun oraindik egon badauden antzinako Assyriako hiriak.
- c) Saia zaitetz "Historia/1" liburuko informazioa sakontzen, entziklopediez baliatuz eta Inperio Assyriarrari dagozkion datu garrantzitsuenak idatziz.
- d) Hiztegian begira: "imeru", "zentsua" hitzen esanahia.
- e) Garai hartan merkataitzen ziren ekoizpenen berri entziklopedian azter eta bil.
- f) "Hurren-eko zentsua" aipatzen da testuan: ea lortzen duzun horretaz informazio gehiago.

ERANTZUTEEKOAK

- a) Non aurkitzen zen artisautza?
- b) Zeintzuk ziren garai hartako luxuzko produktuak? Nondik ekartzen ote zituzten?
- c) Zer da latifundioa?
- d) Zer esaten digu testuak nekazarien bizi-mailaz?
- e) Zer ziren zerbitzu pertsonalak? Norkzuk zituzten horrelako betebeharrak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri hau dokumentu historikoa da. Senakerib errege assyriarrak utzi zigun idazkia (K.a. VII. mendekoa): "Jerusalen-en Setiapena" izenarekin bere ohoretan altxaturiko oroitarri batekoa, hain zuzen ere.

"Ezekia judutarra, ez zen nere ustarpera makurtu. Haren hiri gotorretako 46 setiatu nituen (...), eta lubeteak eginez (...), oinezkoekin erasos, eta (...) azpi-lana eginez konkistatu nituen. 200.000 edo 150.000 pertsona atera nituen bertatik (...) Ezekia bera Jerusalem-en bere erret etxean hartu nuen gatibu, txori bat katolan bezala. Lubetez inguratu nuen hiria, hiriko atetik ihes egiten zutenei enbaraso egiteko. Arpilatutako hiriak haren herrialdetik askatu eta Mitinti, Asdod-eko erregeari, Padi, Egrom-eko erregeari eta Sikibel, Gaza-ko erregeari entregatu nizekien. Horrela murriztu nuen haren herrialdea, baina zergak (...) areagotu egin nituen lehengoaz gain, urtero paga zitezen. Ezekiak berak, nere jauntasunaren distirak izaturik, (...) Ninive-ra, nere jaun-hirira, bidali ziskidan 30 talentu urrez gain, beste 800 talentu zilar, harri-pitxiak (...) eta era gustietako altxor baliotsuak, bere alabak, ahaideak eta musikariak (gizon eta emakume). Zerga entregatzera eta men egitera bere mandatari (pertsonala) bidali zuen esklabu bezala".

SENAKERIB (K.a. 704-681): *Jerusalen-en setiapena*

Senakerib (K.a. 704-681) Assyriako erregea, bere aita Sargon II.nak utzitako Inperioa mantentzen eta hedatzen saiatu zen, Babilonia birkonkistatuz, Fenizia eta Palestina menperatuz, Egipto garaituz. Ninive hiriko jauregi erraldoiaren eraikilea, eta kanal eta akueduktuen eraikuntzen sustatzailea izan zen. Biblian garai honetaz hainbat albiste dago.

Ikus "Historia/1": 64-66. orrialdeetan Mesopotamiaz esaten dena eta tartean Assyriar Inperioaz.

EGJTEKOAK

- a) Testuan ageri den hainbat hitzen esanahia argi, hiztegia erabiliz: lu-bele, talentu, zerga.
- b) Koka mapan testuan aipatzen diren erresumak: Asdod, Egrom, Gaza, etab.
- c) Testua ulertu ondoren, egizu berorren laburpena.
- d) Ezekia judutarren erregeaz informa zaitetz, entziklopediak eta beste histori liburuak erabiliz.
- e) Gertakizun honen berri Biblical ere azaltzen da: Erregeen liburuan 18. kapituluak, 15. esaldian. Judutarren bertsioa jasotzen du. Inakurri ondoren, bi testuak pareka. Bat al datoz?

ERANTZUTEKOAK

- a) Inskripzio honi jarraituz erantzun: Zer da Senakerib-ek Ezekiarengandik lortu nahi duena?
- b) Zer egin zuen, ezin zuela lortu ikustean?
- c) Zein gerra-mota praktikatzen dute assyriarrak juduen aurka? Nola amaitzen da assyriar-judutarren arteko gerratea?
- d) Zein gastigu edo zigor jasan zuen Ezekiak?
- e) Senakerib-en oroitarriaren xedea zein zen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Herodoto historilarien aitatzat hartu behar dugu. Liburu asko idatzi zituen, herrialde edo inperio ezberdinen deskripzioa eginez. Zati honetan, Pertsiaiko Inperioaren zerga-administrazioaz hitz egingen digu. Testu historikoa da, baina kontuan har Hedorotok kontatzen dituen gauza asko ez zituela berak ikusi.

"Hogei eskualdetan banatu zuen Dariok bere Inperioa, pertsiarrek 'satrapia' deitzen dituztenak. Horiek antolatu eta bertako gobernadoreak izendatu ondoren, herri bakoitzak pagatu behar zizkion zergak xedatu zituen, herri bakoitzari bere auzo-herriak erantsiz eta nazio bakoitzari, gertuko lurrez gain, beste herri-sail bat ere partituz. Honela banatu zituen lurraldeak eta zergak. Zilarretan pagatu behar zutenei, talentu babiloniar bat ordaintzeko agindu zitzaizen; urretan pagatu behar zutenei, Eubea-ko talentu bat. Talentu babiloniarrek Eubea-ko hirurogeitamazortzi mina balio ditu. Ziro eta Kanbise-ren garaian ez zen zerga finkorik, eta emaritan pagatzen zen. Zerga eta antzeko beste gauza batzuen ordenamenduagatik, esaten dute pertsiarrek, merkataria zela Dario, jauna Kanbise eta aita Ziro. Lehenengoa, edozertatik irabazia ateratsen zuelako; bigarrena, gogorra eta harroputza zelako, eta hirugarrena onbera zelako eta beti on egiten zekiela. Joniarrek, Asiako magnesiarrek, eoliarrek, liziarrek, mileotarrek eta panfiliarrek (gustien artean zeukaten ordaindu beharra) laurehun zilar-talentu pagatu behar zituzten; misiarrek, lidiarrek, lasoniarrek, kaleoek eta hiteneoek bostehun talentu pagatzen zituzten. Hauek bigarren zatidura edo satrapia osatzen zuten". (HERODOTO, c.484-c.420)

Herodoto grekoa zen, familia noble batean jaioa. Horrek ikasketetarako aukera eman zion. Koloniak fundatzen parte hartu zuelako, lurralde ezberdinak ezagutu ahal izan zituen. Bere "Historiak" greziarren burubide historikoak zurtzeko erabili zituen kritikariek gogoratu izan dute.

"Historia/1" liburuan ik.: Pertsia-ri dagokion gaia batez ere, 72. orrialdeko testuak.

EGJTEKOAK

- a) Koka ezazu kronologikoki Herodotok aipatzen duen garaia, Dario enperadorearen momentua. Zeintzuk dira testuan agertzen diren: Dario, Kambises eta Ziro?
- b) Pertsiarrek lortu zuten inperioa jar ezazu mapa batean, hiri garrantzitsuenak azalduz.
- c) Mapa hori osatuz, testuan dauden herrialde ezberdinak kokatzeko ahaleginak egin.
- d) Administrazio konplexua zen hura: Esprika ezazu zerga-kontraketa- ren ar- tolumendua, eskema bat eginez eta komunikabideen garrantziarekin erla- zionatuz.
- e) Neolitik aurrera nola eboluzionatu du gizarte-egiturak halako Inpe- riolak mantentzeko edo sortzeko? Eman arrazoiak.

ERANTZUTEKOAK

- a) "Satrapia"aren esanahia ikertu. Zein da satrapa?
- b) Nola ordaintzen ziren zergak?
- c) Nondik dakizu urreak balore handia zuela?
- d) Enperadorea ez al zen administrazioaile on bat? Nola mantentzen zuen enperadoreak bere boterea?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ekialde Hurbileko zibilizazio handiei begiratzean, oso errazki ikusi ohi dugu hango zibilizazio bakoitza ehundaka urtetan bat bera eta aldaezina balitz bezala. Ez dago horrelakorik, jende eta herri ezberdinek eskuratu bait zuten agintea hango historietan zehar. Aldakuntza sozio-kultural haue-tako bati buruz ari da hemen Tovar.

"Pertsiarren tolerantzia zabalak, atzera beren sorlekura itzul-tzen utzi zien asiriar eta babiloniarrek deportatutako herriei, eta horien artean gatibutsan zeuden judutarrei. Garaitutako he-rriak zapaltzeko eta errausteko politika mesopotamiarraren ordez beste sistema berri bat jarri zen, herri bakoitzari bere nortasuna eta erlijioa gordetzen uzten ziona. Babiloniarrek berriro eskura-tzen dituzte beren jainkoen irudiak, judutarrei beren gauza saga-ratuak itsultzen zaizkie, eta beren tenplua berreraikitzen uzten saie. Babilonia munduaren erdigune bihurtzen da berriro, eta Zirok han ezartzen du bere nagusitasumaren zentrua. Nabonid-ek babilo-niarren sentimendu erlijiosoen kontra ekin zion, eta antza zer-ikasi eman zion Zirori. Uste izatekoa da, honek bere erlijio in-doeuroparraren primitibismotik begiratuki, mireспен handia soma-tzen zuela Mesopotamiako erlijioen handitasunezko hierarkia eta kultu ikusgarrientzat".

(A. TOVAR, 1978)

Antonio Tovar (1911-1985) irakaslea guztiz ezaguna da euskal ikaske-tan. Ohorezko euskaltzaina izan zen. Herri indoeuroparrak, hizkuntza klasikoak, Ameriketako eta Penintsula Iberiarrekoak: mundu oso ezberdi-nez arduratu zen Tovar. Kultura guztiz zabalekoa, beste lanen artean, euskara ere gogoz eta zaletasunez aztertu zuen: artikulu eta liburu in-teresgarriak ditu.

Begira "Historia/1": 70-74. orr. Baina pertsiarren Inperioko lurraldeek lehenagotik historia aberatsa zuten. Zerbait gogoratzeko, ik. "Historia/1"etik 64-69. orr.

EGITEKOAK

- a) Eman mapa batean Inperio Pertsiarrek lortu zuten hedakuntza geografikoa.
- b) Mapa honetan koka itzazu barnean gelditu ziren kultura eta erlijio ezberdinak (assyriar, babiloniar, judutar, egyptiar, etab.).
- c) Pertsiar inperioa armaz konkistatutakoa da; baina menpean zeuden herriak kulturalki aberatsagoak ziren. Ezagutzen al duzu historian beste honelakorik?
- d) Bila A. Tovar-ek euskarari buruz duen lanen bat: Zer dio?

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz eta nola lortu zuten hain inperio zabala pertsiarrek?
- b) Babilonia hiria berreraiki zuten. Noiz eta zein Estatutan izan zen hiriburua?
- c) Testuan aipatzen den Ziro enperadorearen hilobia, zeinen antzekoa da? Ondorioak atera, testuak dioena gogoan hartuz.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

Historilari eta soziologoarentzat interes handia dute hemen agirian irakur ditzakegun datu geografiko hauek, izan ere Indiako azpikontinente honetan milakada askotan luzatu bait dira zibilizazioak, eta ehundaka milioi bizilaguneko lurraldea bait da, gainera, hau. Geografia ezagutzek, hortaz, interes historikoa du guretzat hemen.

"Laborantza emankor batentzako lurralderik onenak lautada alubial euritsuak dira, Indiako penintsularen nukleoa osatzen duten lur zaharren kanpoaldean daudenak. Bi multzo osatzen dituzte lurraldeok: bata jarraitua, Ganges-en lautada handia eta honen eranskinak besarkatzen dituena; eta bestea eten gehiagokoa, eta Bengala-ko Golkoko kostean lizean delak elkarren segidan dituena. (...)

Produksio-ihardueren partiketa faktore naturalen eta historikoen arabera egiten da, aldiberean. Produksio-moduek biziro markatzen dituzte paisajeak. Modu jeneral batean, laborantzako produksio-moldeak esplikatzen ditu populazio-dentsitatearen diferentziak, nahiz eta gero industri iharduerak zenbait lurraldetan beren arrastoa eta markak ezarri; askenik, populakeraren kalitateak, han bata bestearen segidan bildu diren zibilizazioen fruitu denak, ere bere zerikusia du, eta ez gutxiestekoa, Indiako espazioaren desberdintze-prozesuan".

(F. DURAND-DASTÈS, 1974)

F. Durand-Dastès, Pariseko Letra eta Giza Zientzien Fakultateko irakaslea da, eta 1968an Indiako geografiari buruzko obra bat argitaratu zuen: *Géographie de l'Inde* (Parise).

Begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 377-379. Bertan ikus ditzakezu, gainera, Indiako giza geografia: 379-381; eta hango bizilagunak: 396. or.

EGJTEKOAK

- a) Bila zeure herriko mapa bat eta margotu herrian izan daitezkeen padura, baso, sorvak, etab.
- b) Zure bizi-inguruan bai al dago lautada alubialik edo itxura bereko besteren bat (laborantzarako egokia)?
- c) Begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"ko 87. orrialdeko argazkia eta alde-
ra ezazu "Mendez Mende. Aro Garaikidea"ko 337-338. orrialdeetakoekin.
Zer da hobe laborantzarako, lur alubiala ala bestelakoak? Zergatik.
- d) Indiako mapa batean, marraztu (kolore desberdinez) populazio-dentsitate
maila ezberdinak, erliebezko gorabeherak eta euri eta tenperaturen-ba-
naketak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Labor, hiru lerrotan, agiri honek dioena.
- b) Zer esan nahi ote du "produkzio-moduek biziro markatzen dituzte paisa-
jeak" esaldiak?
- c) Nola eragiten ote du inguru fisikoak zibilizazio batean? Gaur egunean
inguru fisiko honen eragina erabakiorra dela uste al duzu?
- d) Zer esan nahi da esaldi honekin: "Produkzio-ihardueren partiketa fakto-
re naturalen eta historikoen arabera egiten da"?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. -2.000/c. -750

Lehen-Historiako zibilizazioegune handienetako batekin topo egiten dugu ondoko testu historiografiko honetan: Indo ibaiaren inguruan garaturiko kultura. Hemen ere, ezagutzen ditugun beste zibilizazio eta gizarte aurreratuen antzekoa ikusten dugu: ibai baten inguruan loratu ziren hiriak, antolamendu sozial konplexuekin eta produkzio-teknika aurreratuekin.

"Mohenjo-Daro eta Harappa-ko biztanleek herri-bainuak, seguraski sakratu-kutsukoak, izateaz gain ur-garraio-sistema ondo zaindu bat ere bazuten, bide ematen zuena, herriko jauntxo-jendeak beren bainu partikularra eta are komuna ere eduki zezaten.

Hiri aberats hauetan faltaezinekua zen materialik ezberdinenak (bustina, metala, harria, bolia, hezurra, beira, etab.) landuko zituen artisaua, bere eskuekin inguru soziokulturaleko munduaren ikusera aditzera emateko, zeina oinarritzen bait zen, antza, erlijiozko eta adimenduzko askatasunean (...).

Hiri-zibilizazio aurreratu hau II. milakadaren erdialdera iraungi zen antza. Katastrofe naturalak aipatu izan dira desagertze horren kausa bezala; baina, dirudienez, ariarren inbasioak izan ziren, Indo ibaiaren ertzetan jasotako hirien joritasunari askena jarri ziotenak".

(L. MONREAL Y TEJADA, 1986)

L. Monreal y Tejada, Artearen historilaria da, eta bere barruti horretatik dituen ardura eta interesak erakusten dizkigu: arte-historilariak lehen-historia egin ahal izateko topatzen dituen zailtasunak gogoratzen zaizkigu. Izan ere, gehienetan gertatu ohi denaren alderantziz, Indiako kasuan, literatura badugunetan ere artelanak galdu egin bait zaizkigu.

Ikus "Historia/1" liburuak dioena: 76 eta 77, orr., eta Indiako geografiaz zerbait nahi balitz, berriz: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 377-379. orr.

EGJTEKOAK

- a) Zer dakizu, Mohenjo-Daro eta Harappako kulturei buruz? Koka itzazu Indiako mapa batean.
- b) Eman ardatz kronologiko batean, Indiako Penintsulan azaldu diren kultura eta zibilizazioak.
- c) Antza denez, K.a. 3. milakadan gailurrean zegoen kultura hura; Mementu berean beste kultura edo inperio aipagarriarik aurkitzen al duzu? Non?
- d) Bila hiztegi entziklopediko batean ariarrak zeintzu ziren eta nondik zetuzen.
- e) Bai al dakizu zer den "zibilizazio hidrauliko"ak: saia zaituz honrelakoen ezaugarriren bat azaltzen.

ERANTZUTEKOAK

- a) Inakur agiria, eta erantzun: klase-diferentziarik ikusten al duzu Indoko gizarte hartan?
- b) Ur-garraiio sistema onak izateak zein organizazio-maila suposatzen zuen? (Estatuak, giza-taldeak, produkzio-iharduerak, etab.).
- c) Nola laburtuko zenituzke kultura horien ezaugarriak?
- d) Zergatik hondatu zen zibilizazio hura? Ematen diren arazoien artean, zein da logikoena?
- e) Zergatik gertatu ziren ariarren inbasioak: zein teknika berri zekarren?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Indiako lurraldeetan, K.a. II. milakadan gertatutako inbasioaren berri ematen digu testu honek, hortik sortuko den kulturaren ezaugarriak agertuz. Indiaren antzinako erroetara garamatza historilari honek, gaur egun gure irudimenetan ikusten dugun India horren hasierara bertara.

"Indo-ko zibilizazioa ariarren migrazioen kausas hondatu zen. 'Arya' hitzetik datorkie herri horiei izena, sanskritoz 'noblea' esan nahi bait du, eta India eta Iran-en kokatutako adar indoeuropar desberdinen arbaso komunak izendatzeko erabili zen. Bigarren milakadaren erdialdera, Mohenjo-Daro-ko zibilizazioa hondatu zuten ariarrok eta Indo-aldea basterturik geldituko da Ganges-en faboretan.

Kultura berri honetan kontrast egiten du idatzitako agirien ugartitasunak material arkeologiko eta artistikoen urritasun erabatekoarekin. Sanskrito hizkuntzan **Veda**-k liburu santuak (**Rig Veda** K.a. XI-X. mendeetakoa da) eta epopeiak (hala nola Mahabharata eta Ramayana) idasten diren bitartean, gerakin materialak ez dira ugaltzen K.a. 750 alderarte. Agiri-falta honen arrazoitsat eman izan da, ia egurra besterik ez zeukatela erabiltzerik eta horregatik galdu direla astarnak".

(L. MONREAL Y TEJADA, 1986)

L. Monreal y Tejada, Artearen historilaria da, eta bere barruti horretatik dituen ardura eta interesak erakusten dizkigu: arte-historilariak lehen-historia egin ahal izateko topatzen dituen zailtasunak gogoratzen zaizkigu. Izan ere, gehienetan gertatu ohi denaren alderantziz, Indiako kasuan, literatura badugunetan ere, artelanak galdu egin bait zaizkigu.

Indiako zibilizazioaren ezaugarriak: "Historia/1": 75-79. orr. Begira itzazu, gainera: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 377-387. orrialdeetan argibide orokorrak.

EGJTEKOAK

- a) Herri indoeuroparren zabalkundearen mapa bat egizu.
- b) Indiako mapa batean ariarren inbasio-aurreko kulturak koka, eta indoeuroparrek dakarten aldaketa azaldu.
- c) Hizkuntza indoeuropar garrantzitsuenen zerrenda bat egin.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein aldaketa ekarri zuten ariarrek?
- b) Nolako ekonomia mota nagusitu zen Indiako lurraldeetan?
- c) Zer da hinduismoa? Zer dira Veda-k eta epopeiak? Ezagutzen al duzu beste kulturaren batean antzekorik?
- d) Zer da kasta-sistema? Zein da kasten funtzioa, zure ustez? Ezagutzen al duzu unizeko beste adibiderik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

c. -1.000/1950

Hinduismoaren sinestunak eta jarraitzaileak talde handia dira, baina munduan duen kokapen geografiko hain zehazki mugatuarekin lotzen badugu, ulertuko dugu beraren nortasun hain egina. Fenomeno hinduistaren ezaugarri bitxi eta behinenak biltzen ditu autore honek pasarte honetan; baina, ulergarriagoak gerta daitezten, Mendebaldeko kulturako datu ezagunagoekin alderatuz.

"Alderdi askotatik fenomeno bakarra da hinduismoa erlijioen historian. Egia esan, hinduismoa erlijio denik ere ez dago ia esaterik, hits horrek duen esanahi arruntean behintzat. Erlijio gehienek egiten dutenaren alderantziz, hinduismoak ez dio jainko kontzeptuari halako garrantzi apartekorik ematen. Hinduismoa ez da teologi sistema bat, ez bait du jainkotasunari buruz ezer dogmatikorik baieztatzen. Eta hala ere, jendea nahastekoa ere badena, jainko askoren gurtzaile bezala ere agertzen dira sarritan hinduistak, nahiz eta gehienek, askenburuko errealitate singular bezala, jainko bakarragan sinetsi. Hinduistak ez dute pertsona jakinik ohoresten beren profeta edo fundatzaile bezala. Liburu jakinik ere ez daukate autoritate absolutuzko liburutzat. Areago oraindik, hinduismoak ez du jotzen obligaziozkotsat inolako praktika erlijiosorik, eta dogma-izaerarik ere ez dio ezein doktrinari ematen. Kode moral jakinik ere ez da hinduismoa. Erlijio bezala, hinduismoak ez du adierazten ideia jakin edo batasun-emailerik. (...) Eta hala ere ehundaka urtetan, ongi definitutako unitate erlijioso bezala mantendu izan da hinduismoa. (...)

Ezin daiteke esan, beraz, hinduismoak inolako definizio teologikorik, egiastapen soziologikorik edo karakterizazio juridikorik erantzuten dionik".

(R.N. DANDEKAR, 1973)

R.N. Dandekar, Indiako Poona-n irakaslea da. Hinduismoari buruz laburpen irakurgarriak argitara izan ditu. Fenomeno erlijiosoak, bere ikuspegi etnografiko, historiko nahiz soziologikoetan ezagutzeko interesgarriak dira Dandekar-en lanen antzekoak. Ikus, adibidez, BBB edo UBirako, C.J. BLEEKER; G. WIDENGREN (1973): "Historia Religionum". Madrid: Ed. Cristiandad (Erlijioen Historiarako eskuliburua).

"Historia/1"ean aurki dezakezu Indiaz zerbait: 75-79. orr. Eta, orobat: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 377-386, 395. orr.

EGJTEKOAK

- a) Mapa batean Hinduismoaren hedapena erakutsi: Non kokatzen da, batez ere?
- b) Zein izan zen Hinduismoaren profeta nagusia: bila beharrezko argibideak.
- c) Testuak diotenari jarraituz, zein ezberdintasun nabari ikusten duzu hinduismoaren eta beste erlijioen artean (batez ere, zuk gehiago ezagutzen dituzunekin gonbaratuz).
- d) Herrialde hinduisten barnean, erlijioak noraino gidatzen ditu eguneroko portaerak (janariak, jatorduak, jantziak, gonputz-garbitasuna, etab.).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da "dogmatikoa" izatea? Zer esan nahi du testuan?
- b) Oso aberatsa da erlijio hau, bariante asko izan ditu. Zergatik?
- c) Zure ustetan, Hinduismoak zergatik iraun du honenbeste?
- d) Zein erlijio ezagutzen dituzu liburu batean oinarritzen direnak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

c. -750/1950

Kultura guztietan eta edozein denboratan, erlijioek garrantzi handia izan dute gizarteetan. Baina testu historiografiko honetan India-ren kasua aztertzen da; hain zuzen Indiako Estatua fenomeno historiko horren adibiderik onenetakoa da. Erlijio asko ezagutu ditu Indiak (Hinduismoa, Budismoa, Jainismoa, Islama, etab.), eta bakoitzak gizarte-modu bat eratu du. Hala ere, Hinduismoa da zabalduena eta errotuena. Sinestunen komunitate hauek beren eraikinak jaso dituzte.

"Tenpluko zerbitzuak eta biztanle ugarien premiek, zeregin bakoitzerako eraikin egokiak egitea eskatzen zuten, esparruen barruan. Horregatik santutegiak berak ematen du hiriaren mota edo eredu. Horren antzera egingo da jauregia, erregearen tronua bere altzoan izango duen nukleo zentral batekin, erregea gauza askotan jainkoaren parekotsat jotzen da eta.

Tenpluak eta jauregiak oso handi-zabalak izaten ziren, eta aberastasun handiak behar zituzten eduki beren zerbitzuan zegoen jendetsak mantentzeko. Baiki, edozein tenpluren baliakizunak ehundaka herrirenak eta hedadura handiko labore-lurretakoak bezain handiak izaten ziren.

Ideal erlijioso baten nagusitasunak eta horrenbeste handiko obrek berek galdatzen zuten lanok kolektibo eta anonimo izatea, denbora arrunt luzea behar bait zuten eginak izateko.

Beren inspirazio teologiko eta kosmologikoak ematen die batasuna Indiako monumentu gustiei; batasun hori plan baten zorrotasunean eta, zehatzago, galdakizun ikonografikoetan ematen da agertzera. Beraz, arte kanonikoa da, hitzaren esanahi zabalean, eta horregatik biziro unitarioa".

(L. MONREAL Y TEJADA, 1986)

Barcelonako katedraduna den Monreal y Tejadak, azken hamarkadetan Arte-historilariak ohi duten gisara heltzen dio artelanen azterketari: gizartetik ere begiratuta, alegia. Izan ere, artelanen balioa eta esanahiak ezin bait dira sakonean ulertu, sortu dituen gizarte-loturetatik kanpo.

Indiari buruzko argibideak. "Historia/1": 75-79. orr., eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 377-387, 395. orr.

EGITEKOAK

- a) Zer dakizu Indiaz, edo hango erlijioez? Bila itzazu dokumentazioa eta entziklopedietako artikuluru orokorrak.
- b) Entziklopediaren batean tenploei buruzko datu gehiago bila: hiri-antolamendua, piramideen esanahia, erliebeetako gaiak, etab.
- c) Tenplu indiar baten eta zuk ezagutzen duzun elizaren baten gonbarazioa egizu.
- d) Aipa itzazu tenplu famatuena, eta koka mapa batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nortzuek mantentzen dute tenpluetan lanean ari den jendetza?
- b) "Arte kanonikoa" aipatzean, zer esan nahi izaten da horrekin?
- c) Zer da ikonografia? Nolakoa erabiltzen da Indiako tenpluetan?
- d) Nola ulertzen duzu erliebeen betekizun didaktikoa?
- e) Bai al dago gure artean halako lan kolektiborik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-XV/X. mend.

P. Demiéville eta Y. Hervouet ikertzaileak, egun-egungo testu-zati honetan, Txinako literaturari buruz ari dira. Literatura idatziaren eta Historiariaren artean dauden zerikusiak gogoratzen dituzte: Txinak Historiografia handi bat sortu zuen, zentzuren batean paregabea, gainera. Bai Mendebaldean eta bai Txinan, antzinetatik datoz literatura idatziaren iturriak: bata Kristautasunaren aurrekoa da, eta bestea K.a. 500. urte ingurukoa, Konfuzio-rengandik hasita.

"Antzinako munduan Mendebaldea eta Txina bakarrik izan dira historiaren eta filologiaren sentsua izan dutenak; Indiak ez du horrelakorik izan eta Asiako enparaduak ere ez. Disziplina horiek, berriz, gure literaturan baino garrantzi handiagoa izan dute haiegan. Hogei mende dira, Txinan testuen kritika praktikatzeko delako, Alexandriakoa bezalako liburutegietan, eta tradizio historiografiko bat eratu zela; inongo gizarteren iraganaldiaz dagoen dokumentazio jarraituena sortu du. Egia da, burokratizatu egin dela tradizio hori eta, bereziki Tang-darren garaian hona, historia ofiziala funtzionarien eskuetan erori dela eta hauek ez direla arduratu erabilitako dokumentuei bizitasunik ematen, edota, dokumentu horiek aukeratzeko eta interpretatzeko aritu direnean ere, ez dutela jakin behar bezala beren klaseko eta beren garaiko aurreritziak ginetik jartzeko; eta historia ezeze literatura osoa izan da Txinan Mendebaldean baino inpersonalagoa".

(P. DEMIEVILLE; Y. HERVOUET, 1979)

Demiéville eta Hervouet irakasle frantsesak dira, biak; lehenengoa, ikastun ezaguna da batez ere Frantzia, aspaldidanik argitara emandako lanengatik. Txinako Literaturaren ezagutzaile hauek, historilari guztiei biziki interesatzen zaien arlo baten aurrean jartzen gaituzte: Historiografiaren jaiotza, arazo eta garapenarekiko galderen aurrean.

"Historia/1"ean ikus ditzakezu Txinari buruzko argibideak: 80-84. orr. Besterik behar bazenu, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 336-340. orr.

EGITEKOAK

- a) Bi mundu geografiko eta kultural kontrajartzen zaizkigu agirian: Egizu Eurasiako mapa bat. Non jaio zen Historia?
- b) Hiztegi batez baliatuz, azter kontzeptu hauek: Historia, Filologia, Historiografia.
- c) Jaso ezazu berriren bat Alexandriako liburutegiari buruz. Non dago Alexandria? Lehen egin dituzun mapez balia zintezke hori adierazteko.
- d) Andatz kronologiko batean emazu Txinako dinastia handien zerrenda. Noizkoak dira Tang-tarrak?

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz eta non hasi ziren Mendebaldean lehen histori saiakerak? Eta Txinan?
- b) Non oinarritu da Mendebaldeko eta Txinako historiaren eta filologiaren zentzua? (Erljioa, politika, hizkuntza, ekonomia...)
- c) Norik sortu zuen Alexandriako liburutegia? Nortzu izan ziren haren lehenengo zuzendariak?
- d) Zer esan nahi du historiografia "burokratizatu" egin zela esateak?
- e) Zer ulertzen duzu "Historia" disziplinaz? Zertarako balio du jakintza honek? Zein balio emango zenioke Historia ofizial bati?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Braudel historilariak ematen digun pasarte honetan, autore ezagun honek azterketa historikoan beti kezkatu duen zerbait gogoratzen du, hau da: denboran zehar fenomeno historikoek duen iraunkortasun ezberdina. Gertaera politikoak ez dira, gehienetan, hain iraunkorrak izaten, baina salbuespenik ere topa liteke: Hauxe da Txinako Enperadoregoaren kasua.

"Enperadoregoaren instituzioa K.a. 221etik K.o. 1911-1912raino hedatzen da, orduan erori bait zen mantxutarren dinastia, Qing-tarrrena ere deitzen dena (1644-1911). Enperadoregoa 'iraupen luzeko' berezitasuna da, beraz: ehundaka urtetan Txinaren historia bere inguruan jiraka izan duen ardatza. Horrela ulertzen da historilari eta filosofo txinarrak, erakunde monarkikoaren iraupena eta legitimitatea aspimarratzeko daukaten ardurua, baita ordena artifizial eta atzekoz aurrerako bat jarri behar badute ere, historiak berak behar hainbatekorik jarri ez duenean. Eta ez alferrik, ze ordena inperial hau Txinan ez bait da giza mailako ordena eta bai ordena erlijioso bat, goi-naturasko baloreetan oinarrituta dagoena.

Gizarte-ordena eta goi-naturasko ordena oihal beraren aurrekalde eta aspikaldea dira: Enperadoreak egiten duena denboraskoa eta sakratua da aldiberean. Haren egintsak ez dira inoiz osoro laikoak.

Enperadoreak, beraz, bai goi-naturasko ordena eta bai munduko naturaskoa zaintzen ditu, orekagune bat mantentzen du mundu bi-koitz horretan; horren egitekoa da, bai funtzionariak isendatzea, bai templuen hierarkia erabakitzea, edo 'jainkotutako jakintsu' jakin bati isena ematea, edo laborantzako lanen hasiera errituala jarburutzea, udaberri-festakoan goldeaz lehenengo goldatza eginez..."

(F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel (1902-1985), Frantziako historilari askoren benetako maisua izan da, eta "Annales" aldizkari famatuaren zuzendaria. XVI. mendeko Mediterraneoa aztertu zuenetik, bere sintesi-gogoia zabalduz eta zabalduz joan da, munduko zibilizazio handi guztien azalpen bildu-trinkoak eskainiz.

"Historia/1": 80-84. orrialdeetan ikus ditzakezu Txinari buruzko argibideak. Orobat, beste hainbat albiste: "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: 341-346 eta 360-367. orr.

EGITTEKOAK

- a) *Ikus Atlas historiko batean K.a. 221etik K.o. 1911-12raino Txinako lurraldeek zein gorabehera izan zituzten.*
- b) *Begira Historia kronologiko batean K.a. 221etik K.o. 1912raino Txinan gertatu ziren aldakuntza politiko garrantzitsuenak.*
- c) *Ikus Historiako hiztegi batean "Enperadoregoa" hitza, eta aldera ezazu testuan ematen den definizioarekin.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Zergatik kontsideratzen da Enperadoregoa Txinaren historiaren ardatza?*
- b) *Enperadoregoaren ordena zertan zegoen oinarriturik, eta zeintzuk ziren haren betekizunak?*
- c) *Zer zegoen Enperadoreari ordenamendu horretan?*
- d) *Zein da testuarer: pentsamendua bere osoan?*
- e) *Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-81, c. 1870, 1974

Konfuziok (K.a. c. 551-479) eta bere eskolak Txinan sortutako doktrina filosofiko eta moralari buruzko hiru zati labur ditugu dokumentu historiko hauetan. Garai ezberdinetakoak dira eritziok, eta elkarren kontrakoak. Lehenengoan, Estatuaren monopolio berriak (gatza, burdina) salatzen ditu, artisau edo merkatarien ahotsa izan litekeen batek. Bigarrenak (c. 1870), Txina eraso den urteetan, jatorrizko tradizioari heldu nahi dio. Azkena, iraultza maoistakoa da.

"Historiak frogatu du, ezen konfuziotarrak ez direla inoiz gauza izan beren herrialdearen segurtasuna gordetzeko eta beren printzea errespetarasteko. Atzeratu hauek, bertutean iharduteak burulausoturik, eta akats garaikideak salatze antzua beste atseginik ez dutela, perlesiak jota gelditu dira ekintzarako".

(*Gatzari eta burdinari buruzko estabaida, K.a. 81*)

"Konfuzioren bidea gizonaren bidea da. Gizadiak luzeena irauten duela ere, aldatu gabe iraugo du Bide horrek".

(WANG DAO, c. 1870)

"Konfuzioren irakatsiaren eragina gure izpirituetatik ezabatsen bada, begiak ondo zabaltzen baditugu, berandu baino lehen maskaragabetu eta borrokatuko genuke edozein arribista gorazale, nahiz eta berau, Konfuzioren irakatsiaren laguntzarekin, historiaren gorpila atzera-biraka jartzeko konplotak asmatzen hasi".

(*Beijing Informa, 1974*)

Zaila da mendebaldar batentzat, Konfuziok Txinan, Filosofian ezezik politikan, pentsamoldeetan edo eguneroko bizitzan izan duen itzala ulertzea. Baina pentsamendu haren aurkako pentsalari edo politikaririk ere izan da, eta azken bi mende hauetan ugariago, gainera. Iraultza maoistaren ondoren ere, tradizio konfuziotarrarekiko jarrera ezberdinak ezagutu dira.

Konfuzianismoa eta Txinako bestelako pentsamenduak zabalago aztertzeke, ikus: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 350-358. orr. Txinaren Antzinatea: "Historia/1" liburuan: 80-83. orr. Eta azken mendean: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 344-346, 359-476. orr.

EGJTEKOAK

- a) Labur itzazu: 1) Agiri bakoitzeko ideiak, eta 2) Berorien garaiko Txinaren historia.
- b) Zer dakizu Konfuzianismoaz? Zer Budismo eta Taoismoaz? Bila ezazu entziklopedietan argibiderik.
- c) Hiru zutabetan erlaziona itzazu aipatutako hiru doktrina horien ezaugarri garrantzitsuenak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein dago Konfuzioren alde eta zein kontra? Zergatik?
- b) Zein zatirekin gelditzen zara zu? Zergatik?
- c) Zer eritzi duzu Txinako eta, orokorri, Ekialdeko doktrinez? Ados al zaude?
- d) Garai bakoitzeko egoera historikoak argi ote ditzake dokumentuetako eritziak? Arrazoiu ezazu erantzuna.
- e) Azter ezazu esaldi hau: "printzeak printze izan behar du; menpekuak, menpeko; aitak, aita; semeak, seme". Zer esan nahi du horrek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XI-XIII. mend.

X-XIII. mendeetan Txinak pisuzko aldakuntza tekniko-ekonomikoak ezagutu zituen. Horien ondorioz merkataritzak bizi izan zuen arrakasta handiaren-gatik, Txinako gizartearen ezaugarri orokorrak aldatu egin ziren. Klase garatuago honen gain indarberritutako fiskalitateak Estatu-egiturak ere azkartu egin zituen.

"Itsas-zabaleko jonko handia, esperientzia eta aurkikuntza tekniko askoren fruitu izan zen (hala nola, korasta-lemak, aingura, konpartimendu estankoak, tormua, bela-sistema, itsas busola, ehun eta gehiago urte Europan 1200 inguruan agertu aurretik erabiltzen zena). Eta jonko horixe dago Txinak, Hego-Eki Asiar eta Ozeano Indikoan izan zuen merkatal zabalkunde baten hasieran; eta garapen hau ez da geldituko XV. mendean ondotxo sartu arte. Merkatal ihardueren garapena, zatiski itsas tekniken aurrerapenei eta Yangzi ibaiaren arroko kanal-sistemaren hedakuntzari esker lortu zena, asko faboratu zuen pagabideen ugaltzeak (adibidez, kobre urtusko txanpon-mordo handiak eta Japonia eta Hego-Eki Asiar esportatu zirenak, eta 'asignatu' en zabalkundea zeintzuen lehenengo jaulkipenak 1024ean Sichuan-en egin bait ziren, eta merkatal efektuak, etab.) eta laborantzaren aurrerapenak (arroz-mota jarkikorrako eta goiztarragoak inportatu ziren Champa-tik, Vietnam-eko Hego-Ekialdeko kostaldeetatik alegia; lur berriak irabazi ziren lakuen er-tzetatik; XIII. mendearen azken aldera kotoi-laborantzari ekingo zaio eta Egiptotik etorritako sorgo-laboreei ere bai). (...)

Aurrerapen teknikoak nabariak dira arlo gustietan: bolboraren lehen usaera militarra 1000. urte inguruan aipatzen da; lehenengo ur-erloju ihes-gurpilduna Kaifeng-en egin zen 1088an, odometro bat 1027an, pedalez eragindako barku errodadunak agertzen dira itsas guduetan (...).

Baina bates ere wilografozko inprimategiaren hedatzea (...).

Lehenengo argitaraldi handiak X. mendean datatuak daude, eta inprimatutako obrak biziro ugaltzen dira XI. mendetik hona".

(J. GERNET, 1979)

B.J. Gernet oraingo historilari frantsesa da, eta Txinako historiaz dihardu bere lanetan, izan ere Ekialde Urrunean bizi eta lanegina bait da. Argitara eman dituen lanetan Txinako historia ekonomiko erdiarotarra (1956) eta eguneroko bizimoduak (1959) eskaini dizkigu Gernet-ek. Gaur egun Pariseko Letretako Fakultatean ari da irakasle bezala.

Arazo hauetaz albisteak biltzeko, ik.: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 347-349 eta 448. orr. Aurrerapen tekniko haien zenbait ondorio: liburu berean, 448. or., eta Garapen tekniko-ekonomiko hauei buruz ik.: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 182. or.

EGITEKOAK

- a) Atlas bat kontsultatuz, egizu Asiako mapa bat: Eman hor, agiriari agertzen diren aipamen geografikoak. Non kokatzen dira Txinako ekonomiaren gune garrantzitsuenak?
- b) Begira itzazu hiztegi batean, agiriari agertzen diren amakuntzen esanahiak.
- c) Mendebaldeko Europak ere izan zituen inoiz antzeko aldakuntza tekniko-ekonomikoak: Noiz? Zeintzu izan ziren?
- d) Agirian, lur berriak irabazteaz ere ari da agiria: Ezagutzen al duzu Europan, antzeko adibiderik?

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz gertatu ziren Txinaren aldakuntza tekniko-ekonomikoak?
- b) Zein arlotan nabaritzen dira bereziki aldakuntza horiek; zehaztu ahal dizuna.
- c) Zein dinastiatan gertatu ziren aldakuntza haiek?
- d) Nondik norra hedatu ziren Txinako merkatal harremanak.
- e) Zer da "asignatu" a?
- f) Konpara itzazu agiriari agertzen diren mendeetako Txinako egoera eta Europakoa.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIII-XIV. mend.

Txina erabat isolatu baten ideia, edo europarrak XVI. menderarte Ekialde Urrunera ez zirela iritsi dioen ustea ez dira zuzenak. Erdi Aroak ezagutu zuen Asia Urruneraino joandako hainbat bidaiari. Mendebaldeak izan zuen ekialde hartaz interesik, fedeak edo jakin-min hutsak zirikatuta.

"Mongoliarrek Asiako zatirik handiena, politikoki bateratzean, irekita gelditu ziren Txina eta Eki Asia urrutieneko eginetara, eta ireki ere Han-darren eta Tang-darren espantsioek inoiz egin zuten baino areago. Nasio gustietako bidaiariek kurritzen dute Eurasiako kontinentea XIII. mende-erditik XIV. mende-erdira bitartean. Sona eta memoriak utzi dituztenen artean batsuk aipatuko ditugu: Joanes Pian Carpino (1245), Gilen Rubruck (1253), eta Aita Santu Klemente V.ak Pekin-eko artzapezpiku izendatutako Joanes Monte Corvino (1307) eta Odorico de Pordenone fraide frantziskotarrak (1316-1329 inguruan); Marco Polo merkatari veneziarra, (1272-tik 1292ra bitartean Eki Asian), Tangerang-eko Ibn Battuta (1345aren inguruan). Kristautasun erromatarra mongoliarren garaian garatu zen lehenengoz Mongolian eta Pekin-en, baina lehendabiziko kontaktu hauek ez dute arrasto iraunkorrik utziko eta ezezagunak geldituko dira itsasoz XVI. mende-bukaeratik hona helduko diren lehen misiolari jesuitentzat". (J. GERNET, 1979)

B.J. Gernet oraingo historilari frantsesa da, eta Txinako historiak dihardu bere lanetan, izan ere Ekialde Urrunean bizi eta lanegina bait da. Argitaratu eman dituen lanetan Txinako historia ekonomiko erdiarotarra (1956) eta eguneroko bizimoduak (1959) eskaini dizkigu Gernet-ek. Gaur egun Pariseko Letretako Fakultatean ari da irakasle bezala.

Begira "Mendez Mende. Aro Modernoa": 182. or., eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 341-344, 347-349, 350-359. orr. eta "Historia/1": 81-84. orr.

EGITEKOAK

- a) Seinala itzazu Txinako mapa batean hango probintzia eta hiriburuak.
- b) Esasu Han-darren (K.a. 206 - K.o. 220) eta Tang-darren (618-907) dinastiei buruz dakizuna.
- c) Bila itzazu testu liburu batean Erdi Aroko txinarren ekarpen tekniko garrantzitsuenak (asmakuntzak etab.). Egizu beroriekin lauki kronologiko bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira Txinako erlijio-moldeak?
- b) Zer da Budismoari buruz dakizuna?
- c) Nor izan zen Konfuzio? Zertan laburtzen da haren doktrina?
- d) Zer adierazi nahi da Txinan sinkretismo erlijioso bat mamitu zela esatean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Pasarte honetan Kreta irlako zibilizazio minoikoaz hitz egiten da, garapen ekonomikoari esker lorturiko bizimodu lasai eta baketsua agirian jarritz. Ekonomia honen ezaugarriak ere azaltzen dizkigu historilariak. Ez da ahantzi behar zibilizazioen topalekua gertatu zen Mediterraneoaren ekialdean dagoela Kreta, hain zuzen Grezia eta Fenizia, Egipto eta Asia Txikiaren artean.

"Kreta-k inondik ere nahikoa seguru ikusten zuen bere burua, bai irla izategatik eta bai itsasoan zuen garrantziagatik. Hango jauziregiek eta hirigumeeek adierasten digute irlaren zatiketa politikoa. Ehundaka urtetan databestearen ondoan garatu ziren elkarren artean inolako etsaigorik eta borrokarik gabe. Kretako baliakizunak eta joritasun komertzialak gustiei segurtatzen zieten bizimodu lasai eta baketsua, eta horrek esplikatzeko dituzten zibilizazio minoikoaren berariskotasun nabari batzuk: hala nola, konfort-zaletasuna, eder-, luxu-, eta festa-zaletasuna, bizipoza. 1700 eta 1500 bitartean Knoso besteak baino garrantzi handiagokoa bada ere, ez dirudi irlako enparadua bere menpean duenik eta, beraz, ez dago 'Minos-ko inperio'az hitz egiterik, hitzaren zentzu politikoan. Dinastia akaiarrarekin hasi zen botere-zentralizazioa eta gainerako jauregien beherakada edo desagertzea.

Gizarte jauregitar hauetako ekonomiaren ezaugarria baliakizun guztiak subiranoaren egoitzan kontzentratuak egotea da: bai bere lursailletako produktuak, eta bai zerga-modu desberdinetatik ateratakoak. Knoso-ren pertsonal ugaria bizi zen erregearen inguruan, administrazio nahikoa konplexu baten zerbitzuan. Bulegetan, izkribauak, jauregian bildutako aberastasunen inbentarioak idasten zituzten bustin-oholtzatari eta idatzi ere, artxiboetarako eta erret aktetarako erreserbatuak idazkera batean".

(J. GABRIEL-LEROUX, 1974)

J. Gabriel-Lerroux, Mediterraneoeko Lehen Zibilizazioen historilaria da, frantsesa bera, eta ekialde mediterraneareko itsas hegemoniak deskribatu eta alderatu ditu bere lanetan. Hemengo hau bere "Les premières Civilisations de la Méditerranée" obratik hartu diogu (Paris, 1974).

Zibilizazio Minoikoa eta Greziaren hastapenak aztertzeko begira "Historia/1" liburua: 90-91. orr.; "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ik. arkeologiaz esaten dena: 148-151. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas Historiko bat kontsultatuz, egizu Mediterraneo Ekialdeko mapa bat, Kretako irla bere lekuan kokatuz, eta inguruko herri itsastarrak ere bai.
- b) Lekutu mapan Faisto, Knosso, Malia eta Haggia Triada-ko jauregiak.
- c) Har ezazu Atlasa, eta, gaur egungo Kretako mapa bat aztertuz, jarri egungo hiri garrantzitsuenak.
- d) "Historia/1" liburuan nahiz agiritegiko beste dokumentuetan, entziklopedia edo beste Histori liburuetan sakondu beharko duzu laburpen bat egiteko, ezaugarri ekonomikoak, politikoak eta kulturalak bereiziz.
- e) Kretako merkatal intenbideak eraman itzazu mapara, herrialdeak eta trukatzen ziren produktuak izendatuz.
- f) Kretako jauregien aztarnak eta artea aztertzeko komenigarria litzateke diapositiba eta arte-liburuak begiztatzea.
- g) Antzinako Kretarekiko jakingururik baduzu, Mika Waltari-ren "Sinuhe egyptiarra" eleberrian topa dezakezu haren deskribapen aparta, 204-230. orrialdeetan.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeri esaten zaio Zibilizazio Minoikoa? Zergatik?
- b) Noiz arte iraun zuen? Zergatik desagertu zen?
- c) Zein kulturaren eragina jasan zuen Kretak?
- d) Definitu: Talasokrazia, hegemonia.
- e) Nortzu izan ziren akaiarrak?
- f) Norik eramatan zuen ekonomiaren kontrola? Nola? Zertaz baliatzen zen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

-VIII/-VI. mend.

Greziatik egindako lehenengo kolonizazioak batez ere bertako superpopulamendu baten ondorioz burutu ziren. Ondokoeak, ordea, kolonizazio haiek irekitako bide eta hartutako lekuetan merkatal sare bat sortu zuten, eta merkatalgo horren interesen arabera jokatu zuten.

"Kolonizazio hitza ezinenez inola ere onartu bere esanahi zuzenean, barne-itsasoko beste herriek (Mediterraneokoeak, alegia) Penintsulako arbaso protohistorikoekin (lehen-historikoekin) izan zituzten harremanak adierazteko, zeren eta harremana merkataritzako eta gerrako gurarietatik sortua zen, eta ez indigenen bizimaila material edo izpirituala hobetzeko asmoz. Merkatariek salerosle bezala iharduten zuten, eta haien kezka zen, han beren herrialdearen nagusitasuna lortzea, eta hori, ez beren aberriko kultura edo izpiritua beste herri batzuei eramatearren, bai ordea merkatuak segurtatzeko asmoz. Merkatuok, bestalde, nonahitik ekarritako gauzak hornitzen zituzten, aski zen horiek erosten gustoko izatea. Merkatarien kezka ez zen gehiagotara iristen, eta beraz ez dago horiek benetako kolonizatzaile bezala hartzerik... Harreman luze eta usua behar izan zen gustu berriak eta arte-buruera berriak sortzeko. Aldaketa honetan, berriz, eragin handiagoa izan zuten merkatariek saltzen zituzten purtzileriek, lurralde haietako jendearen bizimodua hobetzeko merkatariek eta gerlariek zuten borondate on eta gogoak baino".

(D. FLETCHER, 1960)

Fletcher historilariak, batez ere kolonializazio greziarra bere periferiatik begiratu du Penintsula Iberiarraren historia azaltzean, eta interes materialen eraginez, herriarteko harremanak nola bizkortu ziren deskribatzen du.

Begira ezazu "Historia/1": 94-95. orr. Nahi izanez gero, "Mendez Mende. Aro Modernoa"n eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n badaukazu beste kolonizazio batzuk, Amerika, Afrika edo Asian europarrek gidatuak.

EGITEKOAK

- a) Begira ezazu hiztegi batean "kolonizazio" hitza. Idatz, zure gisara, esanahi ezberdinak.
- b) Azter itzazu zeintzuk izan ziren kolonizazio greziarra sustatu zuten faktoreak? Noiz gertatu ziren batez ere?
- c) Kolonizazio greziarrak itsas baretik bideratu ziren gehienbat. Nolakoa zen momentu hartako nabigazioa? Nolakoak untzia (MM/MA: 186-187. orr.).
- d) Egizu Mediterraneo-inguruko lurraldeen mapa, eta koka itzazu beren lekumenduetan greziarrek sortutako koloniak.
- e) Merkatariak baldin baziren gehienbat, zeintzuk izan ote ziren haien merkatal produktuak? Zeintzuk ziren haien ibilbideak? Egizu mapa bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Greziako ekonomian merkatalgoa izan zen sektore garrantzitsuenetarikoa bat: Zergatik? Eta beste ekonomi sektoreez zer esan zenezake?
- b) Zein ezberdintasun aurkitzen dituzu feniziarren eta greziarren merkataluen artean?
- c) Zein izan zen kultura greziararen aitzindari gertua, eta hura bezala merkatalgoan sinarritzen zenu? Ezaugarriak eman.
- d) Zein motatako "purtzileria" izan zen zabalduena? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

c. -650/-500

Hitzek beren esanahia aldatu egin izan dute Historian zehar; iragana ongi ulertzeko arriskugarria da hori, eta areago oraindik aldakuntza hori lehenengo begiratu batean berehala sumatzekoa ez bada. Honelako zerbait gertatzen zaie "tirania" eta "tirano" hitzei. Komeni da, beraz, agiri honetako hitzen adierak ongi ulertzea.

"Tiranoen alde ona, edo txarra (nola begiratsen den kontu), izan sen, beren buruak herriaren buruzagi jartzea, hiritar behartsuen egoera hobetzeko neurri politikoak ezarri ahal izateko. Neurri horien artean ondoko hauek daude: 1) Lur-banakera berria egin; 2) Esklabu berriak kanpotik ekartzea debekatu; 3) Lurrei buruzko hipotekatan eta zorreatatik esklabu hartzean gehiegikeriak debekatu; 4) Erregadio-obrak, murruiak, tenpluak eta, egungo beste hitzetan esanez, herri-lanesko programa bat antolatu hiriko langileen mesedetan; 5) Nazio-hedadurako festa erlijiosoak sustatu, hiritar zerimonia zaharren ordez, klase pribilegiatuentzat isaten siren hauek gehien bat eta; 6) Zientziak eta arteak babestu, honek pentsalari-talde sortu-berriaren faborea erakarri zuen herri-kausara, eta 7) Tribu tradizionalak ahuldu, hauen medios gordetzen zuten botere politikoa klase tradizionalak eta... Tiranoek, bada, lagundu egin zuten, bai gobernu demokratizatzen, eta bai kulturgintza-aren ateak, gizaki arruntentzat luzaro itxita egon sirenak, hiritarren gehiengoarentzat zabaltzen".

(R. TURNER, 1963)

Turner historilariak zibilizazioen sintesi handiak eskaini izan dizkigu, eta mundu klasikoaz ere arduratu izan da. Hemen, hain zuzen, Greziako tirania haietaz eman digun pasarte bat aurkeratu diogu.

Begira "Historia/1" liburuan, Greziaz esaten dena: 96-97. orr.

EGJTEKOAK

- a) Greziako tiranoek hartu zituzten neurri politikoen eskema egizu: tes-tuan agertzen direnak nahiz "Historia/1"ean jasotakoak.
- b) Familian edo herrian badituzu, noski, Primo de Rivera edo Franco-ren diktadurak ezagututakoak: galde iezaiezu zein motatako gobernuerak zi-ren. Lauki batean bildu, alde eta kontra esaten dizkizutenak.

ERANTZUTEKOAK

- a) "Tirano" terminoaren esanahiak eman, hiztegi batean begiratu ondoren.
- b) Tiranoak, zein maila sozialetatik zetozen?
- c) Halako egoeratan beharrezkoak al dira tirano hauek? Zure eritzia eman.
- d) Zer deitzen zaio "lege drakoniarra"?
- e) Zer da ostrazismoa? Nondik dator kio izena? Zertarako erabiltzen zen? Zenbat denbora iraun zuen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

-VI-IV. mend.

Polis-etan, iharduera ekonomiko funtsezkoena nekazaritza izanik ere, artisautzaren garrantzia areagotu egin zen Grezian merkataritzaren garapenarekin; horrela, esklabu eta metekoekin batera hiribarrak ere aurkituko ditugu artisau-lanetan.

"Artisauak baratza koskor bat ere eduki zezakeen hiri-barruan; nekazal giroko 'demos'etan hori zen inondik ere ohiturarik zabalduena. Baratza-lanak irabazpide gehigarri bat ere eman zezakeen, etxerako behar zenaz aparte baraskiak, belarrak eta gainerakoa plazan salduz. Egia esan, V. mendean ere lurra zen aberaspiderik nobleena eta hiritar gehienen lanbide nagusia; baina, hiriak merkataritzan eta nabigazioan hartu zuen garapen apartekoak eraginik, gero eta handiagoa zen artisautzaren garrantzia. Ez zen bakarrik ugaltzen ari zen populazioaren eta kanpoalde gustietatik kopuru handian etorritako atzeritar eta esklabuen premiak asetzea; ostera baizik, ontziak, txanponak eta armak behar ziren saltzeko egin, eta beraz, Pireo-ko dartsena eta ontzigintzek lanez lepo eginda zeuden. Seguruenik, artisau eta merkataritzako iharduera horren zati handi bat hiritarren eremutik kanpora zegoen. Baina oker legoke, dena meteko eta esklabuen eskutan zegoela pentsatzea".

(CL. MOSSE, 1980)

Claude Mossé historilariaren pasarte hau, autore honen aztergai aukeratuen artean dago. Izan ere, historia soziala eta, berezikiago, lanaren historia izan dira autore honek gogoz aztertu dituenak. Gaia, interesgarria da, historia ekonomikoaren aldetik begiratuta ezezik, baita lanak gizakiari hartu izan dizkion denbora eta orduengatik ere. Hemen, zehazkiago, artisauen lana gogoratzen zaigu.

Greziako ekonomia, mailaketa soziala eta funtzionamendu politikoa argitzeko begira "Historia/1": 90-103. orr.

EGJTEKOAK

- a) Grezian kolonizazioen mapa bat egin zazu. Koka mapa horretan merkatal trafikoa, bere norabide eta merkatalgaiekin.
- b) Begira Greziako arteaz diharduen irudi-liburu bat, eta aukera, zure ustez, artisauen lanak izan daitezkeenak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Non dago Pireo? Zer da?
- b) Artisauak gizon libreak al ziren? Esklaburik edukitzeko eskubiderik bai al zuten?
- c) Noiz sortu ote zen artisau-industria garatu bat Grezian?
- d) Zein zen hiritarren lanbide nagusia? Badirudi, testuak dienez, hainbat hiritar ere artisautzara emana bizi zela. Zein zerikusi izan zezakeen horrek kolonizazioekin? Eta erreforma politikoeekin?
- e) Artisautzatik kanpoko lanak, noak egiten ditu? Zer dira metekoak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

-479/-461

H. Swoboda historilariak, testu honetan, Atenaren Inperio bihurtzean Delos-eko Elkargoaren eraldaketa aztertzen du, Atenak erabiltzen dituen metodoak eta Inperiotik ateratzen duen etekin eta irabazia deskribatuz. Polis-aren egitura politikoen gain Greziak bere defentsa eta garapenerako elkargo politiko zabalagoak ere sortu zituen, baina elkargo horietan hirietako batek har zezakeen guztiaren gidaritzza, benetako politika hegemonikoa eratuz. Fenomeno hau Grezian nola gertatu zen esaten zaigu ondorengo pasarte honetan.

"Lotura estua dago demokrasiak egiten dituen aurrerapenen eta Liga atenatarra Atenaren Inperio bihurtzearen artean. Delos-en gordailatutako altzor komuna Atenara aldatu zenean, badirudi esabatu egin zela Sinodo federala ere, eta horren eskubideak Atenako herri-asanbladari eskualdatu zitzaizkiola. Gerostik lau urtez behin egiten zen zerga-bilketa, eta Atenaren onerako izaten zen. Zerga-kitatzen berandutzen ziren lagun kideak, Atenako delegatuen bisita jasotzeko arriskuan jartzten ziren, zeintzuen zerga-erreklamazioak itsas armadaren unitatez lagundurik joaten bait ziren, haiek ordaintzera behartzeko. Alderantziz, Herri-Asanbladak xedatzen zuen bildutako fondoez; baina hauek ez ziren jada konfederazioaren xedeetarako bakarrik erabiltzen, bai ordea, Atenako Estatuaren beharizanetarako ere.

Osagarritzko prestazioak egin beharrean ere aurkitzen ziren konfederatuak, hala nola lurreko gerrara soldaduak bidali eta; Ligako hirien barne-erregimena ere ez zen beti errespetatu. Horietako askotan ostatatzen ziren atenatar goardizioak eta, zenbait kasutan, magistraturen bat bidaltzen zuen Atenak, edo batsorde berezi bat ere bai, bapatean ikuskapen bat egin zezan ligakideen egoera ekonomikoarena edo gobernu lokalarena". (H. SWOBODA)

Herri guztietan eta, nahi bada, areago herri "zibilizatueta", funtsezko arazoa izaten da gizarteari erakundeztapen politikoa nola eta nolakoa eman. Swoboda historilariak ildo bereko prozesua deskribatzen du hemen, aginte politikoa eraketa Atenaren inguruan nola gertatu zen esplikatzuz.

Delos-eko Elkargoari eta Atenaren Inperioari buruzko argibideak ik.:
"Historia/1": 100-103. orr.

EGJTEKOAK

a) Greziako mapa batean Delos-eko Elkargoa osatzen zuten polis-ak beren lokitan lekutu; berdin Esparta eta beronen aliatuak ere.

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz osatu zen Delos-eko Elkargoa? Zeintzuk ziren partaideak, eta zentzarako sortu zuten?
- b) Hasierako helburuak baztertuz, nolako eraldaketa gertatu zen Elkargoan? Noren mesede edo kaltetarako?
- c) Testuak divenez, Liga Atenatarra inperio bihurtu zen. Arrazoitu baieztapen hori.
- d) Arrazoitu testu hasieran aipatzen den demokraziaren aurrerapena eta Inperioaren arteko harremana.
- e) Zeintzuk izango dira testuan deskribatzen diren egoeraren ondorioak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

-V. mend.

Tuzididek, Perikleren ezpainetan jarrita ematen digun hitzaldi honetan aurkitzen dugu Mendebaldeko historian "demokrazia"ren lehenengo aipua. Bi babilio historiko ditu agiriak: Alde batetik, Tuzidide historilariarena da, eta, bestalde, seguraski aski leiala, gainera, Perikleren pentsamenduarekin.

"Gure konstituzio politikoak ez dauka zertan inbidiarik izan inguru-herrietako legeei. Estatua herri-masaren interesetan administratsen delako, eta ez gutxi batsuen interesetan, demokrazia izendatu da gure erregimena. Arazo pribatuetan legeek segurtatsen dute berdintasuna gustientzat; baina bizitza publikoan parte hartzeari dagokionez, norberaren merituen arabera jokatzeko bakoitzak, eta gutxiago inporta du holako edo halako klasetakoa izateak, bakoitzak duen baloreak baino. Beldur osasungarri batek galarasten digu Errepublikako legeak zapaltzea. Guk magistratuei eta legeei obeditzen diegu beti.

Gure nekeak uzatzeko jokoak eta festak sortu ditugu, urtearen hasieratik askeneraino. Badakigu edertasuna bakuntasunarekin adosten eta estudio-sailetasuna adorearekin. Guretzat hitza ez da traba ekintzarako. Gure hiria, bere osoan, Greziaren eskola da".

(PERIKLEREN hitzaldia, K.a. 431)

Tuzidide, greziar historilaria, zientzia historiko arrazionalistaren sortzaileetarikotzat hartzen da. Kasik Herodoto-ren garaikoa da, baina historiaz honek zuen kontzeptuaren aurka azaldu zen. Askotan, bere pertsonaien hitzaldiak edo arengak jasotzen ditu, ohizkoa zen bezala. Haue-tarikoa dugu Perikleren hau ere. Politikari hau, hamabost alditan hautatu zuen Atenak bere buruzagitzat (-443/-429), hiriaren une ongi larrietan.

Greziari buruzko berriak "Historia/1" liburuan: 86-107. orr. aurkituko dituzu. Aro Klasikoa eta Atena-ko Demokrazia 96-102. orr.

EGJTEKOAK

- a) Eman mapan Antzinateko zibilizazio garrantzitsuenak: Grezia, polis nagusienak eta kolonizazioen puntugune gozoan hartzekoenak.
- b) Dokumentuan agentzen diren kontzeptu batzuk ondo ezagutu behar dituzu: Konstituzioa, Errepublikak, Estatuak, Magistratura, etab.
- c) Greziako polisaren bilakaera politiko eta sozio-ekonomikoa hiru izan zen: Oligarkia, Tirania, Demokrazia. Jaso lehenengo bien berri.
- d) Konpara itzazu Greziako forma politiko desberdinak, eta saia zaitez geroko Estatuetan eraginik izan duten ikusten.
- e) Egizu K.a. V. mendeko antolamendu politiko atenatarraren organigrama.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nor izan zen Perikle? Zein garaitan bizi izan zen? Atena-ko bizitza politikoa nola hartu zuen parte?
- b) Atena-ko erregimen politikoa, zergatik hartu ohi da demokraziatzat? Nortzuk hartzen zuten parte demokrazian?
- c) Nolako desberdintasunak daude sistema horren eta egungo demokrazia parlamentarioaren artean? Gaur, Atenan bezalako sistema bat eratzeko posible iruditzen al zaizu?
- d) Karguak hautatuak eta urtebetarako ziren: badu abantailarik, zure ustez, horrek? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-V. mend.

Pasarte hau, Atenako tenplu ospetsuenaz ari da, "Partenoia"ri buruz hain zuzen. Eraiki zen garaia, eraiki zuten arkitektoak, ezaugarri tekniko eta artistikoak aipatzen dira. Eta guztia Perikle eta Fidiaren bultzadari esker egin zela azpimarratzen du historilariak.

"Perikle eta Fidia-ren artean bururatutako asmoa handiegia zen gizaldi batean dena egiteko: ez batak eta ez besteak ikusi zuten dena bukatu, mendearen askenetan burutu zen eta. Hala ere bi eraikin behinik behin bukatuta zeuden --bata osoro, eta bestea zatiski--, 431n: Partenoia eta Propileoa.

Klistene-ren demokrazia Atenea-rentzako tenplua jasotzen hasi zen kokalekuan jaso zen guk Partenoia deitzen dugun 'tenplu handia'. 447 eta 438 bitartean izan zen eraikia, eta aipagarria da batipat bere neurri handiengatik --nahiz eta Asiako eta Mendebaldeko santutegi kolosalekin lehiakatzeko asmorik ez izan-- eta bere fatxada oktostiloagatik. Ez du aipu trikiagorik merezi kanpoko friso doriar bat (kolomataren ordena doriarrarekin ados dagoena), peristilopeko friso joniar batekin batzeko erabakiak. Aipagarria da, azkenik, haren arkitekto Iktino-k eta Kalikrate-k ilusio optikoak artezteko erabili zituzten errefinamendu artetsuengatik (erregulazioko ilara zertxobait konbexotua, bere kurbaezak arkitrabearen ere bere eragina duela; kanpoaldera inklinatutako kolomak; koloma mazizoagoak angeluetan).

Barnean nahikoa plan konplexua: Ekialdean 'pronaos' eta 'naos'a, Fidia-ren urre- eta bolizko Atenea distiratsiak erreinatzen zuen lekua; mendebaldean, opistodomoa eta pieza gehigarri bat, Partenoia bera, hitzaren esanahi murritzean, Atenearen eta Estatuaren altzorrek gordetzeko egina". (P. LEVÊQUE, 1986)

"Atenako Eskola" frantseseko bazkide-ohia eta Besançon-eko Unibertsitateko irakaslea da Pierre Lévêque. L. Febvre eta F. Braudel-en inguruan lan egin izan du historilari honek. Beste idazlan askoren artean sintesi eder bat dauka Greziaz: "L'Aventure grecque" eta bertatik jaso dugu testua.

"Historia/1" liburuan aurki dezakezu Greziari buruzko informazio orokorra: 90-109. orr. Arteaz ere hortxe bertan. "Artearen Historia/1" liburuan ere begira: 74-79. orr.: hor sakon dezakezu gaia.

EGITEKOAK

- a) Arkitektura greziarraren ezaugarriak idatz, ordena ezberdinak bereiziz.
- b) Marraztu hiru ordenen berezitasunak.
- c) Bila itzazu ordena bakoitzaren hiru adibide, liburuetatik fotokopiak eginez, edota postalak erabiliz.
- d) Agirian aipatzen diren obren deskribapen bat idatz, fotografiak, postalak, etab. ikusiz.
- e) Partenoiaaren oinplanoa egin, bere zatiak aipatuz.
- f) Diapositibak ikus.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein garaitan egin ziren Partenoia eta Propileoak? Non? Zein lekutan?
- b) Nor izan zen Perikle? Zein izan zen Perikleren egitekoa aipatzen diren obretan?
- c) Nor zen Fidias? Zein bere lanbidea? Zerikusirik bai al du Partenoiarekin?
- d) Nola ordaintzen ziren obra hauek? Nondik atera zen dirua?
- e) Zer esaten zaio "ordena" arte-arloan? Zeintzuk dira ordena greziarrak?
- f) Non kokatzen da Partenoia? Noren izenean eraiki zen?
- g) Zeintzu dira Partenoiaaren ezaugarri doriarrak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Antzinatean familiak berak ematen zuen hezkuntza. Honen bidez haurrek taldearen sentimendu, izaera eta pentsakerak jasotzen zituen, eta horrela lortzen zen belaunaldien arteko lotura. Denbora aurrera zihoan neurrian, hezkuntz lana ekintza espezializatu bihurtuz joan zen, eta maisuak sortu ziren: testu honetan azaltzen diren sofistak dira horietako lehenengoak. Maisu haien zeregina, krikatika sozial bilakatu zen, gainera.

"Umeak zerbitzariak zaintzen zituzten, gehienbat gizonezko eskolabu zaharrek, eta hauek izaten ziren irakurtzen, idasten eta marrastan irakasten zietenak ere. Maila horretatik gora, ematen zen instruksio formala musika eta gorputz-heziketa besterik ez zen. Perikle eta Sofokle-ren garaiko gizakiek, hiritarraren bizitza aktiboa eginez ikasten zuten gainerako guztia, hau da: bankete-mahaiaren inguruan, teatroan, erlijiosko jaialdi handietan, Agoran, Asanbladaren biltzarretan --hitz gutxitan esateko, guraso eta pertsona nagusiengandik ikasten zuten, Meleto-ren esatez, behar zen bezala--.

Hala, V. mende-erdi aldera iraultza bat izan zen hezkuntzan, Atena-n batipat. Maisu profesionalak agertu ziren, sofista izenekoak. Berandu baino lehen bildu zuten beren inguruan gastejende aberatsa; eta goimailako irakaskuntza ematen zieten: hala nola erretorika, filosofia eta politika. Hezkuntza oso zaindua izaten zen eta ondo ordaindua ere bai. Prozesu honekin postura berri eta harrigarri bat sortu zen ikasleen artean, alegia, moralak, tradizioak, sineskizunak, eta mitoak ez zirela doktrina-gorputz finko bat, bere hartantxe eta kritikarik gabe gizaldiz gizaldi transmititu behar zirenak: aitsitik, baizik, razionalki aztertu eta estudiantu behar zirela eta, hala behar izanez gero, aldatu eta baztertu egin behar zirela. Ezinbestekoa zen bezala, errezelo eta gogan-behar handiak sortu zituzten berrikuntzaok jende-modu askoren artean".
(M.I. FINLEY, 1975)

Greziar hezkuntza fisikoa eta literario-artistikoa ziren nagusi. Sofistak dira lehen aldaketa garrantzitsuak sartzen dituztenak: heziketa, zerbait lortzeko erabili behar da, eta erretorika erakusten dute, hau da, entzulea konbentzitzeko moduan hitz egiten erakusten dute. Ikuspegi honen kontra sartuko dira Sokrate, Platon eta Aristotele. Ez dago esan beharrik ez dela heziketa bera ematen Greziako hiri guztietan.

Begira honi buruzko berriak "Historia/1" liburuan: 100 eta 106. orrialdeetan daukazu.

EGJTEKOAK

- a) Inakastearen laguntzarekin bila eta azter Esparta eta Atenan erabiltzen zituzten heziketa-sistemak. Zein iruditzen zaizu hobea? Zergatik?
- b) Bila sofista hitzez ulertzen dena. Zein ziren halakoen ideia nagusiak? Aipa sofista batzuk.
- c) Sokrate, Platon eta Aristotele filosofo garrantzitsuak dira. Eztabaida ezazu zer den filosofo izatea.
- d) Begira testuetan filosofo hauek zer dioten gizonari buruz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein dira Perikle eta Sofokle?
- b) Zer zen Agora eta zer egiten zen bertan?
- c) Nola arrazoituko zenuke hezkuntzaren eta demokrazianen arteko zerikusia? Badute inolako zerikusirik?
- d) Zer esango zenuke Grezian hezkuntzak zuen eta gaur eguneko gure gizartean duen betekizunaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-IV. mend.

Esklabutza oso fenomeno normala zen Greziako gizartean, eta oso zabaldua zegoen Aristotelek adierazten duen ikuspuntua. Esklabuak gerraren bidez lortzen ziren nagusiki, baina ez hortik bakarrik. Inolako eskubiderik gabeko izakiak ziren. Tresna bizidunak zirenez (tresnak, alegia), nagusiak nahi bezala erabil zitzakeen. Bazegoen esklabutatik askatasuna lortzeko biderik, baina ez zen erraza. Greziako gizartea ulertzeko beharrezkoa da esklabutza aztertzea, berau baita ekonomiaren eustailerik funtsezkoena.

"Zenbaiten ustez, nagusiaren ahalmenak ez omen du inolako oinarri naturalik, eta esater dute, naturak libre egin omen gaituela guztiok eta esklabutza indarkeriaren fruitu besterik ez omen da (...).

'(Baina neretsat) Giza espezieko batzuk besteak baino gutxiago dira, eta gutxiago ere (...) animalia gizakia baino gutxiago den hainbestexez; gizaki horietatik atera daitekeen etekinik handiena gorputz-indarra besterik ez bait da (...).

'Ekonomiaren ikuspuntutik, ikusten dut ez dagoela bizitzerik (...) hartarako behar denik gabe (...) eta nola helburu jakina duen egitekorik ere ez dagoen egikaritzetik lanabesik gabe, ekonomiak ere beharrezkoak ditu lanabesok helburu hori lortzeko.

Lanabesak berriz bi eratakoak dira: batzuk bizigabeak eta besteak bizidunak. Eta hala, itsasketan adibidez, lanabes bizigabea da lema eta biziduna lemaria. Lanbide guztietan lanabes-mota bat da langilea. Lanabesak berez egin ahal baleza bere jabearen gogoa edo pentsamendua (...), anezkak berak bakarrik egin baleza ehuna, arkuak bere gisara jo baleza zitara, arkitektoek ez lukete langile-beharrik, eta nagusiek ere ez esklabuarenik". (ARISTOTELE)

Esklabuen tratu eta bizimoduari dagokienez, oso egoera desberdinak aurki daitezke. Traturik txarrenea meagintzan zihardutenek zuten: egoera hobean zeuden nekazaritzan lan egiten zutenak, eta onena, askotan oso ona, etxe inguruko lanak egiten zituztenak zuten. Tratu ona, bai; baina eskubiderik, ez.

Honetaz, begira "Historia/1": 99 eta 101. orr. Historian zehar eza-
gututako esklabutzetatik beste hainbat: "Mendez Mende. Aro Modernoa":
55, 67, 70, 113, 188, 221-222, 225-227. "Mendez Mende. Aro Garaikidea":
97, 250-251, 273, 294-295, 313, 330, 405, 470-476. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin "collage" bat, entziklopedietan esklabutzaz aurkitu dituzun iru-
diekin.
- b) Egin mapa bat, esklabu-merkatalgoaren triangelua marraztuz eta merka-
talgaien zerranda lauki batean emanaz.
- c) Deskriba ezazu filmaren batean ikusi duzun esklabu-talde baten bizi-
tza.
- d) Presta ezazu ikasgelarako eztabaida bat: 1) Bata, Indietako gomendakin
baten jabea da, baina indiarrak hil egin dira eta esklabu beltzak erosi
ditu lanerako. 2) Bestea, esklabutzaren kontrako misiolaria da. Amatu
bakoitzarentzako arrazoiak.
- e) "Mendez Mende"ko langaietan ikus nola justifikatu den esklabutza.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola irits daiteke Grezian esklabu izatera?
- b) Bila liburuetan meatzetako esklabuen bizimoduaren berri.
- c) Nola bizi dira beste esklabu-motak?
- d) Bai al dago esklabutzalik inteteko biderik? Zein?
- e) Egin ezazu gizarte greziarraren eskema bat, eta esplikatu esklabutzaren
garrantzia.
- f) Aldatzen al du nolabait Atenako demokraziak esklabuen egoera?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ondoko testu honetan gogoeta historiografiko bat eskaintzen zaigu batipat, une historiko ezberdinetako gertakariak elkarrekin konparatuz. Kolonizazioek Historian zehar izan dituzten ezaugarri amankomunak edo ezberdinak hortxe ikus daitezke.

"Greziar zibilizazioak Ekialde Hurbilean izan zuen hedakuntzak garai modernoetako zibilizazio europarraren espantsioa bururatsen du; eta Europako kolonizatsaileek Trinan eta Indian oso bestelako mundua aurkitu zuten bezalaxe, greziarrek ere bizimodu desberdinak aurkitu zituzten Mesopotamian edo Egipton. Historia, orduan, joko politikoen bilbe konplikatu bat besterik ez zen bilakatu, joko horien gidari errege helenistikoak zirela, zeintzuk, kasuan kasuan, behin diplomazia behin gerra erabiltzen bait zuten, Europa Modernoan egiten zen bezalaxe.

Europar kolonialismoaren hainbat alderdi sozial eta ekonomikok bazuen bere paralelismoa mundu helenistikoan ere, ba funtsean mundu hau ere greziar eta mazedoniar gutxi batzuek menperatutako tokian tokiko populazio handi bateko gizartea zen".

(Ch. STARR, 1974)

Historian zehar gertatutakoak bata bestearekin alderatzeak badu arriskurik, beti ere aro eta leku ezberdinetako fenomeno historikoak baldintza-modu ezberdinetan jazo izan direlako bereziki. Hala ere, Starr-ek hemen egiten duen honen moduko analisisiek badute interesik iraganaldiak aztertzean, suspergarri bezala.

"Historia/1"ean ik. 94-95 eta 104-105. orr. Kolonizazio moderno eta garaikideen hainbat argibide aurki ditzakezu "Mendez Mende"ren bi liburukietan. Eman begiratu bat "Aro Modernoa"n Amerikakoari: 178-235. orr.; eta "Aro Garaikidea"ri dagokionari: 69-126. orr. Hauta horietatik komeni zaizuna.

EGITEKOAK

- a) Egin mapamundi bakan bat, eta aipalutako liburuetan kolonizazio ezberdinei ematen zaizkien ibilbide eta hedalekuak koka behar diren barrutietan.
- b) Har "Historia/1"eko mapa (94. or.), eta egin, xehekiago, entziklopedia eta beste liburuetatik jasotzeko beste bat.
- c) Lauki batean bil kolonizazio ezberdinetan berezikiago bilatzen ziren produktuak.
- d) Bila, entziklopedietan, greziarren nabigazio-teknikei buruzko zerbait: zeintzuk ziren itsas oztopo zailenak, eta nolako irtenbideak zituzten haiek gainditzeko?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer deritzozu testu honetan egindako paralelismoei buruz: *Ados al zaude?*
- b) Kolonizazio greziar hark eta 19. mendeko ingelesak bai al zuten antzeko interes ekonomikorik?
- c) Zure ustez, zergatik jo izan dute zibilizazioek, beren lurraldietan, honrelako hedakuntza kolonialetara?
- d) Zein ondorio historiko-kultural izan zituen, eta ditu, Greziaren kolonizazio hark.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erromatarrek, beren hedakuntza kolonialean, bihotzez miresten zuten Greziarekin egin zuten topo. Eta etsai bezala tratatu gabe, erromatar askorentzat, menperatu baino irabazi nahiago zuten herria zen hura. Kultura greko-helenistikoak egokiera berri bat aurkitu zuen Inperio Erromatarrarekin.

"Laster ziren joko Istmikoak. Baster gustietatik biltzen ziren jenderik ospetsuenak, zer gertatu zain. Jokoak bitartean agertutako eritziak oso esberdinak ziren. Batsuen esatez, esineskoa zen erromatarrek zenbait leku eta hiri libre uztea. Beste batzuek ziotenez, lekuri ospetsuenak utziko zituzten libre, baina ospe gutxiagoko beste toki batzuk beren eskuetan gordeko zituzten, eta hauek ere berdin balioko zuten haien asmoak betetzeko (...), nahas-mahas eginda zeuden buruak jendetza estadiotan Jokoak ikustera bildu zenean.

Aurreratu zen, orduan, oihulari bat eta adarra joz jendea isile-razi ondoren, honako dei hau egin zuen: 'Erromako Senatuak eta Titus Quinctius prokotsulak, Filipino erregea eta Lazedemoniarrak garaitu ondoren, libre uzten dituzte, goardiziorik gabe, tributurik gabe eta bakoitza beren aberriko legeen pean, ondoko herriok: korintotarrak, fozearrak, lokridarrak, eubearrak, akaiarrak, magnesiarrak, tesaliarrak eta perrebioak'.

Bapatean, deiaren hasieran bertan, egundoko deiadar-hotsa sortu zen. Batsuek aditu ere ez zuten egin deia, beste batzuek berriro aditu nahi zuten. Jende gehienak ezin zuen sinetsi aditzen zuenik eta ametsetan zegoela uste zuen". (POLIBIO, K.a. c.198-117)

Polibio (-198/-117), historilari greziarra izan zen. Eta pertsonalki bizi izan zuen bi herrien arteko harreman berrien esperientzia: Erromara preso eraman zuten, baina aurkitu zuen Hirian babesle on eta boteretsurik: Eszipion Afrikarra, horietako bat. "Historiak" obra idatzi zuen 40 liburukitan.

Begira "Historia/1": 119-122. orr. Baina saia zaitez ikastetxeko edo zeure etxeko liburutegian ere argibide berriak bilatzen.

EGITEKOAK

- a) Polibio, historilaria zen: egizu lauki kronologiko bat Grezia eta Erromako historilari nagusien izenak eta datak emanez.
- b) Emazu Greziako mapa batean han ospatu ohi ziren Joko sonatueneren lekuak, bide batez haietaz bila dezakezuna inguratuz.
- c) Nola emango zenuke mapa batean Grezia eta Erromaren arteko harremanen historia. Begira, eskura dauzkazun entziklopediak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zein da agiri honetan Polibiok azaldu nahi duen ideia nagusia?
- b) Polibiok kontatzen duena, edo iradokitzen duena izan ote zen, egiaz, Greziarekiko Erromaren politika? Zer esango zenuke horretaz?
- c) Polibionen bizitza eta erizpide historiografikoak ezagutu ondoren, zer esango zenuke historilariaren objektibotasunaz?
- d) Arrakasta edo hondamendia izan zen, zure ustez, bi herri horien arteko harreman-historia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

-VI/-V. mend.

Oso iluna da herri etruriarraren sorrera. Tesi nagusienak Asia Hurbilean jartzen du berorren sorlekua. Dena den, K.a. VIII. mendean Italiako erdaldean kokatuta zegoen, eta K.a. VI.ean izan zuen bere arorik onena. Aurretiaz han bizi zirenak menperatuz, bere ohiturak inposatu zituen, lurralde hori kanpoko eraginetara, greziarreneza bereziki, irekiz. Gerra gogorren ondoren, bere menpeko izandako Erroma nagusitu zitzaion K.a. III. mendean.

"Etruriarrak sartu zuten helenismoa Ertitalian, eta lan hau VI. mende osoan zehar sendotu zen. Atikar zeramika ugariak erakusten du hau lehenengo, zeinak oso merkatu aukeratua aurkitu bait zuen Kaere, Tarkinia eta Vulci-n; nekropoli horiek 'milaka eta milaka lurrontsi atikar eman dituzte berek bakarrik, gainerako mundu greko osoak baino gehiago' (...).

Zeramikatik kanpo, hilobi etruriarrek --Tarkinia-n batipat-- pintura arkaiko handiaren ispilu ederra ematen digute beren freskoetan; Grezian bertan ordurako desagertutako pintura zen hori: eszena epikoak (sezenen hilobian), oturuzketak (Leopardoen edo Triklinioaren hilobiak), gimnasiako eta saldikoen eszenak (Bigoen eta Olinpiaden hilobiak). Baina 'kartoi' greziarren erreproduktzioa bera ere elementu etruriarrez kutsatua dago, hala Phersu demonioaren 'jokoa' Augureen eta Olinpiaden hilobietan.

Etruriarren plastikak ederki erakutsi zituen bere dohainak, baina ez marmoletan --Luni-ko harrobiak erromatarren menpean izango ziren ustiatuak eta-- baina bai brontzetan (baxuerliebeak eta estatuatxoak tripode eta kandelontzien gainean) eta batipat bustinere edo terrakotatan. Tenpluen arkitektur dekorazioak, bere zuzeko gainegiturarekin, alor zabal-zabala eskaintzen zien koroplastei". (J. HEURGON, 1982)

Etruriarrek kultura hiritar eder bat garatu zuten: luxurako gustua eta bizitasuna nabari zaizkie. Baina oso handia da kultura honetan greziarren eragina, Hego Italiako Grezia Handiarekin izandako harremanen bidez bideratua. Maila guztietara hedatzen da eragin hau: erlijio, hizkuntza eta baita artera ere. Arte lanetan, hilobien inguruan aurkitu dira elementurik aipagarrienak eta hilobien garrantziak garbi adierazten du heriotzaren ondoko bizitzak zuen presentzia.

EGJTEKOAK

- a) Bila Etruria lurraldea Italiako mapa batean. Ikus, dituen ezaugarri geografikoak.
- b) Koka mapa horretan garaiko Italian dauden herriak, bere mugekin.
- c) Bila liburuetan arte etruriarraren emaitzak eta koka itzazu mural batean.
- d) Zertan soma daiteke etruriarren eragina Erromako artean?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein kolonizazio, eta non, ari zen gertatzen Italian, etruriarrek beren lurraldia ezaugarritu zutenean?
- b) Zeintzuk dira Mediterranearen mendebaldean garaiko potentzia hegemonikoak.
- c) Zer jasotzen zuten Etruriarrek Grezian eta zer eman zion Erromari?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-IV/-III. mend.

Jatorriz, ondasunez eta eskubidez ezberdintasun handiak ezagutu ziren Erromako klase sozialen artean. Hasierako eta geroko egoera hura aldatuz joan zen mendeak zehar. Bereizketa, batipat, patrizioen eta plebearen artean datza; baina sistemaren sostengua, eta luzarora funtsezko kontradikzioa, laneku esklabuarena izango da.

"Erromaren eta Errepublikaren lehenengo garaietan funtsezkoa zen 'populus' eta 'plebs'en arteko bereizkuntza. Jurista eta Historilariak bat datoz esaten, ezen 'populus'ak herri osoa adierasten zuela, patrizioak barne, baina 'plebs'ak, honen jatorria eta konposizioa edozein dela ere, definizioz alhora uzten zituela patrizioak, eta apika horien bezeroak ere bai. Une historiko jakin batean erakunde propioak sortu zituen plebeak --asanblada bat, 'concilium'a eta 'kontra-magistratuak' (edil eta tribunuak)-- 'populus'aren (asanbladak eta magistratuak) erakundeekin elkarrekin batera existitzen zirenak, baina horietan integratu gabe. Hala ere, ez dago zalantzarik, plebea Estatu erromatarrarekin gero eta gehiago integratuz joan zela, nahis eta prozesu horren eboluzioa argi egon ez. Dudarik ez dago, burutua zegoela integrazio hau autuan dugun garai honetan. Egia da, teknikoki, bi gauza desberdin adierasten ditustela bi hitz horiek, komizio-histegian batipat: plebeo tribunu eta edilek jarburututako asanbladak, agian, plebearentzat erreserbatuak zeuden, eta astergai dago oraindik ea patrizioak (Errepublikaren askenaldian eskutatadaxo bat baizik ez zirenak) handik baztertuta ote zeuden ala ez".

(Cl. NICOLET, 1982)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitara emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

Garai honetako Erromaren berri "Historia/1": 115-119. orr. aurkituko duzu.

EGJTEKOAK

- a) Andatz kronologiko batean seinala itzazu Erromako historiaren aldi eta data garrantzizkoenak: Hiria, Erregeak, Errepublika, Inperioa...
- b) Egizu Erromaren hedakuntzaren mapa kronologiko bat: Hiritik hasi eta Inperioaren zabalune handieneraino.
- c) Egizu Errepublika-garaiko antolamendu politikoaren organigrama.
- d) Ikus, latinezko hiztegi batean, "populus", "plebs" eta "concilium" hitzen esakia. Orobat, hiztegi historiko batean: patrizio, tribunu, komizio, edil eta magistratu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zertan datza "populus"aren eta "plebs"en arteko bereizkuntza?
- b) Nortzu dira patrizioak? Eta "plebs" taldea osatzen dutenen ezaugarriak zeintzu dira? Patrizioen bezeroak, nortzu dira?
- c) Noiz sortzen ditu plebeak erakunde propioak? Eta zeintzu dira?
- d) Agiriak zein garaitako gizartea aztertzen du? Zeintzu dira berorren ezaugarriak?
- e) Patrizioak baztertuak izan badira, nortzuek osatuko dute goi-mailako talde soziala? Ala desagertu egiten da talde hori? Arrazoitu erantzuna.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-IV/-I. mend.

Zentsu bidezko gizarte-sailkapena da agiri honetan historilariak azaltzen duena. Populazioaren eta errekurtsoen hazkunde eta banaketaren aldizkako inbentarioa ematen dutelako, populazioaren zentsuak beharrezkoak dira gaur egun Erromako gizartea ezagutu ahal izateko. Antzinateko zentsuek, helburu militar eta fiskalak zituzten, eta zergak gehitzeko asmoz egindakoak ziren, gehienbat.

"Zentsu-bidezko organizazioak, bere forma zaharren eta sabaleanean, hiru sail hierarkizatu esagutzen zituen: 'equites'ak (zaldiskoak) (aberatsenak eta 'onenak', honek inondik ere badu zeri-kusirik, zaldisko zerbitzua aristokratikoa zela uste zuten tradizio zahar bisiki sabalduekin), 'pedites'ak (oinezkoak, legioan zerbitzeko lain basirenak) eta 'capite censi'ak eta 'proletarii'ak, soldadutzatik eta zuzeneko zergatatik libreak, beren pobretasuna zela medio. Sistema horren lerro nagusiak handiaurkiro besterik ez ditugu hemen ematen. Beraz, talde murrizagotan aspi-banatsen ziren klaseak, zenturiatan alegia (193 gutira). Zenturiak ez ziren armadako unitate, askotan uste izan den bezala, eta bai soldadu-bilketako, zerga-bilketako edo botu-emateko unitate. Horregatik finkoa izaten zen kopurua, nahiz eta hedaduraz desberdinak izan, batsutan oso lagun gutriko eta bestetan milaka pertsonako. Zentsu-bidezko sistemak --handiaurkinezko lerrotan emanez eta aski murrizta den hiru kategoriako banaketa hau gorabehera-- gizarte erromatarreko hierarkia eta multzo nagusiak adierazten zituen, zeintzuk, banantzeko joera izango bazuten ere, redatzaile eta determinatzaile izango bait ziren Errepublikagarai osoan zehar.

Hala ere, zentsoreek berek egin beharreko bereizkuntzetatik atara gabe, kategoria berriak ere agertzen dira IV. eta III. mendeetako organizazio-modu zentsubidezko zaharra osatzera".

(CL. NICOLET)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitara emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

EGJTEKOAK

- a) Begiru hiztegi batean agirian agertzen diren taldeen definizioak: "equites", "pedites", "capite censi", "proletarii".
- b) Erromako Errepublika-garaiko historiaz jabetu zaitetz. Eskematizatu itzazu bertako antolamendu politikoa eta soziala.
- c) Europako mapa batean gainjar itzazu erromatar hedakuntzuren norabideak eta mugak; eta probintzi administrazioaren banaketa.
- d) Pwiekzio batean garaitarku bat, akueduktua, antzeztoki bat eta erromatar galtzada ikus eta komenta beren interes artistikoa eta funtzio soziala.
- e) Herriko parrokiara joan, eta ikus erregistro liburuak: Nola banatzen dira? Zeintzu dira jasotzen diren datuak?
- f) Komenta ezazu esatera hau: "ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak; ez dugu abererik, ez gara aberatsak".

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zein da gizarte erromatarrean talde sozial nagusia? Zergatik?
- b) "Aristokrazia" eta "oligarkia" kontzeptuen esanahia gogoratzen al duzu? Nortzuk dira hemen bata nahiz bestea?
- c) Zer dira zenturiak?
- d) Nola egiten da gaur egun zentsua, eta noiz? Zertarako balio du?
- e) Labur ezazu testuaren mamia.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-IV/-I. mend.

Aukeratutako pasarte honetan, Erromako gizartearen azterketa egiten du autoreak. Azterketa hau Errepublikara garaiko gizarteari lotzen zaio eta zehazkiago Grakotarren epealdiari (II. mendea K.a.), hau da, nekazal krisialdi bati.

"Pater familias'a nekazari da beste ezer baino areago, eta gero soldadu edo hiritar. Cincinnatus da lehen erromatar haietako sinbolo ederra, eta inoiz ahastu behar ez litzatekeen eredu horietakoa. Gerra bukatu eta hiria salbatu ondoren, bere goldera itzuli zen hura berriro. Egia da, Grakotarren edo nekazal krisien garaian, iraganaldi hori idealizatzeko joera izango da, hor ere borroka eta gataskarik falta izan ez den arren. Baina han ere desberdintasunak baziren arren eta berauek zentsu-bidesko organizazio batek santsionaturik zeuden arren, patrizio-familia zaharrak harro sentitzen ziren arren, Lazio-ko lurrik onenak beren eskutan zeudelako eta lehen konkistei fruiturik onenak atera zizkietelako, lurra beti ere izugarri zatitua zegoen jabe koskor ugarien artean; eta hauek, biziki lotuak zeuden beren lurrari eta honen jainko babesleei, eta prest zeuden hiltzeko ere lur hori babesteagatik, eta hori beren ondorengoei uzteagatik. Gutxi ziren orduan artisauek; eta nekazari eta soldadu-herri batean ezinbestekoak diren lanbide batzutan aritzen ziren. Merkataririk ez zen, marginatuak eta mespreziatuak bizi ziren atzerritar, greziar edo feniziar batzuk kenduz gero. Aldaketak oso mugatuak izaten ziren mundu hartan, dirua oso berandu agertuko zen eta, agertu ere, lehen batean brontzesko txanpon pisuen itxura traketsen". (Cl. MOSSE, 1980)

Claude Mossé-k sintesi sozio-historiko bat eskaini nahi digu, erromatarren famili erakundetik hasirik, lan-moldeak gogoratu eta lurraren jabeago-moduak ere erakutsiz. Lerro gutxitan egitura sozial osoa deskribatu eta laburbiltzen digu autoreak.

"Historia/1" liburuan aurki ditzakezu Erromatar Zibilizazioaren zehaztasunak: 111-151. orrialdeetan, eta gizarteari buruzkoak 114-115. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Testua irakurri eta ulertu ondoren, egizu beraren ideien laburpena, gizarte klaseen sailkapena kontuan hartuz.
- b) Entziklopedietan bila ezazu Grakotarren bizitzaz eta ekintzaz informazioen bat.
- c) "Historia/1" liburutik egizu:
 - Patrizio eta plebetarren klase-eguzgarri sozio-politikoaren laukia.
 - Laburbil Errepublikara garaiko berorien egoeraren bilakaera (ik. 117. orrialdeko laukia).
- d) Argitu "paterfamilias", "zentsua", "Lazio" hitzen esanahia.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola banatzen zen Grakotarren garaian Erromako gizartea?
- b) Nortzuk ziren patrizioak?
- c) Nola osatzen zen "plebetarren" multzoa? Zein zen multzo honetan talde ugariena?
- d) Erromako historian zehar patrizio-plebetarren arteko gatazkak sarritan sortu al ziren: Zeintzuk ziren kausak? Ondorio garrantzitsuak izan al zituzten?
- e) Nortzu izan ziren Tiberio eta Caio Graco?
- f) Zer dio merkatalgoari buruz pasarte honek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erromatarren Inperioaren hedakuntzan armadak izan zuen garrantzia kontuan hartuta, badu interesik erromatarren soldadutza nola eratu zen ezagutzeak. Horretaz behar dena ezagutzeko, baditu historilariak bere oztopoak: "Lebak" egitean Erromako armadak ez zuen lege jakinik jarraitzen, ez soldadu-kopurutan, ez eta iragan behar zuen denboralditan. Legio bakoitzaren joanetorri eta gorabeherak eman ditzakete albiste zehatzak.

"Hiritar erromatarra beharturik zegoen, 17 urtetatik 60taraino, soldadu izatera. Ez zen diferentsiarik egiten bake-garaiko eta gerra-garaiko soldaduzkaren artean. Urtero, beharrak agindu ahala, tropa-bilketa bat (dilectus) egiten zen, printzipioz, kanpainaldi baterako. Lehenengoz IV. mende-bukaeran, eta Gerrate Punikoetan batipat, hasi ziren soldaduak urtetik urtera edukitzen kanpaina-kopuru jakin baterako. Edozeinetara ere, arau jakinik ez zen. Polibio-k (VI, 19, 1) gehienez ere hamar urte esaten du, zaldiskoentsat, eta hamasei urte oinezkoentsat; hala ere, horrek ez du esan nahi, denek, eta denbora horretan gustian, zerbitu behar zutenik. Urtero Senatuak erabakitzen zuen bildu behar ziren soldaduen kopurua, eta berebat lizentzia (missio) ematen zien hainbat urte lehenago soldaduzkara deitutako tropei. Gai honetan ez zegoen lege jakinik; gehienez ere ohitura bat besterik ez. Horregatik, guk egin dezakeguna ez da besterik, dokumentazioak bide ematen duenean, unitate jakin baten zerbitzualdia kalkulatu, estatistikak egin eta batezbestekoak atera. Konparazio batera, bigarren Gerrate Punikoan, legio batzuek (hiruk) hamabi urte zerbitu zuten, batek hamar urte eta lauk bederatsi. Garai honetarako, beraz, saspi urte da batezbestekoa".

(Cl. NICOLET, 1982)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitaratu emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

Armadaren, kolonizazio eta konkisten arteko zerikusiak, ik.: "Historia/1": 112-125. orr. Gai beretsuak: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 31, 38, 170-171, 173, 175, 181, 191, 209, 215, 306, 422. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 38, 42-52, 69-70, 94, 104-113, 119, 121, 542, 549, 572. orr.

EGJTEKOAK

- a) Testuan datorren informazioa labur ezazu.
- b) "Historia/1", "Mendez Mende" biak eta entziklopediak aztertu ondoren, egizu Erromatar Armadari buruzko idazlan bat, honelako datu batzuk jasoz:
 - 1) Konposaketa, soldatak, mailaketa, etab.
 - 2) Erabiltzen zituzten teknikak
- c) Azaldu "Gerrate Punikoen" sorrera eta bilakaera.
- d) "Asterix eta Obelix" komikietan osa dezakezu legio erromatarrei buruzko informazioa.
- e) Armada erromatarraz ikusi al duzu zerbait inoiz? Zen?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nor zen Polibio? Zer idatzi zuen?
- b) Noiz suertatu ziren Gerra Punikoak? Noren aurka?
- c) Zaldizkoek, zenbat urte bete behar dutela esaten da testuan? Eta oinezkoek?
- d) Hurrengo esaldiak osa:
 - 1) Erromatar hiritar orok armak eraman behar zituen ... urterarte.
 - 2) Erromako magistratu izateko milizian zerbitzatu behar zen ... urte. Oinezkoen armak ... ziren.
- e) Ohorezko desfilea nortzuk osatzen zuten?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mendeetan zehar egindako lurralde-hedakuntzaren ondorioz, Erromak eskuratutako barrutia handia izan zen. Erromako zibilizazio-ereduak urruneraino zabaldu ziren, ekonomian, gizartean, politikan nahiz kulturari. Paradoxaz, hiri-zibilizazio haren oinarri ekonomikoak laborantzakoak izan ziren; baina berdintasun sozial txikiko lur-banakuntza izan zen sozio-ekonomia harena.

"Taldean herri erromatarrarenak ziren lurrek eta abarrek osatzen zuten, definizioz, Erromako jabari publikoa; baina berezi beharra dago 'ager romanus' a, eta 'ager publikus' a. Lehenengoa Erromaren subiranotasunpean zegoena zen, baina ez zegoen hura jabetza pribatuko egiterik; bigarrena herriaren ondare zen eta uste zen, jabari horrek emandako sarreretatik bizi behar zuela herriak. Magistratuak eta Senatua ziren, jabari horren mantentzen eta administrazioa kontrolatzen zutenak; zentsoreek eguneratzen zituzten kontuak. Agintari eskudunaren ordenaz ahalmena izaten zuten kuestoreek 'ager publicus' aren zati bat besterentzeko, eta zentsoreek arautzen zuten horren ustiapena. Hala ere, jabari publikoko lurren salmenta, beti ere ahalgarri zena (hainbat adibide dauzkagu: 205ean 'ager campanus' aren zati bat saldu zen; 149an beste parte bat), gaiski ikusita zegoen, ba uste izaten zen, magistratuek gorde egin behar zutela hura eta ez zutela urritzen utzi behar (...).

Salmenta ez zen jabari publikoko lurra besterentzeko modu bakarra. Doako emanaldi bat ere egin zitekeen (asignazioak eta dibi-sioak), Estatuari emandako kreditu bat ordaintzeko modu bezala, (...) edota egindako zerbitzu baten truke ere bai (...).

Erromaren historia osoan zehar, munta handi ere handiko baliabidea izan zen, Estatuaren lurra erabiltzea, bertan koloniak eta kolono indibidualak ezartzeko, aurrena Italian eta gero, II. mende-bukaeratik aurrera, itsasoz bestaldean". (Cl. NICOLET)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitaratutako emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

Ikus ezazu "Historia/1" liburua: 116-124. orr. Baita "Mendez Mende. Aro Garaikidea" ere: 418, 470. orr.

EGJTEKOAK

- a) Hiztegi batean kontsulta itzazu kontzeptu hauek: Magistratua, Agintari eskuduna, Senatua, Kuestorea, Zentsorea, Asignazioa eta dibisioa.
- b) Jaso erromatar kolonizazio eta koloniei buruzko berriak: Non eratzen ziren? Nortzuek parte har zezaketen kolonia baten eraikuntzan? Nolako helburuz antolatzen ziren?
- c) Zure herrian ezagutzen dituzun lur-sailen jabe batzuei galde nola egin ziren lurren jabe? Ezagutzen al duzu Euskal Herrian herri-lurrik?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola banatzen dira herri-lurrak Erroman?
- b) Zer da Senatua? Nortzuek osatzen zuten?
- c) Magistratuei buruzko galdera hauei erantzun iezaiezu: Zein zen haien betebeharra? Nola ailegatzen ziren kargu horietara? Zenbat denboratarako zen kargua? Zenbat magistratu-klase zeuden?
- d) Zertarako behar zuela uste duzu Erromak hain ondo eraturako antolamendu politikoa?
- e) Nortzuentzat ziren mesedegarriak erromatarren konkistak? Nortzuei egiten zien kalte konkista horiek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

Antzinatea

Antzinatearen, lanarekiko eta zehazkiago esku-lanarekiko balorazioa aztertzen du testu honek. Bai Aristotele-k, bai idazle erromatar askok hiritarren aisia goraiatzaren zuten, horrek hiritarrari hiritar-eginbeharrak betetzeko eman ziezaiokeen aukeragatik. Laborantzan ezik, erromatarrek esku-lana mespretxatu egiten zuten.

"Lanak ez zuten Aintzinatean kristautasuneko hogeii mendeek eta langile-mugimenduaren sorrerak eman dioten balore moralik. Askoren ustez, esku-lanarekiko mespretxua izan da esklabutzaren kontraordaina eta teknika-aurrerapena gelditzearen kausa. 'Politika'n, hiritarren aisia aipatzen du Aristotelek 'ariman bertutea sorrerazi eta hiritar betebeharrak betetzeko'. 'Otium cum dignitate' delakoa bera da, erromatar idazleetan bizitzako ideal bezala agertzen dena. (...).

Hala ba, esku-lanarentzako destaina ez ote zen, gero, aurreritzi aristokratikoz jantzitako 'pentsalari'en gutxiengo koskor baten postura? Benetan konplexuagoa da arazoa, eta hori bere eboluzio historikoan jarritz bakarrik begira daiteke. Lehen-lehenik bi ohar egin behar dira: aurrena, Aristotele bezalako pensalari sistematiko batzurenzat aparte, lurra lantzea ez zela laidogarri; laidogarri benetan artisau-lana bakarrik zen eta (...).

Kanpoan bisitiseak sendotu egiten ditu gorputza eta arima, lur-rerenganako maitasuna abertzaletasunaren funtsezko osagarri bat da".

(Cl. MOSSE, 1980)

Lanarekiko pentsamolde eta ideologia oso garrantzizkoak izan dira munduaren aldakuntza bultzatzeko, hasi Antzinateetik eta Erdi Aroko monastegi, XIX.eko kolonizazio edo XX.eko gizarte iparramerikarerraino. Mossé lanaren historilariak Erromakoaz dihardu.

Begira "Historia/1" liburuan: 92-99. orr. Osagarri bezala, beste momentu historikoetarako, ik.: Ib., 146, 182, 185, 187, 197. orr. Begira "Mendez Mende. Aro Modernoa": 66-67, 112, 226, 229, 406. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu testuaren laburpena.
- b) Entziklopediak kontsultatuz, jaso Aristoteleren bizitzako eta obren datu interesgarrienak.
- c) Bila Aristotele-ren "Politika"-n argibideren bat: egin bertako ideien laburpen bat.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik, zure ustez, artisau-lanarekiko mespretxu hori?
- b) Nola azalduko zenuke teknika-aurreparenaren gelditzearekin esklabutzak izan zuten zeregina?
- c) Zergatik jo daiteke lurra lantzea abertsialetasunaren pilanetzat?
- d) Zein eragin izan du, testuan aipatzen den destaina horrek, Historian zehar?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri historiko-literario honetan esklabu baten komedi bakarrizketa transkribatzen da. Ironiaz betetako testua da, eta Antzinateko klase haren harreman sozialak eta bizimodua aurkezten dizkigu. Balio literarioaz gain, orain bi mila eta gehiago urteko egoera ulertzeko balio historikoa ere badu.

"Meseniok (bakarrizketan): Esklabu onari berehalaxe antzematen zaio ardura hartzeko moduan, gauzak zaindu eta antolatzeko moduan, eta edozer bururatzeko moduan. Nagusia falta denean ere, hura presente balego bezalaxe zaintzen ditu morroi onak haren interesak. Areago oraindik: esklabu batek bizkarrean pentsatu behar du ahoan baino gehiago, eta hankatan sabelean baino gehiago. Ez du burutik kendu behar nolako saria jasotzen duten nagusiengandik, alferrandi eta bihurri izateagatik, tipo txarren fama hartzen dutenek: egurra latza, girgiluak hanketan, errotarriak, agoantaezineko neke-lanak, gosea eta hotza; horiek dira alferren ordainsari. Egundoko izua diot nik gaitz horri. Horregatik nahiago izan dut beti esklabu ona izan, txarra baino, eta askoz ere nahiago dut ordenak jaso, zigor izugarri horiek hartu baino. Nahiago dut gari ehoa jan, besteren-tzat ehotzen aritu baino. Nagusiak agindutakoa egiten dut, eta ondo zerbitzen dut, txintik atera gabe. Eta ondo dihoakit, oso ondo! Besteek, deritzotena egin dezatela, baina nik ondotoz dakit zertan nabilen. Beti bizi nahiz zerbaiten beldur-oharretan eta lo ez hartzen saiatzen naiz, eta hala beti esanerako prest aurkitzen nau nagusiak edonon. Ze, ezer txarrik egin gabe ere, beldurrez dauden esklabuak, beti izaten dira nagusiaren gustoko. Ezeren beldur ez direnei berriz, zigorrak hartzean sartzen zaie dardara".

(PLAUTO K.a./c. 254-184)

Plauto (K.a. 254-184), olerkari komiko latinoaren zen. 130 komedia idatzi omen zituen, baina 21 besterik ez dira kontserbatzen: "Menaechmi", "Miles gloriosus", "Stichus", "Captivi", etab. "Komedia" hauetan Erromako ohiturak azaltzen ditu, pertsonaiak indar komiko handi batez isladatuz eta latin hizkuntza arrunta maisuki erabiliz.

Erromako antolamendu sozialak, ik.: "Historia/1": 115, 117, 119-122, 124-125. orr. Esklabutzaz, ik.: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 55, 67, 70, 113, 188, 221-222, 225-227. orr. Eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 97, 250-251, 273, 294-295, 313, 330, 405, 470-476. orr.

EGJTEKOAK

- a) Plautoni buruzko informazioa jaso entziklopedietatik, eta idatz datu interesgarrienak.
- b) "Historia/1" eta "Mendez Mende" bietako argibideekin egin esklabismoari buruzko bizpahiru mapa.
- c) Inperio Erromatararen mapa batean seinala itzazu esklabuen sorterri garrantzitsuenak.
- d) Testua irakurri eta ulertu ondoren, idatz labur bertako ideia nagusiak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nor izan zen Plauto?
- b) Zer adierazten du bere komedietan?
- c) Zer da esklabismoa? Non eta noiz hedatu zen?
- d) Zeintzuk ziren esklabuen sorterriak?
- e) Zeintzuk ziren haien betebeharrak? Berdinak al ziren guztiak?
- f) Noiz hasi zen esklabismoaren beherapena? Azaldu beronen zergatiak.
- g) Historian zehar emandako esklabismoaren epealdi garrantzitsuenak zehaztu itzazu.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erromatarren eraikuntza publikoen artean "terma" da dudarik gabe aipagarrienetariko bat. Erromatarren arkitektura guztiak bezala, helburu funtzionala zuten termetako eraikinek: gizartearen atsekenaldirako biltoki izatea. "Pax Romana" deituaren garaian hirietako bizitza zibil arruntari zegokion zerbait zen terma, hiritarren aisia betetzeko hiritarren topalekua.

"Foruak baino garrantzi handiagokoak dira termak eta erromatarrek nonnahi egiten zuten bizimoduaren ezaugarri ere bai, koloniarik mortuenetan belar berdezko golf-zelaiak ingelesaren ezaugarri diren bezalaxe. Ondo ezaguna da horien egitura: horietako tenperatura desberdinetako salak, aldalekuak, ur bero eta hotzako bainu-tegiak, palestrak, atsedena, masaje- eta bilera-salak eta era askotako barrundegiak. Aldatsen direna eraikinen hedadura izaten da, horien konplexutasuna gero eta handiagoa, eta berorien ornamentazioaren aberastasuna. Ekialdean bezala, enperadore guztiek eraiki zituzten gimnasioak: zibilizazio grekoaren elementu tipikoa ziren horiek, halako eran, ze 'gimnasio-tik ateratakoen' klase pribilegiatua ere ezagutu bait zuen Egyptok. Terma ezagunen eta handien artean, beren tamainaz, Karakala-k eta Dioklezian-ek Erroman jasotako aurrelari diren Iparraldekoak aipatuko ditugu Timgad-en (15.000 biztanle besterik ez hiri koskor honetan dozena bat terma zeuden gutxienez), edo Ostiakoak, Antoninoren erreinaldian jasotakoak (...). Ur asko ere asko behar izaten zuten termaok, eta akueduktuak hirigintzako elementu bat besterik ez dira. Asko Augustoren garaian eta I. mendean egindakoak dira, Agripa, Klaudio eta Neron-en ahaleginei esker, Italian eta Erroman batipat (...). Lyon-eko akuedukturik berriena Adrian-en garaikoa da eta 75 km ditu luzean". (P. PETIT, 1976)

Paul Petit irakasle frantsesa, Antzinatearen Historiaz arduratu izan da. Sorbonako Unibertsitatean egin zuen lan, eta bere lan orokorragoen artean, obra nagusi bat eskaini zion Antiokiako hiriari, beronen gorabehera material eta kulturalak ikertuz.

"Historia/1" liburuan arte erromatarra 126-128. orrialdeetan azter dezakezu. Zehaztasun handiagoak "Artearen-Historia/1" (UBI) liburuan topatuko dituzu: 100-108. orr.

EGITEKOAK

- a) Liburuak irakurri ondoren, idatz laburpen orokor bat arte erromatarren buruz.
- b) Inperioren mapa batean koka terma eta akueduktu ezagunenak, horretarako entziklopediak eta arte liburuak kontsultatuz.
- c) Euskal Herriko mapan adieraz arkitektura erromatarren aztarnategiak. Egizu gauza bera Espainian.
- d) Bila itzazu termen argazkiak. Ahal duzula, egin zeuk horretakoren baten marrazkia. Eta akueduktu bat?

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zein material mota erabiltzen du arkitektura erromatarrek? Zein eraikuntz sistema?
- b) Zeintzuk dira eraikuntza publikoak?
- c) Zeintzuk dira arkitektura horren ezaugarri orokorrak? Zeintzu dira Greziako arkitekturarekiko dituen diferentziak?
- d) Zer zen forua? Zer termak? Zer adierazten dute eraikuntza mota hauek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erromatarren aurkako erresistentzia gertatzen ari ziren Britainia Handiko hiriei Gralgako buruzagiak egindako hitzaldia dugu Tazito historilari latindarraren zati hau. Erromatar kolonizazio-he-dakuntzaren azken aldian kokatu behar da: "Mare Nostrum" a konkistatu ondoren, itsaso horretatik harago zuzentzen ditu Erromak bere azken asmo konkistatzaileak.

"*Britainia Handiko hiriek beren indarrak biltzen dituzte erromatarrei jarkitzeko, eta Gralgako buruzagiak honako hitzaldi hau egiten die:*

'(Erromatarrek) mundu osoa arpilatu, eta bazter guztiak soildu ondoren, errausteko beste lurrik ez daukatela eta itsasoan barrena hasi dira orain; ongose joaten dira etsaia aberatsa dutenean, harroputz pobrea denean; ez Ekialdean eta ez Mendebaldean izan dira gauza, horiek asetzeko (...). Arpilatu egiten dute, jendea samaldaka asasinatzen, eta horri autoritatea egikaritzea esaten diote, eta lurralde bat basamortu bihurtu dutenean, orduan hori bakera-rtzea omen da'.

'Umeak kentzen diskigute indarrean, eta esklabu egiten dituzte. (...) Aldi berean zergak galdatsen diskigute, zergak eta hauen interesak; lurrak eta prestazioak garitan; lan bortzatuak ezartzen diskigute, baso eta aintziretan barna bideak egiteko, eta tratu txarrak ematen. Esklabuak (...) behin bakarrik saltzen dira eta nagusiek mantentzen dituzte: Britania egunean egunean ari da bere esklabutza erosten, eta berau egunero mantentzen... Gure herrialdean ez dago lur mardulik, ez meategi edo porturik, bertan lan egiteko. Gainera pertsonaren balorea eta duintasuna ez da tiranoen gustoko izaten''. (TACITO K.o./c. 55-c. 120)

Tazito (Publius Cornelius Tacitus: c. 55/c. 120), latindar idazlea izan zen: politikaria, ospe handiko hizlaria eta, azkenik, historilaria. Tazitoren obra historiografikoak duen anbiguotasun osoaren barnean, konkistatuen ahotsa ere entzun liteke. Historilari erromatarretan ohi zen bezala, pertsonaien ahotan jartzen duen diskurtso hau idazleak asmatutakoa da, baina hitz asmatuen azpitik herriarteko benetako gatazka gogor-rrak ere ematen dizkigu ezagutzera.

Hedakuntza erromatarraren albisteak begira: "Historia/1": 113-115 (Monarkian), 116-120 (Errepublikan), 123-124 (Inperioan).

EGITEKOAK

- a) Atlas historiko bat kontsultatuz, egin bi mapa: 1) Erroma eta Italiako hedakuntza, eta 2) gainerako Inperio-erakuntza koloniala.
- b) Azter gaur eguneko mapa politiko bat: Zer da Inperio Erromatarrek berrantolatzen zuena?
- c) Atlas batez baliatuz, eman mapan, behar bezala lekututa, hau dena: Lusitania, Baetica, Tarraconensis, Aquitania, Gallia Narbonensis, Britannia, Belgica, Germania Superior, Raetia, Alpes, Venetia, Pannonia, Dalmatia, Dacia Apulensis, Macedonia, Epirus, Thesalia, Achaia, Thracia, Chersonesus Taurica, Colchis, Armenia, Cappadocia, Pontus, Galatia, Bithynia, Asia, Cilicia, Mesopotamia, Syria, Palaestina, Arabia, Aegyptus, Cyrenaica, Africa, Numidia, Mauretania Caesarensis, Mauretania Tingitana.
- d) Emazu, lauki batean, kolonizazio erromatarraren balantze historikoa: zein alde on edo txar izan zuen hark?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola ulertzen duzu edo zergatik esaten du testuak: "mundu osoa arpilatu (...) ondoren (...) itsasoan barrena hasi dira orain". Zein da itsaso hori?
- b) Nolako bakeratzeaz hitz egiten du Grialgahok? Zer da "Pax Romana"?
- c) Zentzuzko nahi zituzten esklabuak erromatarrek? Nolako esklabu-klaseak zeuden?
- d) Erromatartze-prozesua, erromatar inperio osoan bete zen, ala parte batean bakarrik? Zergatik? Non izango zela uste duzu gogorragoa prozesu hori?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Hispaniaren erromatartzeaz dihardu pasarte honek. Prozesu honetan hirien fundazioek izan zuten garrantzia azpimarratzen du. Hiri batzuen izenak ematen zaizkigu, indigenekiko harreman-moduak gogoratzen ditu, etab. Konkista eta kolonizazioetan agertu ohi diren arazo batzuk ispilatzen ditu agiriak.

"Augusto aurretik erromatartzea ozta-ozta zabaldu zen (Hispanian) Mediterraneoko kosta, Ebro-ibarra eta Betika baino harago. (...). Seinale-harririk nagusienak hirien fundazioak dira. Italiakaren sorkuntza, Ezipionek eginga, Enperadorearen ekimen bat izan zen; honek kanpainako lazareto bat sortu zuen han, gero guardizio bihur zitekeena, lusitaniarren erasoetan, adibidez. Italiarrez populatuta zegoen, eta ez dago gerra soziala baino lehen udal-konstituziorik izan zuen agiririk.

Gobernariak, bestalde, etengabe taldetzen zituzten garaitutako indigenak eta ez zieten pribilegio trikienik ere ematen: Graccuris, Valentia, Brutobriga dira horren lekuko. Hiri handiek --Tarraco, Carthago Nova eta Gades-ek-- egoiliar-kolonia erromano-italiarrak besarkatzen zituzten, beste probintzietan bezala. Koloni fundazio ziur bakarra Carteia-koa da, itsaso gaditarraren sarrean, Gibraltar-eko harkaitzaren ondoan, soldadu erromatar edo italiarren eta emakume indigenen artean egindako eskontza legezkanpoken 4.000 umerentzat (...).

Erromatartzeko biderik nagusienetako bat da hau, bide militarra alegia: legionarioen eskontza mistoak, indar laguntzaileen enplegu masiboa (zeintzuekin latina erabiltzen bait zen), gerra-ekintzen-gatik hiritartasun-eskubidea ematea, eta betereoan lekuharmena; badirudi hauek izan zirela gehienbat erabilitako bideak, zuzenbide-mailan bederen, eta ez hainbat inmigrazio espontaneo, oso bakana izan zena, edo magistratu gobernarien lana edo erromatar hiritarrek esklabu indigenei ematen zieten manumisioa".

(Cl. NICOLET, 1984)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitara emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

BBB hirugarreneko Historia libururen bat azter, edota entziklopedia-
ren bat: zer diote erromatartzeaz? Ik. "Historia/1": 129-130. orr.

EGJTEKOAK

- a) Idatzi ezazu testuaren ideien laburpena, ulertzen ez dituzun hitzen esanahia aurrez argituz.
- b) Hispaniako mapa batean lekutu Erromak sorturiko hiri garrantzitsuenak, galtzadak, testuan ageri diren hiriak azpimarratuz.
- c) Beste mapa batean seinala itzazu Hispaniaren konkista-pausoak.
- d) Andatz kronologiko batean seinala Hispaniako konkistaren data aipagarrienak.
- e) Erroma etorri aurretik Iberia ez zegoen hutsik: eman Penintsulako tribu indigenen izena, eta kokapena lekutu mapan.
- f) Argitu zer adierazi nahi duten ondoko hitzok: legionarioa, veteranoen lekuharmena, hiritartasun-eskubidea, manumisioa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzu dira erromatarren etorrera-aurreko Penintsula Iberiarreko herriak?
- b) Gaur egun zein izen daramate testuan izendatzen diren hiriek: Italica, Graccurris, Valentia, Brutobriga, Tarraco, Carthago Nova, Carteia.
- c) Zer ulertzen da "erromatartze" hitzarekin?
- d) Autoreak testuan erromatartze-bide batzuk, aipatzen ditu: zeintzuk dira?
- e) Zein garaitan erori zen Euskal Herria erromatarren menpe? Zein enperadorearekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

-II/I. mend.

Pasarte honetan erromatarrek lortu zuten Mediterraneoaren batasuna azpimarratzen da. Batasun hau arlo guztietan lortu zen: ekonomian, politikan, administrazioan. "Pax Romana" deituarekin jo zuen gailurra egoera horrek. Batasun linguistikoa ere ezarri zen: latina bilakatuko da Inperioko Mendebaldean eta Afrikan harreman-hizkuntza, zuzenbidea bateratzen eta hedatzen den neurrian indartuko dena.

"Mugak muga, ez dago ukatzerik, harremanezko korrante handiak izan zirela mundu mediterranearraren baster batetik bestera, K.a. II. eta I. mendeak bitartean. Beraz, ekonomi 'integrazio' erlatibo bat egiten da, 'mundu osokoa' deitu daitekeen maila batean. Hona hemen horren aurpegi nagusiak. Aurrena noski, bateratze politiko eta administrazioa da horren abiapuntu. Probitziak konkistatu eta bereganatzean, Erromak horietatik lehenengo ateratzen duena zerga-dirua izaten da. Egia esan, presio fiskalaren bidez ateratzen zena ez zen lehenengo erregimenetan baino gehiago, eta produktio osorekin konparatuz gero, munita handiagokoa ere ez, baina hura dena Italiara eta gutxiengo baten (erromatar herriaren) onuratan bidaltzeak ondorio handiak eduki behar zituen nolana ere, metal ederren eta laboreen sektoreetan batipat (...).

Beste ondorio batzuk ere izan zituen konkistak: garai hartan esagutzen zen mundua batu zuen eta, konbultsio-aldi gogor batzuen ondoren, segurtasun erlatibo bat lortu zuen bidatia eta garrarioetan. Polibio-k jada azpimarratzen duen gausa da hori, eta Augustoren agintealdian berriz ere nabarmenduko dena. Artean greziera hitzegiten da bai Ekialdean eta bai Mendebal Mediterraneoko parte handietan --era gutxitako harremanak errasten dituen *koine* handia, alegia--; baina laster latinak beteko du zeregin hori Mendebaldean, Espainia, Galia eta Afrikan, eta zuzenbidea bateratzen den neurrian, honekin batera ibiliko da. Bestalde, erromatarrek nonnahi egongo dira presente: Inperioa, zati batean, biztanleria bidez egindako inperioa da".

(Cl. NICOLET, 1982)

Cl. Nicolet Historilariak, Erromaren historia ezagutzen hasteko oinarrizko obrak eman dizkigu. Batez ere, Erromaren zabalkunde-prozesua eta beronek Hiriko gizartean sortu zituen barne-aldakuntzak izan ditu gairik landuenak. Argitaratzen emandako lan hauetan bibliografia zabalak ere aurki daitezke (Barcelona: Labor), Unibertsitate-lanetarako.

Ik. "Historia/1" liburuan 111-153. orr.; bertan aurki ditzakezu zibilizazio erromatarraren zehaztasunak.

EGITEKOAK

- a) Erromako Historian bereiz itzazu hiru epealdi hauek: Monarkia, Errepublikak eta Inperioa. Emazu koadro batean laburper bat, ondoko alde hauek azpimurratuz: 1) Aginte-mota, 2) Gizarte-banaketa, 3) Ekonomia, 4) Lurraldearen hedapena, 5) Arteak.
- b) Erromako inperio-lurraldeak seinala itzazu mapa batean, garaien arabera emanez: 1) Monarki garaian, 2) Errepublikak-garaian, 3) Inperiokoan, 4) Mugak, 5) Kronologia, 6) Lurralde horien izenak bertan ezarri.
- c) Gaur eguneko mapa baten gain marraztu Inperio Erromatarraren mugak: zein Estatu moderno daude barnean?
- d) Pareka ardatz kronologiko batean Greziaren eta Erromaren Historiak.
- e) Euskal Herriko mapa batean adierazi erromatartzearen eskualde ezberdinak, galtzadak eta puntu nagusienak.
- f) Nobela eta filme asko dago Erromari buruz. Irakur, ikus: "Ben-Hur", "Quo Vadis", "Julio Zesar" filmeak... "Ni Klaudio", "Erromatarrak" liburua...

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer esan nahi dute hitz hauek: Erromatartzea, Magistratura, Senatua.
- b) Defini itzazu patrizioak, plebetarrak.
- c) Nola desagertu zen Monarkia. Nola antolatu zen Errepublikak? Zergatik sortu zen Inperioa?
- d) Zergatik latindu ziren Inperioaren Mendebaldeko lurraldeak?
- e) Zerk eman zion batasuna Inperioari.
- f) Inperioaren sorreran zein kausa eragile topa litezke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.